goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-06-26
EGUBAKOITZA
645. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Babes zabala jaso dute Bergarako Arranok eta Artatsek | 11

Hiruko saskibaloi txapelketa ukitu solidarioarekin | 27

SANPEDROAK ESKORIATZAN ETA FERIXA ELGETAN
Jaietako ekitaldi nagusien gaineko gehigarria | 17 eta 21

Herritarrendako eta nagusiendako herri hobea lortzeko ahalegina | 6

Deskargako lanak bukatzea lehentasun Diputazioan

- Hartu dute kargua diputatu berriek; tartean, Aintzane Oiarbide bergararrak
- Iragarri du Deskargako lanak bukatzea izango dela bere lehentasuna | 3

SINADURAK

297 aurresku | 5
IÑIGO MURGIONDO

10 | Aspaldiko hitzen bueltan
NEREA MAKAZAGA

Ongi etorri, oporrak! | 12
MARIJE UGALDE

15 | Demokraziaren ajeak
XABIER ETXEBARRIA

Eskola txikixe? | 26
JULEN ABASOLO

40 | San Juan sua
AGURNE BARRUSO



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Dublingo alkateari elkarrizketa
- Aulki gurpildunekin etxean moldatzen

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Astelehenean hasiko dira udaleku gehienak

Ehunka umek parte hartzen dute herri bakoitzean | Ikus 'Herriak' saila

Candyrako egitasmoek denbora behar dute

Batzar gehiago behar dituzte etorkizuna argitzeko | 4

DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 5 | HERRIAK 6
KIROLA 30 | KULTURA 32
ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Herriarendako ere handiak direlako

Arrasateko Udalak aitortza egingo dio Erraldoi eta Kilikien Konpartsari, eskertzeko | 32

San Juan jaietan plazan egin duten ikuskizunean.

JAGOBA DOMINGO

Gureak-ek 40 urte bete ditu desgaitasuna duten pertsonak lan mundura gerturatzen

Atzegiren eskutik sortu zen eta gaur egun 4.800 pertsonaz osatutako enpresa da, horietako %83k dute desgaitasunen bat; Debagoienean 410 pertsonak egiten dute lan Gureak-en

Gureak 1975ean sortu zen Atzegi-ren, Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkartearen, eskutik. Garai hartan, inork ezin zuen imajinatu Gureak 4.800 pertsonaz osatutako enpresa bihurtuko zenik; horietako %83k dute desgaitasunen bat.

Lau hamarkadotan, Gureak-ek desgaitasuna duten pertsonendako lan aukera egonkorrak sortzeko lan egin du, bereziki adimen desgaitasuna duten pertsonendako. Horrez gain, gizarteari erakutsi nahi izan dio kolektibo horrek baduela lan jarduera ugari garatzeko gaitasuna. Pertsona bakoitzari egokitutako lanpostua aurkitzea izan da Gureak-en erronka handienetakoa eta horrek eragin dio bere jarduerak dibertsifikatzea eta lana gaur egun dituen lau dibisioetan antolatzea: arlo industrialean, zerbitzuetan, marketinean eta *Itinerary* zerbitzuan; azken hori pertsonen garapenerako laguntza zerbitzu bat da.

Aurten Gureak-ek 40. urteurrena bete du eta pertsona ugariren gaitasunak lantzen jarraituko du aurrerantzean ere.

Gureak-ek Arrasaten daukan tailerrean langile talde bat lanean.

Gureak Debagoienean

Gaur egun 410 langile ditu Debagoienean Gureak-ek. Arrasaten eta Bergaran, esaterako, tailerrak ditu eta beste hainbat esparrutan ere egiten dute lan bailaran.

Tailerrak Arrasaten eta Bergaran

Bergaran 1972an jarri zen martxan Gureak-en lehenengo tailerra Seminarioko etxabeetan. 2002ko maiatzean tailer berria jarri zuten Telleriako industrialdean. Bertan, 15 pertsonako lantaldearekin hasi ziren lanean. Herri hauetako langileak zeuden: Elgetakoak, Antzuolakoak, Eibarkoak, Arrasatekoak, Oñatikoak, Eskoriatzakoak eta Bergarakoak.

Urteek aurrera egin ahala, langile kopuruak gora egin du, eta, egun, bezero hauendako egiten dute lan: Valeo argiztapen enpresarendako kableatze muntaia egiten dute, Magneti Marelli enpresarendako ordezko elektrikoak egiten dituzte, Carbureibar Pierburg-endako motordun ibilgailuendako pieza ez-elektrikoak egiten dituzte eta Sonceboz enpresarendako eta P4Q Electronic-endako kableatu elektrikoak egiten dituzte.

Arrasateko Gureak-eko tailerrak, berriz, aurten 25 urte bete ditu; 1990ean zabaldu zuten, Musakolan, ASAM SA lantegia zegoen tokian, eta 25 pertsona hasi ziren han lanean. Bergarako tailer zaharretik joandako Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako langileak hasi ziren bertan. Eta geroago, oñatiarrak gehitu ziren lantalde hartara.

Gaur egun 150 pertsona inguruk dihardute Arrasateko tailerrean lanean –Bergarako eta Eibarko langileak ere badaude–, eta, lineako arduradun Manu Aranbururen esanetan, lan giro "serioa" eta "ona" dute.

Hainbat bezerorendako egiten dute lan Arrasateko tailerrean: Valeo argiztapen enpresarendako kableatze ugari egiten dituzte, TWR-ren bolanteen airbag-endako kontsolak egiten dituzte, Coprecirendako galdarendako balbula muntaia egiten dute eta JMArendako giltzendako paketeak egiten dituzte.

DATUA

410

LANGILE DEBAGOIENEAN GUREAK-EK

Arrasaten 183 langile ditu, 110 Bergaran, 35 Oñatin, 34 Aretxabaletan, 25 Eskoriatzan, 17 Antzuolan eta 6 Elgetan.

Bestelako lanak bailaran

Tailerrez gain, zerbitzuetan eskaintza zabala dauka Gureak-ek: Antzuolan eta Arrasaten herriko hainbat zelai eta lorategi zaintzen dituzte Gureak-eko kideek; Aretxabaletan, berriz, garbitze lanak eskaintzen dituzte; Bergaran Agorrosin kiroldegiko tabernan lan egiten dute; eta Oñatin gasolindegi baten eskaintzen dute zerbitzua.

Marketinean, berriz, 27 pertsona daude; batzuk, Euskadiko Kutxako egoitzan marketin lanetan; beste batzuk, postari lanetan.

Pertsonen garapenerako laguntza zerbitzu bat den *Itinerary*-k ere badu bere garrantzia. Horren bitartez, desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak eta Gureak industrial, zerbitzuak eta marketin negozioen beharrak bateratzen dira. *Itinerary*-k formazioa eskaintzen du, eta pertsonen eta lanpostuen arteko egokitasuna aztertzen du, trebetasunen garapena sustatu eta lanpostu aldaketak ahalbidetzeko, besteak beste. Debagoienean aurten hamalau pertsona daude lan arruntarekin eta hamabi praktikekin edo heziketa prozesuekin.

Horrez gain, *Itinerary*-k eta Atzegik bultzatutako Pauso Berriak programa ere sustatzen dute. Pauso Berriak-en helburua da desgaitasun intelektuala duten pertsonei laguntzea euren lan esparruan. Gaur egun bailaran hamazazpi pertsona daude Pauso Berriak programan.

Tailer ibiltaria

Gureak-en 40. urteurrenaren harira, tailer ibiltari bat jartzen ari dira Gipuzkoako herrietan. Bergaran atzo, eguena, zabaldu zuten tailer ibiltaria Agorrosin kiroldegian eta bihar arte egongo da zabalik. Arrasaten, berriz, uztailaren 9tik 11ra bitartean egongo da ikusgai, Egaluzen.

Tailerraren helburua da desgaitasuna duten pertsonek egunerokoan dituzten oztopoez ohartaraztea, eta, jokoen bitartez, bisitariek desgaitasun fisiko, sentsorial edo intelektuala edukitzea zer den sentitu ahal izango dute. Eta Gureak-ek 40 urtean egindako lana ezagutzera emango dute.

MAIDER TXINTXURRETA

"Orain dela sei urte hasi nintzen lanean Arrasateko Gureak-eko tailerrean. Kable ugarirekin egiten dut lan eta pozik etortzen naiz lanera, diruagatik eta okupatuta egoteko. Lagun ugari egin ditut".

JOSE ANTONIO CARMONA

"Bost urte daramatzat lanean Arrasateko Monterron eta Santa Barbara parkeak txukuntzen. Gustura etortzen naiz. Arrasatekoa naiz eta paseoan ibiltzen direnek-eta ezagutzen naute".

UXURI AIZPURUA

"Duela bi urte hasi nintzen lanean Bergarako Agorrosin kiroldegiko tabernan. Askotariko lanak egiten ditut: barran, sukaldean eta mahaiak zerbitzatzen egoten naiz. Oso giro ona daukagu".

Sustapen ekonomikoa eta enplegua izango dira Diputazioaren lehentasun

- Errauskailuaren eta bosgarren edukiontziaren alde egingo dute
- Etxegaraten eta Deskargan bidesariak jartzen ahaleginduko dira

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hartu dute kargua datozen lau urteotako Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaz arduratuko diren diputatuek; atzo, eguena, hartu ere. Hain justu, EAJk eta PSE-EEk osatu duten Foru Aldundi berriak bost diputatu jeltzale eta hiru sozialista ditu. Parekidea da, gainera: lau emakume eta lau gizonezko ditu. Eta horietako bat Debagoienekoa da: Aintzane Oiarbide bergararra. Hura arduratuko da, zehazki, Gipuzkoako Bide Azpiegiturez.

Gainontzean, honako hauek dira ardurak eta izenak: Ogasuna, Javier Larrañaga (EAJ); Sustapen Ekonomikoa, Ainhoa Aizpuru (EAJ); Gizarte Politikak, Maite Peña (EAJ); Gobernamendu eta Komunikazioa (bozeramailea), Imanol Lasa (EAJ); Bide Azpiegiturak, Aintzane Oiarbide (EAJ); Kultura, Turismoa, Gaztedia eta Kirolak eta Lankidetza, Denis Itxaso (PSE-EE); Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa, Marisol Garmendia (PSE-EE); eta Ingurumena, Jose Inazio Asensio (PSE-EE).

Gipuzkoako Diputazioaren talde argazkia atzo, eguena. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Errauskailuaren alde

Horien guztien gidari edo buru izango da, berriz, Markel Olano jeltzalea. Eta dagoeneko hark jakinarazi ditu zeintzuk izango diren lau urteotarako lehentasunak, Debagoienari ere eragingo diotenak. Hondakinen tratamendua da horietako bat:

"Kanpainan iragarri genuen moduan, errauskailu planta eraikitzeari ekingo diogu (...). Kolaboratuko dugu, baita ere, txipa duen bosgarren edukiontzia ezartzen; aztertuko ditugu juridikoki aurkeztutako errekurtsoak eta aurreko Foru Gobernuak abiarazitako erabaki judizialen ondorioak aztertuko ditugu", jakinarazi du, besteak beste, ahaldun nagusiak. Gaineratu zuen hori guztia egingo dutela, "erabateko gardentasunez".

Enpresei eta pertsonei babesa

Baina lehentasun nagusia ekonomikoa izango du Gipuzkoako Foru Aldundiak, baita gipuzkoarrok "babestea" ere: "Sustapen ekonomikoa eta enplegua izango dira gure gobernuaren lehentasuna. Izan ere, 44.400 gipuzkoar daude gaur egun langabezian, eta milaka eta milaka enpresa bizirauten ari dira ahal duten moduan. Egoera horretan, ezin-bestekoa da enpresei babesa ematea lanpostuak sor ditzaten" (...) Dudarik gabe, gipuzkoar guztiei babes soziala bermatzea izango da geure beste helburuetako bat. Ez dugu inor bide bazterrean utziko", azpimarratu du Olanok.

Iruzur fiskala, euskara...

Eta Diputazioaren beste ildo batzuk aipatze aldera, "iruzur fiskalari borroka egitea" dute "erabateko lehentasun". Eta, adibidez, Olanok iragarri zuen euskara izango dela zehaztu duten "beste erronka nagusietako bat. Izan ere, ohartzen gara aurrerapauso handiak eman diren arren, ezagutza mailak gora egin duela, baina ez horrenbeste hizkuntzaren erabilerak. Euskarak eskoletan eta hezkuntza alorrean egin du aurrera nabarmen, baina kaleko erabilera sendotu beharra dago".

AINTZANE OIARBIDE | BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATUA

"Nire lehen lehentasuna izango da Deskarga behin betiko bukatzea"

Pozik hartu du kargua azken agintaldian Bergarako EAJren zinegotzietako bat eta bide azpiegituretako gaietan EAJren bozeramaile izan den Gipuzkoako batzarkideak. Arduraz ere bai, Goienari emandako lehen berbetan adierazten duen moduan:

Pozik, ala?

Bai. Behin erabakia hartuta, arduarekin, ardura handia delako halako kargua hartzea, baina bai, pozik nago.

Ezustekoa izan da zuretzat?

Ezuste handia izan da. Nik nire bide profesionalean zentratuta neukan nire ibilbidea, eta ja lagata neuzkan Batzar Nagusiak, Bergarako Udala, eta abar, eta ez neukan asmorik kargu publikoetan jarraitzeko. Eta ez nuen espero, ezta ere, niri halako eskaintza egingo zidatenik.

Ze lehentasun dituzue buruan?

Debagoiendar bezala, nire lehen lehentasuna izango da Deskarga behin betiko bukatzea, eta orain dauden arrisku guztiak ekidin eta gauzak behar bezala egitea. Gero izango dira beste batzuk, baina lehena Deskarga izango da.

Abian dagoen prozeduraren arabera, urte amaieran lizitatu beharko litzateke; zein da asmoa?

Ikusiko dugu. Oraintxe hartu dut kargua, eta, sartu, departamentua ikusi, jendearekin egon, paperak aztertu... eta gainontzekoak egin beharko ditugu. Oraindik ez dugu informazio hori jasotzeko aukerarik ere izan. Beraz, lehenengo aztertu eta gero hartuko ditugu erabakiak, baina hori bai, erabakiak hartu egingo ditugu.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Bidesariei dagokienez, bertatik pasatzeko ordaindu egin beharko da?

Guk beti esan dugu beti Deskargako autobide berri horretan bidesaria egon beharko lukeela, berez, horrela dagoelako aurreikusita hasieratik plan finantzarioarekin. Nolakoa izango den, baina, erabakitzeke dago, baina horrelako autobideetan ordaintzen den moduan, Deskargan ere bidesaria jartzea da asmoa.

Debagoienean galdeketa egiteko aukera aztertuko dute

U.M. | DEBAGOIENA

"Debagoienakook bete behar genituen Maria Cristina eta Mundaitz zubi bitarteak eta oihalaz dena estali genuen eta leku batzuetan bi eta hiru lerro ere egin behar izan genituen, ze distantzia hori motz geratzen zen". Debagoieneko Gure Esku Dago dinamikako kide Jon Goikolearen berbek adierazten duten moduan, oso modu positiboan baloratu dute antolatzaileek joan den domekako Joste Eguna, oihal kateari dagokiona eta baita Anoetari dagokiona ere: "Bailarako erraldoiak, danborra jotzen ibili zirenak, dantzariak... benetan eskertzekoa bailarako jendeak egin duen lana ekitaldi hau ondo irteteko".

Datuek lagundu egiten dute Goikoleak esandakoa berresten: Debagoienetik 30 autobus joan ziren Donostiara –eta beste mordoxka bat euren kabuz–. Baina, gainera, Donostian ez ezik, gainerako hiriburuetan ere izan zen debagoiendarrik, batez ere, Gasteizen, eta, bereziki, aramaioarrak: Konstituzio plazatik Andre Mari Zuriaren plazara kalejira egin zuten oihalekin eta plazan egin zuten ekitaldia; oihalekin osatutako hautetsontzi erraldoia, berriz, Plaza Berrian kokatu zuten.

Datozen bileretan aztergai

Aurrera begira, berriz, "erabakiaren aroa" dela azpimarratu zuen Anjel Oiarbidek, Gure Esku Dago dinamikako ordezkariak: "Fase definitiboa, erabakiarekin berarekin amaituko den bidearen azken txanpa: herri bat garelako, herritarron garaia delako, erabakitzeko eskubidea dugulako". Ildo horretan, Gipuzkoari dagokionez, iragarri zuten Hernanin eta Goierrin 2016an herri galdeketak egingo dituztela.

Edozein modutan, ez dago itxita galdeketa gehiago egiteko aukera. Hala, Debagoienari dagokionez, "datozen bileretan" erabakiko dute "Debagoienean ere egingo duten halakorik".

ARABAUTO
NISSAN ZURE KONTZESIONARIO BERRIA GASTEIZEN
- Ibilgailu berriak eta aukerakoak
- Mekanika eta karrozeriako tailerra
- Mantentze-lan zerbitzu azkarra
- Aseguruak eta abar

Etor zaitez Nissan gamako edozein ibilgailu probatzera eta eskuratu opari bat

ARABAUTO Gamarrako Atea 46 • 01013 VITORIA-GASTEIZ • Tel.: 945 26 92 73

Candyrako proiektuek denbora behar dute

- Langileek eta sindikatuek batzartzen segituko dute
- "Etorkizuna ez dago ziurtatuta", esan du ELAk

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Candyko langileen etorkizuna "oraindik ez dago ziurtatuta", ELA sindikatuaren esanetan, baina, aztarna guztien arabera, pixkana-pixkana argituz joan daitekeela dirudi. Astelehenean batzarra egin zuten langileek eta Foru Aldundiarekin harremanetan egon izan diren ordezkari sindikalek; langile guztiak zeuden deituta eta 50 inguru joan ziren. Batzar hartan hartu zuten erabaki finko bakarra honako hau izan zen: Candy berrindustrializatzeko eta langile guztiei lana emateko mahai gainean dauden bi proiektu osagarriak aztertzen jarraitzea. Hasieran behintzat, proiektuok begi onez ikusten dituzte enpresa batzordeko kideek eta baita langile askok ere, baina gauza asko daude oraindik fintzeko eta erabakitzeko. Datozen asteotan berriz batzartuko dira, eta prozesuak luze jo dezake oraindik.

Batzarraren ondoren, bai Foru Aldundiak –berrindustrializazioa bereziki sustatu duen erakundeak– bai ELA sindikatuak prentsa oharrak kaleratu dituzte.

Bergarako osoko bilkuren aretoan batzartu ziren Candyko langileak. | L.K.

"Aztertzea merezi du"

ELA sindikatuak azaldu du enpresa komiteak itxuraz "serioak" direla iritzi diela bi proiektuei, eta biak aztertzea merezi duela. Antza, bi egitasmoen artean Candyko plantilla-soberakin guztia hartuko lukete eta, proiektuen sustatzaileen arabera, langile gehienak laneratzeko epea urtebete baino gehiago luzatzeko aukera legoke. Horren harira, ELAk gezurtatu egin du zenbait komunikabidetan egunotan argitaratutakoa, alegia, bakarrik langile gutxi batzuendako lanpostuak egongo liratekeela.

ELAk adierazi du, baina, oraingoz ezer ez dela behin betikoa: "Zehazteke daude lanpostu kopurua, langileek egin beharreko ekarpenak, diru hori berreskuratzeko modua eta baldintzak, laneratzeko erritmoa... eta proiektuak zenbateraino izango diren bideragarri ere ez dago argi". Sindikatuko iturrien arabera, proiektuak behin betiko nola gauzatuko diren baldintza dezaketen osagai guztiak aztertzen ari dira eta, xehetasun horiek jakiten dituztenean –"eta soilik orduan", azpimarratu du ELAk– langile bakoitzaren esku izango da egitasmo hauetan parte hartzeko edo alde batera uzteko erabakia.

Hain zuzen, langileei azpimarratu dieten gauza bat horixe izan da: proiektuarekin bat egitea borondatezkoa dela.

Bukatzeko, gehitu dute Candyko langileentzako irtenbidea "lan diskretu eta partekatutik" etorriko dela, eta ez "propaganda eta lehia alderdikoietatik". Langileen ordezkariek behin eta berriz salatu izan dituzte zenbait komunikabidetan argitaratu izan diren mezuak eta erakunde publikoen artean izan diren ika-mikak.

Birziklapen arloko enpresak

Foru Aldundiak, berriz, astelehenean bertan esan zuen langileek "onartu" egin zituztela Aldundiak berak bideratutako bi berrindustrializazio proposamenak, eta enpresen gaineko datuak eman zituen. Frantziako Urbanext eta Bergarako Lanteko enpresak dira. Biek birziklapenaren alorrean dihardute –tetrabrikekin Urbanext-en kasuan, eta autoentzako piezekin, Lantekorenean–. Bi enpresek metal alorreko hitzarmena ezartzeko konpromisoa dute.

Deiene Bidaurreta | Harrera Protokoloko teknikaria

"Herriek ulertu behar dute aniztasuna aberatsa dela herriarendako"

Debagoienera bizi izatera datozenei zuzendutako Harrera Protokoloa lantzen dihardute

T.M./U.M. | DEBAGOIENA

Migrazio prozesuen ondorioz jendartea gero eta anitzagoa da, eta, aniztasun horri erantzun guran, erakundeak hainbat tresna garatzen ari dira. Hori da, esaterako, Debagoieneko Mankomunitatea lantzen ari den Harrera Protokoloa. Bi teknikari ari dira hura osatzen; Deiene Bidaurreta teknikariak esan du, besteak beste, irailera arteko lanketa egingo dutela.

Deiene Bidaurreta. | TXOMIN MADINA

Zer da Harrera Protokoloa?

Aniztasuna kudeatzeko lehen pausoa. Debagoienera bizitzera datorren edozein herritarri hasierako ongietorria edo harrera zela egingo zaion zehaztea. Udalari zein herriari begira.

Zelako ekintzak planteatzen ditu?

Pertsona udalera erroldatzera datorrenean, gehienetan errolda egin eta norbera hasten da herri horretan integratzeko edo herriaren ezaugarriak ezagutzeko bideak lantzen. Helburua da udalak orientazioa ematea pertsonari; azaltzea herriko baliabideak, eskuragarri dituenak, laguntza puntuak, eta kokatzea, herrian eta Euskal Herrian, nondik datozen arabera.

Non du jatorria ekimenak?

Gipuzkoako Aldundian; Migrazio eta Aniztasun Sailean sortu zen Udalanitz sarea, aniztasunaren kudeaketarako, elkarlanerako, herri bateko ideiak hartu eta beste herri baten planteatzeko… hor detektatu zen Debagoienean hutsunea, ze Debagoienean ez dago-eta aniztasun teknikaririk –Arrasaten bat, baina ez lanaldi osoan–, eta sumatu zen ez zela landu eskualdeko aniztasuna.

Non ikusten duzue beharra?

Udal zein herri mailan. Ikusi dugu herriek ulertu behar dutela aniztasuna aberatsa dela; herriarendako, Euskal Herriarendako eta Gipuzkoarendako zerbait positibo bihurtu behar duela. Izaten dugun beldurra, normalean, izaten da ez dugulako ezagutzen, baina, behin ezagututa eta elkar ulertuta, benetan da aberasgarria herriarendako.

> **"Ideia da azken txanpan herriz herri aurkeztea proposamena"**

Cegasako langile ohiek Cegasa Internationalen teknologia berrien zentroa erosi nahi dute

Cegasa Portable Energyk eskaintza bat egin du Cegasa International zen taldearen Teknologia Berrien Garapen Unitatea bereganatzeko. Cegasako langile ohiak daude Cegasa Portable Energyn eta eurek dute eskaintza horren lidergoa. Erreferentziazko bazkidea Bilboko Reflectia taldea du. Beste inbertitzaile pribatu batzuk ere badaude tartean, baina babes publikoa ere badu, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta SPRIren aldetik. Helburua da enpresa berri bat sortzea. EUS Energy Storage izango du izena eta Bizkaian egongo da.

ZABALIK

IÑIGO MURGIONDO
goiena.eus/komunitatea/

297 aurresku

Dantza da jauzika eta biraka aritzea. Dantza da doinuren bat jarraituz gorputzarekin zerbait azaltzea. Dantza da, ziur asko, zuk uste duzun hori baita ere. Euskaldunok baditugu geureak: euskal dantzak. Berezko distiradun altxorra osatzen dute, gainera. Ehunka urtetan zazpi probintzietan dantzatu, bizi, ikusi, sentitu... izan ditugu. Eta bizirik diraute, zorionez.

Transmisioak ahalbideratu du gaur egungo dantzariok orain dela gizaldi asko egiten ziren hanka pausoak egitea; koreografiek jasan edo pairatu dituzten egokitzapenekin, jakina. Horrek, halaber, ezinbestean izan behar du horrelaxe; izan ere, jendartea aldatu egiten da, eta, sozietatea pertsonok osatzen dugunez, bertako adierazpen oro ere behar da eraldatu eta egokitu. Betiere, adierazpenok fosil bihurtzerik gura ez badugu. XXI. mendeko eraldaketa prozesu horretan, baina, bada arduratzen nauen zerbait.

Euskal dantzak aurreskura mugatu ditugu euskaldunok azken hamarkadetan. Ikusten dira milaka eta milaka aldiz zentzurik ez duten kasuetan: inoiz euskal koreografiarik ikusi ere egin ez duten bikoteen bodetan, politikarien obra faraonikoen inaugurazio ekitaldietan, eta abar. Soka-dantza xehatu eta aurreskua prostituitu dugu, testuingurutik at ateraz. Ala egoki deritzozue Martin Garitanok Gipuzkoako ahaldun nagusi egin dituen lau urteetan 297 aurresku jasotzeari?

Ikusten dira milaka eta milaka aldiz zentzurik ez duten kasuetan

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea

GUTUNAK

Izan zirelako gara

Pedro Mendieta
Aretxabaleta

Sekula ez dut gustuko izan nire aspaldiko bizipenak jendaurrean azaleratzea.

Maiatzaren 22an, herriko EAJko militante garrantzitsu batzuek GOIENAri igorritako *Izan zirelako gara* artikulua nuen aurrean. Ez nekien maiatzaren 8an GOIENAk artikulu bat atera zuela nire alkate-garaiari erreferentzia eginda.

Egia esan, harritu egin ninduen. Uste dut elkarrizketan ez nuela analisi konparatiborik egin, eta, nire aurretik izan zirenekiko errespetuagatik, nire alkate-garaiko egoerak, jarduerak eta bizipenak kontatu nituen.

Hortaz, EAren sorrerari erreferentzia egitea ezinbestekoa zen, alkatetzarako nire hautagaitzak egoera hartan izan zuen-eta jatorria. Ez diet haren komentarioei erantzungo, ez du-eta inolako emaitza positiborik ekarriko; hori ez da nire estiloa.

Nik esandakoak berretsi egiten ditut, ez dut uste inolako zuzenketarik egin behar dudanik. Gauza bakarra: kudeaketa-prozesuetan garaiak eta erakundeak nahasten segi ez dezaten, eskatzen diet sakon informa daitezen, korrika eta presaka egindako balorazioak egin aurretik.

Hala ere, nire nortasunari erreferentzia egiten dion aspektu bat dago, eta hori jendaurrean jarri beharra daukat.

Hain zuzen, izan zirelako gara. Baina kontua da nortzuk izan ziren, nortzuek eta zelan eraiki zuten nire nortasuna. EAJ udal-gizarte sarean sartu aurretik, 1955-1980 urteen artean euskal gizarteak askotariko aukerak eskaini zizkidan: militantzia klandestinoa; enpresa-sustapeneko hainbat proiektu promozionatzea; izen handiko erakundeetan zuzendaritza-lanak, bai eskualdean, bai Euskal Herrian; eta esperientzia zabala hirigintzan eta udaltzaingoan.

Bada, hauexek eraiki zuten nire nortasuna: gurasoek, euren ereduarekin eta erabateko esfortzuarekin; On Jose Maria Arizmendiarrietaren babesak, eta baita Ulgorreko zuzendariena ere –Ormaetxea, Gorroñogoitia, Larrañaga...–; nire prestakuntza dualeko prozesu pertsonal eta zabalak, lanaldi osoak eta nire kabuz egindako ikasketa iraunkorra uztartuta; eta pilatutako ibilbide profesional luzeak.

Nortasun hori erakundeen zerbitzura jarri nuen, EAJren eskariz, familiako eginbeharrei denbora larregi kenduta; ezer kobratu barik eta ibilbide politikoa hasteko asmo eta promes barik. Eta oso harro nago horretaz, herriari zerbitzu altruista eskaini izana irudikatzen du eta.

Gizarteak erabaki dezala nork nori zor dion gaur egun dena.

Gabiotak vs arranoak

Ibai Redondo
(Debagoieneko Sorturen koordinatzailea)
Bergara

Aguila imperial-ak gabiota edo kalatxori bilakatu dira; koroa buruz aldatu da, baina artaburu berek janzten dituzte; Tribunal de Orden Publikoaren letreroa aldatu eta Audiencia Nacional deitzen da orain; Francoren biboteak beste gizon txiki batzuen aurpegian agertu dira; Francorekin aberastu zirenek orain Ibex-35a osatzen dute; arlo judizialean, militarrean, ekonomikoan, komunikatiboan eta politikoan diktaduran buru zirenek orain *demokrazian* ere agintzen jarraitzen dute. 1936an disidentzia errepublikanoari ondasunak lapurtu zizkiotenek Ezker Abertzaleari ondasunak lapurtuko dizkiote. Estatu espainiarrean lehen eta orain agintzen dutenak enbor bereko ezpalak direlako, txanponetan aurpegi bat edo beste agertu, txanpon beraren bi aurpegiak.

Ezker Abertzalea, atzo bezala gaur ere, Espainiaren Batasunarekin eta Kapitalismoarekin apurtu eta Euskal Herri aske, gorri, berde, more eta euskalduna eraikitzen ari da eta larrutik ordainarazten digute. Gure ideia independentista eta sozialistak zigortzen dituzte, arriskutsuak direlako boterean daudenentzat. Badirudi ez direla konturatu lore bat moztuta edo 107 Arrano ehizatuta ere, Euskal Herrian beste milaka proiektu ernatzen ari direla. Gaur egun, zorionez orain 40 urte ez bezala, Ezker Abertzalea ez dago bakarrik erregimena eraitsi eta herri burujabea eraikitzeko. Fronte zabala eratzen ari gara, eta, Nafarroan ikusten ari garen bezala, kalean eta instituzioetan fronte popularra jaio da berriz ere. Arranoak, Fenix hegaztiak bezalakoak direlako, errautsetatik indar berriz jaiotzen dira. Hori da Ezker Abertzalearen erronka, herritarren begien bistara lapurtutako *herriko taberna,* elkarte eta lokalen errautsetatik proiektu berri, herrikoi eta ilusio sortzaileak eraikitzea. Jasotzen ari garen elkartasuna bihotzez eskertzeaz gain, herri bezala gabioten erasoaldiari erantzun eta proiektu berriak eraikitzea lortuko dugu. Bitartean elkartasun besarkada estu bat bidali nahi diegu beraien bizi bidea jokoan duten Bergarako Arranoko langileei eta Artatse elkarteko bazkideei. Zuen duintasuna eta lanerako gaitasuna guretzako eredu direlako, animo eta aurrera!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakarrarekin baizik.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ANTZUOLA

Nagusi eta herritar guztiendako Antzuola hobea lortzeko lanean

- Herri Lagunkoia proiektua martxan dago herrian otsaila ezkero
- Parte-hartzearen bitartez adinduendako herria egokitzea da helburua

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektua da, Osasunaren Mundu Erakundearen Age-friendly Environments Programme ekimenean oinarritua. Hiri eta herriak pertsona nagusiendako egokitzea du helburu, herritarren parte-hartzea baliatuz.

Otsailaren 17ko osoko bilkuran onartu zen egitasmoarekin bat egitea, eta orduz geroztik lantalde bat martxan dago, pertsona erretiratuz osatuta, nagusiki.

"Erretiratuok bagenituen kezka batzuk, eta Ttipi-Ttapa taldea sortu genuen oztopoak identifikatu eta kaleak hobetzeko. Ondoren, Herri Lagunkoia proiektuaren berri izan genuen", dio taldeko idazkari Kontxi Elortzak.

Proiektuko taldekideak. | MAIDER ARREGI

Puntuz puntu

Diagnostikoa eta lagunkoitasun plana osatu behar dute proiektuaren lehen fasean. Horren baitan, zortzi arlo jorratuko dituzte. Haietako bost landu dituzte dagoeneko.

Lehenengo, aire zabaleko lekuak aztertu dituzte, herria adinduendako zein puntutaraino prestatuta dagoen ikusi eta hobekuntzak proposatzeko.

Aztertutako bigarren puntua garraioa izan da. "Autobus batzuetan igotzera laguntzeko plataformak ez du funtzionatzen", azaldu du idazkariak. Autobus enpresarekin eta erakundeekin hitz egin dute informazioa jasotzeko.

Horren ondoren, etxebizitzaren gaiari ekin zioten. Esate baterako, etxebizitzetan igogailua jartzeko dauden diru laguntzak aztertu zituzten.

Parte-hartzea sustatu eta herritar sarea sortzea ere bada Herri Lagunkoia proiektuaren helburua. Besteak beste, kanpotarrekin lan egiten duen Auzoko taldearekin harremanetan ari dira. Kontxi Elortzak adierazi duenez, "harrituta" geratu dira "ikusita herrian nolako mugimendua dagoen".

Orain arte landutako azken puntua enplegua izan da. Horren harira, "oso ondo prestatuta" dauden herriko gazteak aintzat hartzeko eskatu du Elortzak.

Hori guztia jorratzeko bilera ugari egin dituzte otsailetik hona. "Akta bat idazten dugu, eta ondoren Udalera bidali". Elortzak azpimarratu du Udalarekin "oso harreman ona" izan dutela.

Galdetegia

Herriko hainbat etxetan gaur egungo Antzuolari buruzko galdetegi bat banatu zuten, eta hura Interneten ere jarri zuten eskuragarri. Guztira, 200 baino gehiago jaso zituzten bueltan, beteta. Proiektuaren koordinatzaile Mariano Urrutxik adierazi duenez, "oso pozik" daude elkartean herritarren erantzunarekin. "Orain, balorazioa egiten dihardugu", dio.

Hemendik aurrerako pausoak

Udan atseden hartu ostean, irailean itzuliko dira lanera Herri Lagunkoia proiektuko kideak. Orain, azken hiru puntuak geratzen zaizkie lantzeko: errespetua eta inklusioa, komunikazioa eta informazioa eta gizarte eta osasun zerbitzuak.

Horrekin amaitutakoan, ekintzen ezarpen plan bat aurkeztuko dute, eta, hura onartutakoan, hiru urteko epea izango du herriak ekintzak martxan jartzeko. Horren ostean, ebaluazio fasea iritsiko da. Hasieratik ebaluazio faseraino lau edo bost urte pasako dira. Ondoren, nahi izanez gero, beste plan bat osa dezakete, etengabeko hobekuntza lortzeko.

DATUA

20

PERTSONA

Hogei pertsonak osatzen dute gaur egun Antzuola Herri Lagunkoia taldea, baina edonorentzat zabalik dago.

Kanposantura bidean dagoen hesia konpontzea lortu zuten. | MARIANO URRUTXI

Talde bat herrian egon litezkeen oztopoak identifikatzen. | MARIANO URRUTXI

Bidali Eskoriatzako San Pedro jaietako argazkiak
ARGITARATU EGINGO DITUGU GOIENAN!

PARTE HARTZEKO: berriak@goiena.eus 688 69 00 17 @goiena facebook.com/goienanet

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Bihar, zapatua, bukatuko dira inoizko sanjuan goiztiarrenak

Aste osoan herritarrek etxetik irten eta festak kalean gozatu dituzten arren, ekainaren 23a izan zen jaietako egun nagusia, ohiturari eutsiz

J. BEREZIARTUA/I.GALLEGO | ARRASATE

Inoiz baino goizago hasi dira jaiak Arrasaten, eta, amaitu ere, ohi baino beranduago amaituko dira. Txosna batzordekoen suziri jaurtiketarekin hasi ziren jaiak zapatuan. Beste klasiko bat ere izan lehen egunean, AEDk eta AEK-k antolatutako Dragoi Jana.

Gau magikoa

Eguerdian herri bazkariarekin ekin zioten kuadrillek San Juan bezpera ospatzeari. Ostean, makala sorbaldara igo eta txopo-poteoan plazaraino eroan zuten. Bertan, lehenengoan jarri zuten zutik, altxaldi garbi eta koordinatuan.

Ondoren, salbearen tartea irisi zen. Udaletxetik San Juan parrokiarako prozesioan, EAJko, EH Bilduko eta PSE-EEko zinegotziek hartu zuten parte. Aipatzekoa da lau urteren ostean alkateak ostera parte hartu duela salbean.

Errementari-dantzak jendetza batu zuen, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeetako kideei esker. Plazara heltzean, dragoiak San Juan suaren garra isiotu zuen, eta, sua piztuta, Maria Ubarretxenak egin zuen alkate -dantza lehen aldiz. Ohitura beteta, dantzarako abarkak sutara jaurti zituen Ubarretxenak, herritarren txalo artean. Dantzariak Portaloira iritsi orduko, Biteri plazan danbor-joleak hasiak ziren burrunba ateratzen. Danborradan hamar konpainia irten ziren; guztira, 217 lagun, Nestor Maidaganen gidaritzapean.

Urteko gaurik motzena, luzea eta ekintzaz betea izan zen; askok, entzierroan parte hartuta agurtu zuten San Juan bezpera.

Etxeko txikiek ere izan dute non gozatu. San Juan egunez, erraldoi eta kilikiek kaleak hartu zituzten. Egun bat geroago, Eguzkilaruri ongietorria egiteko Biteri eta Zaldibar gaztetxoz bete ziren. Jolas eta tailer artean igaro zuten euren eguna. Bazkalorduan, *Zeuk iñ, zeuk jan* herri bazkarirako Arano eta Garcia maisu-maistrak plazan batu, eta aurrez prestatuko jakiez gozatu zuten. Arratsaldean Monterron hartu zuten Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek.

Azken traka falta da oraindik

Gaur, 12:00etan hasita, Herriko Plazan zenbait kultura ezagutzeko aukera egongo da. Bertan, jakiak dastatzeko aukera izateaz gain, dantza emanaldiak ere egongo dira, eta gauean, 23:00etan hasita, Baron Rojo talde beteranoak doinu gogorrez bustiko du Herriko Plaza. Bihar, bertsozaleek jaialdia izango dute Seber Altuben, 20:00etan hasita, eta 21:30ean, jaiak borobiltzeko, RIP taldeko kide izandako Jul Bolinaga omenduko dute Monterron parkean.

Bideoak eta argazki gehiago ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Gazteek modu garbi eta koordinatuan igo zuten makala, lehen saiakeran.

Ubarretxenaren lehen Alkate Dantza.

Danborrada Herriko Plazan.

Errementari Dantza suaren bueltan; urtero bezain hunkigarria izan da aurten.

Jende asko *Zeuk iñ zeuk jan* herri bazkarian; paella, janari izarra aurten ere.

SANJUANAK AMAITZEKO GERATZEN DIREN EKITALDIAK

EGUBAKOITZA 26

08:30 Diana ARRASATEKO GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

11:00 Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.

12:00-14:30 KULTURARTEKOTASUNA AZOKA. Herriko Plazan kultura askotariko jaki tipikoak dastatzeko aukera.

18:30 CIRCORTITO taldearen eskutik DESPISTADOS zirku ikuskizuna Biteri plazan.

18:30 ERREKORTADOREEN ESKOLA gaztetxoentzat zezen-plazan.

18:30 Kalejira musikatua txosna batzordeak antolatuta.

19:30 Herriko Plazan SOKA-DANTZA.

20:00 DANTZALDIA Jon Urbieta DJarekin Seber Altube plazan.

20:00 Txosnagunean Urrezko Dragoiaren ematea.

22:30 ZEZENSUZKOa erdialdeko kaleetan zehar.

23:00 BARON ROJO taldearen kontzertua Herriko Plazan.

ZAPATUA 27

11:00 ERRALDOIEN KALEJIRA Zaldibarretik hasita.

13:00 ERRALDOIEN TOPAKETA* herriko plazan.

13:00 Herriko Plazan konpartsa guztiak batuko dira.

20:00 BERTSO JAIALDIA Seber Altube plazan AEDk antolatuta. Partaideak: Xabi Igoa, Oihana Bartra eta Agin Laburu. Gai-jartzailea: Altutik! Bertso eskola eta Tito.

21:30 JUL BOLINAGAri KONTZERTU OMENALDIA Monterronen.

* Konpartsa partaideak: Txantrea, Deustua, Baigorri, Urretxu eta Arrasate. Gaitero partaideak: Txantrea, Tutera, Baigorri, Iruñea, Bizkaiko gaiteroak, Calahorra, Urretxu eta Arrasate.

San Juanen irudia parrokiara heltzen salbea hasi aurretik. Lau urteren ostean, alkateak parte hartu zuen ekitaldian.

San Juan egunean batu zen jende gehien zezen plazan, gaupaseroak barne.

Ignacia Llodio (97 urte) eta Eugenio Apaolaza (95) alkatearen lore sortekin.

Dragoi txuletak, ederrak aurten ere.

Los W.C. talde arrasatearra Txosnagunean eskainitako kontzertuan.

Eguzkilaruren etorrera haur eta gaztetxoendako gozamen izan zen atzo. Argazkian, makala txikia altxatu berri.

San Juan eguneko fenomeno berezia.

Arrasate Musikalen kontzertua. | ARGAZKIAK: I. SORIANO, J. BEREZIARTUA, I. GALLEGO ETA J. DOMINGO

GOIENA

Arrasatearrak, erabakiari helduta

Gure Esku Dago dinamikak ekainaren 21erako Donostian antolatu zituen ekitaldietan hainbat arrasatear elkartu ziren. Arrasateko lantaldearen arabera, arratsaldeko Anoetako ekitaldirako 576 sarrera saldu zituzten. Horiez gain, boluntario edo langile moduan beste 172 lagunek egin zuten bat erabakitzeko eskubidearekin: "Eskerrik beroenak boluntario lanean aritu zirenei eta orokorrean Donostiara joan ziren arrasatear guztiei!".

Bizikletaren erabilera sustatu eta jarduera fisikoa egiteko ohitura bultzatzeko proiektua Herri Eskolan

Arrasate Herri Eskolak, Eskola Agenda 21 proiektuarekin batera eta Gorputz Hezkuntzako arloarekin elkarlanean, bizikletaren erabilera eta jarduera fisikoa sustatzeko ekimen berezia egin dute ikasturte honetan. Lau saiotan landu dute proiektua bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleekin: bizikleta ezagutzeko saioa, abilezia zirkuitua, zirkulatzeko hezkuntza saioa eta Usako aldera bizikleta txangoa.

Araitz Etxabe | Oiartzun futbol taldeko jokalaria

"Taldeko lanagatik lortu dugu Lehen Mailara igotzea; familia bat gara"

Mondran 15 urte egin ostean, Oiartzunen jokatu duen hirugarren urtean lortu du Etxabek igoera

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Emakumezkoen Lehen Mailan jokatuko du datorren urtean Araitz Etxabe futbol jokalari arrasatearrak Oiartzun taldearekin. Hirugarren urtea egin du aurten eta ilusioz gainezka dago "oso zaila" izango den datorren urterako.

Zorionak! Handia egin duzue...

Eskerrik asko! Bai, oraindik ez gara oso kontziente, baina bai, handia egin dugu. Ospakizunekin aspaldi hasi ginen, baina oraindik ez ditugu amaitu; merezita ditugu ospakizun guztiak.

Datorren urtean Espainiako talde indartsuenen aurka jokatuko duzue.

Hala da, bai. Bartzelona, Athletic, Reala, Atletico Madril... oso aurkari gogorrak izango dira.

Liga hasierako helburua zen igoera?

Egia esan, ez. Pixkanaka joan gara helburuak zehazten, oztopoak sortu ahala joan gara horiek gainditzen. Denboraldi osoan ez dugu partidu bakar bat bera ere galdu; konturatu ginenerako, liga irabazi eta igoera faserako txartela lortu genuen.

Araitz Etxabe. | A.E.

Eta nola joan da igoera fasea?

Gaizki hasi genuen, Madrilen aurka 4-2 galduta; aurten galdu dugun lehen partidua izan zen. Baina etxean oso indartsu ibili gara eta itzulerako partiduan 4-0 irabazi genien. Horrek indar handia eman zigun azken faseari begira. Vigoko El Olivo taldea zen igoera lortu aurreko azken aurkaria; 2-1 irabazi genuen etxean eta 1-2 Vigon.

Etxean horren indartsuak izatea izan da denboraldiko gakoa?

Gakoetako bat bai, zalantza barik. Bi urte darama taldeak etxean partidurik galdu gabe; taldean oinarritzen da gure jokoa eta taldeko lanagatik lortu dugu igoera. Familia bat gara, gazteekin eta esperientziadunekin ondo orekatua. Gure artean lehia handia egon da hamaikakoan sartzeko eta horrek oso ondo egin dio taldearen errendimenduari.

Igoerak ze aldaketa eragingo dizkio Oiartzun Kirol Elkarteari?

Gastu ekonomiko handia ekarriko du Oiartzun moduko talde txiki batendako. Ez gara honetaz bizi, gehienok lan egiten dugu eta besteek ikasi egiten dute; hortaz, jokalarion aldetik ere esfortzu handia eskatuko du. Baina urte oso gogorra izango dela jakin arren, gutxienez, urtebetez probatzeko prest gaude. Ilusioak gidatzen gaitu, eta, beraz, oztopoei eta gorabeherei aurre egingo diegu, seguru.

Mondran 15 urte egin ostean, Oiartzunen gora egin duzu...

Bai, hiru urte oso onak bizi izan ditut Oiartzunen. Gauza asko izan dira berriak, eta lorpen handiak egin ditugu. Handiena, hori bai, Lehen Mailarako igoera. Futbolari dagokionez, asko eman dit Oiartzunek, baina baita alde pertsonaletik ere. Lagun mordoa egin ditut, familia baten moduan sentitu naiz. Ezin dut gehiago eskatu.

AEDren bertso saioan, Igoa, Bartra, Laburu eta Ibarra

J.B. | ARRASATE

San Juan jaien barruan ohikoa den ekitaldietako bat da AEDk antolatzen duen bertso jaialdia. Data eta leku finkorik ez duen ekintza da: "Hainbat urtean Monterron parkean egin izan dugu, gauez. Iaz Seber Altube plazan egitea erabaki genuen, eta egunez. Ondo funtzionatu zuenez, errepikatzea erabaki dugu", diote antolatzaileek. Gaur izango da jaialdia, Seber Altube plazan, 20:00etan. Bertsolari gazteak ekarriko dituzte, antolatzaileek diotenez, jende gaztea erakartzeko asmoz: Xabi Igoa, Oihana Bartra, Agin Laburu eta Iratxe Ibarra izango dira aurtengo gonbidatuak.

Gaztetxeko Altutik! eskola

Tito ibiliko da aurkezle, aurretik gaztetxean elkartzen den Altutik! bertso eskolakoek batu dituzten gaiak proposatzen: "Ahalegina egin dugu herriko eragileak presente egon daitezen eta horregatik proposatu genien eurei jaialdia gidatzea. Asko eskertzen diegu eskaini diguten laguntza", adierazi dute AEDkoek.

NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Aspaldiko hitzen bueltan

Ustekabean topatu naiz orain urte dezente idatzitako hainbat testurekin, eta bat-batean berriz ere bat egin dut atzoko forma eta paisaia propioekin.

Lerro korapilatsuak hitzen kateatze beldurtian, eta orduko esanak berreskuratuz, "inork ez zuen jakiterik zein puntutan ekin nion eraikuntza paradigmatiko mugagaitzaren ihesari".

Kuriosoa dagokit esan nahi dugun hori norbanakoak nola komunikatzen duen, nola komunikatu nahi dugun. Eta dibertigarri suertatu zait karratu metaforikoekin marraztu nahi izan nituen irudi errealak berriz begiztatzeak, edota armiarmek menperatutako ordularietan denboraren hots markatua entzuten saiatzeak.

Nork ez dauka norbere lengoaia edota berea besterik ez den mundu babestua? Eta horrela, memorian atzera eginez, Bartzelonako Harlem Jazz Club-era bidaiatu dut, bakardadez jantzitako gau hartara.

Eta hortik zuzenean aterki ireki batek lanpara funtzioa betetzen zuen egongela hartan azaldu naiz, bertan geneukan katu beltza kokatu ezinik bestelako detailetxoak berreskuratu guran.

Orduan horrela zirenak denborak eraman ditu, eta geratzen direnek oroitzapen deformatuegiak izateko arriskua badute ere, hitz abandonatuetan iritsi zaizkit ezkutuko mezuak, urteek kodifikatutako mapetan.

"Nork ez dauka berea besterik ez den mundu babestua?"

Ruiz de Azua, Axpe, Carrascal eta Uribarren, Europako txapelketara

J.B. | ARRASATE

Arrasateko atletismoak sasoi onean jarraitzen du. Uztailean Estonian jokatuko den Europako Atletismo Txapelketarako txartela lortu dute Malen Ruiz de Azuak, Maialen Axpek, Eneko Carrascalek eta Iñigo Uribarrenek. Ekainaren 20an Bilbon jokatu zen mitinean ez zen pertika -jauzirik egon, jauzi hirukoitzekoek bakarrik hartu zuten parte.

Eneko Carrascalek ez zuen egun ona izan eta 14,43 metroko jauziarekin konformatu behar izan zuen. Oso ondo ibili zena Iñigo Uribarren izan zen: 15,84 metroko jauzia egin zuen atleta arrasatearrak. Marka pertsonala egin zuen, eta, esandako moduan, Estonian egingo den 23 urtez azpikoen Europako txapelketarako gutxieneko marka lortu du.

Tarragonara aste bukaeran

Promes mailan, Maialen Axpek eta Malen Ruiz de Azuak Tarragonan izango dute proba asteburuan: 4,10 metroko jauzia eginda joango dira. Iñigo Uribarren ere han izango da, jauzi hirukoitzean duen 15,84 metroko markarekin. Eneko Carrascal Ciudad Realen jokatuko den gazte mailako txapelketan egongo da, luzera-jauzian eta jauzi hirukoitzean lehiatzen.

AKE

Tenisa eta padela gorantz doaz

AKE elkartearen eskutik, sanjuanetako tenis eta padel txapelketak jokatu ziren Musakolan hilaren 20an eta 21ean. Tenisean, Eneko Ugalde eta Anabel Mondragon izan ziren irabazleak. Padelean, berriz, Patxi Vallejosek eta Jorge Aranesek osatutako bikotea nagusitu zen. Txapelketa horietako parte hartzeak gora egin du azken urteetan.

'Dinbi, danba, mailukaren hotsa' erakusketaren ordutegi berria Harresin

Bixente Barandiaran *Mentu* azken errementariaren lana jasotzen duen erakusketak honako ordutegi hau izango du aurrerantzean: eguenetan 17:00etatik 20:00etara, egubakoitzetan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:30etik 13:30era. Harresi aretoan dago erakusketa eta iraunkorra izateko asmoz jarri zuten. Sarrera doakoa da.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Sagardo Garaia amaitua... udako garaia:
- Karta zabala.
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.

Iturrieta sagardotegia
Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Pedro Rico | Bergara Kirol Elkarteko presidentea

"Hemendik aurrera, uste dut herria gehiago inplikatuko dugula"

Ricok irabazi zuen eguazteneko bozketa, 101 botorekin; Eloy Crespok 95 jaso zituen

JULEN IRIONDO | BERGARA

Beste lau urterako jaso du bazkideen babesa. Botoa emateko aukera zuten 626 bazkideetatik, 202k eman zuten –seik zuri.

Zorionak. Pozik egongo zara.

Bai, bai. Batez ere, aldamenean izan ditudan eta lan asko egin duten haiengatik: egindako kirol proiektua, botoak lortzeko egindako lana... Oso zuzendaritza ona edukiko dut, lanerako gogoarekin, gehienak berriak izango dira-eta. Beste hautagaitzakoekin ere aritu nahi dut; gehienekin, behintzat.

Parte-hartzearekin pozik?

Bai; nik txikiagoa espero nuen. Parte-hartzea %30 izan da, baina kontuan izan behar da lehenengo aldia izan dela hauteskundeak egin direna. Bazkideek erantzun egin dute, eta eskerrak eman nahi dizkiet.

Esan nahi du jendeari inporta diola klubak, kirolak...

Bai, eta hemendik aurrera uste dut herria gehiago inplikatuko dugula, ea lortzen dugun inplika daitezen, Arrasaten, Aretxabaletan... bezala. Han, herriko merkataritza osoa inplikatuta dago, baina ulertzen dut hemen dena ez dela futbola, kirol gehiago daudela eta denek izan behar dutela laguntza.

Kirol proiektua aurkeztu zenuten. Zeintzuk dira ardatzak?

Lehena da txikien heziketa, barnera dezatela Bergara Kirol Elkartean daudela, ez Realean, ez Athleticen, ez beste edozein talde handitan; borroka daitezela lehen taldera iristeko. Eta, baliagarri izan daitekeen beste inor baztertu gabe, harrobia landu nahi dugu. Balioak ere erakutsi behar zaizkie; izan ere, asko ari da galtzen gainerakoekiko errespetuan-eta.

Eta emakumeen futbolarekin, zer?

Emakumeen futbola bultzatu behar da, eta, Bergaran ez badago taldea ateratzeko nahikoa jende, Arrasaterekin edo Oñatirekin elkartu, agian, eta erdi bana atera taldea. Emakumeen kirola bultzatu behar da.

Instalazioak berritu beharra aipatu duzue.

Hitz egin behar dugu Udalarekin. Agorrosingoa konpondu behar dugu, ze belar naturala mantentzea gastu handia da Udalarentzat. Hitz egin dugu Udalak belar artifiziala jartzeko aukeraz, eta eurek kudea dezatela Agorrosin, baldintza batzuekin. Baina ez litzateke denboraldi honetarako izango.

Eta kirol elkarteko beste sailak –pilota, eskubaloia eta saskibaloia–, zer?

Nahi genuke orain arte baino harreman handiagoa izatea elkarren artean; baditugu hobetzeko gauzak, norabide guztietan, nire ustez.

Pedro Rico. | GOIENA

San Martin plazan egin zuten prentsaurrekoa. | TXOMIN MADINA

Ekintza ugari Arrano eta Artatse babesteko

Ixteko arriskuan dauden tabernari eta elkarteari elkartasuna adieraziko diete hurrengo asteburuan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Uztailaren 5ean, domeka, San Martzialgo erromeria ospatuko da. Egun hori eta asteburua, oro har, aprobetxatu nahi izan dute Arrano tabernatik eta Artatse elkartetik haien lokalak ez ixtearen aldarrikapena egiteko.

Joan den astean berretsi zuen Auzitegi Gorenak Hego Euskal Herriko 107 *herriko taberna* eta ezker abertzalearen lokalen itxiera agindua, terrorismoa finantzatzea egotzita. Haien artean daude Bergarako bi lokalak.

Erabaki hori salatzeko eta horren harira antolatu dituzten ekintzak iragartzeko, prentsaurreko masiboa egin zuten martitzenean, Bergara Libre plataformako eta hainbat taberna eta elkartetako ordezkariz zein herritarrez lagunduta.

Jendea biltzeko deialdia

Agerraldian salatu zuten Arrano eta Artatse ixtea "herri osoari egiten zaion lapurreta" dela. Horrenbestez, dei egin zuten polizia lokala ixtera joaten den egunean ahalik eta jende gehien biltzeko bertan: "Herri oso bat itxieraren aurka dagoela erakusteko". Hala ere, oraindik ez dakite hori noiz gertatuko den.

Amaieran, herritarrengandik jasotako babesa eskertu nahi izan zuten bozeramaileek. Joan den egueneko manifestazioak mila lagunetik gora bildu zituen.

EKINTZAK

Uztailak 2, eguena

19:00 Elkartasun pintxo-potea Bergarako tabernetan.

Uztailak 3, egubakoitza:

22:30 Bertso saioa Arrano tabernan.

Uztailak 4, zapatua:

20:00 Kontzertua eta *Arrano Libre* bideokliparen aurkezpena Arrano tabernaren kanpoaldean.

Uztailak 5, domeka:

12:00 Trainera herrikoiak eta argazki masiboa San Martzialen, eguerdiko bertso saioaren eta dantzen ondoren.

Beart-eko artista margolarien erakusketa ikusgai dago Baionan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Guztira, hogeita hamazazpi margolari bergararren lanak egongo dira ikusgai Lapurdiko hiriburuan dagoen Galerie des Corsaires aretoan bihartik uztailaren 10era bitartean.

Bergarako artistak Baionan izango du izena erakusketak, eta Beart-ek duela bi urtetik hona Galerie des Corsaires elkartearekin duen harreman estuaren fruitua da.

Talde biek elkarlanean eta Baionako Udalaren laguntzarekin antolatu dute mostra. Inaugurazioa arratsaldeko sei eta erdietan izango da.

Elkartrukea

Lehenago, apirilaren 30etik maiatzaren 17a bitartean, bost artista lapurtarren koadro eta eskulturak egon ziren ikusgai Bergarako Aroztegi aretoan.

2013an Baionan eginiko marrazki maratoi batean izan zuten lehen hartu-emana talde biek, eta geroztik berau sakontzen joan dira.

Erakusketa horiek elkarte biek ekintza kulturalak partekatzeko asmoari jarraituz egin dituzte. Haien helburua hiri batean zein bestean horrelako hainbat ekimen antolatzen jarraitzea da.



GOIENA

Eskerrak Gure Esku Dagoren ekitaldian izan zineten guztiei

Oso pozik gaude joan den domekan Gure Esku Dagok Donostian antolatutako ekimenari bergararrek eman zioten erantzunarekin. Anoeta zelaiko ekitaldirako bostehun sarrera baino gehiago saldu genituen. Horrenbestez, bertan parte hartu zenuten guztioi eskerrak eman nahi genizkizueke.

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | BERGARA

Uda sasoiari ongietorria suaren bueltan

Herriko hainbat gunetan elkartu zen jendea martitzenean San Juan bezpera ospatzeko

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Egunean zehar jendeak utzitako trasteei sua eman bezain laster hasi zen jaia San Martin plazan. Sorginak, dantzak eta magia ez ziren falta izan Xaxau konpartsak antolatutako solstizio jaian.

Beste toki askotan ere piztu zuten sua martitzenean. Aranzadi Ikastolakoek kurtso bukaerako *Jaialdi mundiala* egin zuten egunean zehar, eta gauean afaria eta sua egin zituzten, eta Angiozar auzoan ere urtean zehar izandako gaitzak erre eta udaren etorrera ospatzeko bildu ziren.

San Juan auzoko jaiak

San Juan auzoan eguaztena izan zen egun handia. Eguerdian meza izan zuten, eta ondoren mokadutxoa dastatzeko aukera eliza ondoan, trikiti doinuz girotuta. Auzoko nagusienek omenaldia izan zuten, eta V. ortu lehiaketako sariak banatu zituzten.

San Martin plazako solstizio jaia. | MAITE TXINTXURRETA

Aranzadi Ikastolakoen jaia Seminarioan. | JON BEREZIBAR

San Juan eguna ospatzen izen bereko auzoan. | AMAIA IGARTUA

Angiozar auzoko ospakizunak. | LIDE ALBENIZ

Angiozarko alkatea eta batzarkideak aukeratzeko hauteskundeak domekan

J.I. | BERGARA

Hamazazpi batzarkide eta alkatea aukeratuko dituzte domekan Angiozarren. Aukeraketa modu zuzenean egingo da, auzotar bakoitzak adieraziz bere proposamena. Batzarkideak auzoka aukeratuko dituzte: Asentzion bat; bi Azkunetan, Errekaldean, Goimendin, Mainddan, Parteittin eta Zabaletamendin; eta lau kalean. Jose Angel Mikeo izan da orain arte alkate.

Hautagai eta hautesle dira, berriz, Angiozarren erroldatuta dauden edota bertan bizi diren 18 urtetik gorako guztiak.

Bozkatzeko ordutegiak izango dira: kalean, 10:00etatik 14:00etara; Goimendin, 11:00etatik 11:45era; eta Zabaletan, 12:00etatik 12:45era.

Angiozarko Batzarrak dituen lantaldeak dira: Talde Eragilea; Azpiegiturak; Baso Pista eta Bideak; Kultura; eta Turismoa.

Letania martitzenean eta erromeria domekan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Ohi bezala, hurrengo domekan, uztailak 5, ospatuko da San Martzialgo erromeria. Eguna bera, baina, ekainaren 30a da, eta martitzenean ere egongo da ospakizunik: 07:00etan kanpaien jotzea Santa Marina parrokian; 07:30ean Santa Marinatik bertatik San Martzialera igoera, Letania errezatuz; ondoren, meza San Martzialen; eta, amaitzeko, txokolatea, San Joxepe erretiratuen elkarteak prestatuta.

Zapatuan, berriz, buruhandi eta erraldoien kalejira egongo da, 18:30etik aurrera, Udal Txistulari Bandak lagunduta.

Eta domekarako geratzen da egitarauaren zatirik potoloena, San Martzialen. Dultzaineroek, trikitilariek, txistulariek eta txarangak alaituko dute giroa goizean goizetik. 10:00etan San Martzialera igoera gurdiarekin eta 11:00etan meza izango da.

Amaia Agirre eta Jokin Uranga bertsotan arituko dira, 12:00etatik aurrera, eta ohiko aurreskua egingo dute ondoren; kantina ondoan, berriz, abesti herrikoiak.

Arratsaldean, jolasak, herri kirolak, irrintzi txapelketa, Laket taldearen erromeria, larrain-dantza... ohiko festa giroa izango da hurrengo domekan. 21:00etan jaitsiera hasi eta San Martin plazan bukatuko da.

Erromeriarako autobusa egongo da; zirkulaziorako itxita egongo da bidea 10:00etatik 11:00etara eta 21:00etatik 22:00etara.

NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Ongi etorri, oporrak!

Hainbeste desiratzen ditugun oporrak iristen ari dira. Lehenengo ikasle eta irakasleek eta laster gainontzekoek ere, bazter guztiak beteko ditugu alaitasun, poztasun eta ilusioz. Hain ezkutatuta zegoen eguzkia ere agertu da keinu eginez. Ikasturte osoan ikasi eta ikasi, lan eta lan, toki batetik bestera, aktibitatez betetako bizimodu estresagarrian murgilduta, ez dugu, ez, gure bizitza propioan eta gure ametsetan pentsatzeko astirik ere izaten. Baina iritsi da momentua, gugan pentsatzeko unea. Zer egin dut? Zer da egin nahi dudana? Zertan erabiliko dut hainbeste desiratutako denbora librea? Seguruenik, gehienok zerrenda luze bat egiteko gai gara: familiari denbora gehiago eskaini, kirola egin, bidaiatu, hondartzaz disfrutatu, kultur ekintzez gozatu... Eta gizarteak aisialdirako eskaintzen duen aukera, gainera, zabala da. Beraz, gure desioak betetzeko aitzakiarik ezin dugu jarri. Oporretako lehen egunak onenak izaten dira. Liberazio sentsazioa, mundiala izaten da. Hau egingo dut, bestea beteko dut... plan ugari. Baina hasierako euforia pasatzen denean, askotan beheraldia dator, eta eguna joan, eguna etorri, ohiko jarduerarik izan gabe, ez gara denbora librea kudeatzeko gai. Batzuetan, eta ez beti, eskerrak! Oporrak bukatzean, pentsatuta geneukan gauza asko egin gabe geratu diren sentsazioarekin gelditzen gara. Aurten, aldiz, baikorrak izan eta amestutako guztia beteko dugu. Ziur!

"Baina iritsi da momentua, gugan pentsatzeko unea"

Irakurzaletasuna bultzatzeko Jardunen astea

J.I. | BERGARA

Astelehenetik egubakoitzera izango da euskarazko irakurketa sustatzea helburu duen ekimena; eta, horren bidez, "euskararen erabilera gozagarria eta euskal literaturaren produkzioa" bultzatzea ere nahi du Jardunek.

Ekainaren 29tik uztailaren 5era Elkar Megadendan euskarazko liburuak erosten dituztenei, Jardunek itzuli egingo die ordaindutakoaren zati bat: %50 helduen literaturan; %30 gazteen literaturan; eta %15 haur literaturan –gehienez bi liburu pertsonako–. Itzulketa jasotzeko Jardunen egoitzara joan behar da erosketa txartelarekin; uztailaren 10ean bukatuko da epea.

Ipuin kontaketa eguenean

Haurrentzako ipuin kontaketa ere egongo da Agorrosinen, hilaren 2an, 17:00etan.

Zabalik dago izen-ematea udako txapelketetarako

J.I. | BERGARA

DBHko eta batxilergoko neska-mutikoentzako txapelketak dira; frontenis txapelketa da bata, eta lauko saskibaloi txapelketa bestea.

Frontenis txapelketa –binakakoa– uztailaren 6tik 10era jokatuko da, Udal Pilotalekuan. Izena emateko epea eguaztenean bukatuko da, hilaren 1ean; 7 euro ordaindu behar dira bikoteko, kontu korronte bidez.

Saskibaloi txapelketa, berriz, uztailaren 13tik 17ra jokatuko da, Agorrosinen. Lau edo bost lagunek osatu ahalko dute taldea, eta hilaren 7ra arte eman daiteke izena, 14 euroren truke, taldeko.

Liga sistemara jokatuko dira txapelketak, eta bikote edo talde bakoitzak hiru partidu jokatuko ditu, gutxienez. Izena Agorrosinen eman behar da, aipatutako epeetan.

Diablues & Bluecifer bihar, 13:30ean, Pol-Poleko balkoian

Pol-Pol tabernako balkoian joko du bihar –zapatua– Asier Elortzak eta Mikel Etxeberriak osatutako bikoteak. Mississippiko doinu zaharrei "ukitu pertsonala" ematen die taldeak.

Meza solemnea izango da astelehenean San Pedro parrokian, 19:00etan

San Pedro eguna dela-eta, parrokiako abesbatzak abestutako meza izango da astelehenekoa. 19:00etan hasiko da, eta bukatzerakoan Eslavaren *Tues Petrus* abestuko du abesbatzak.

OHARRAK

MATRIKULA IPINTZAN

Uztailaren 6ra arte dago zabalik Ipintza institutuan batxilergoko ikasle berrientzako matrikulazio epea. Idazkaritzako ordutegia: 09:00etatik 14:30era.

Balkoi irabazlea. | BERGARAKO UDALA

Badator uztaileko lehen eguazteneko azoka

Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketako sarien banaketa egingo dute Oxirondoko eraikinean

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Hilero gertatzen den moduan, berezia izango da uztaileko lehen eguaztena ere Oxirondoko azokan. Hilaren 1ean, ohiko postuetako saltzaileez gain, herriko beste zenbait baserritar eta ekoizle izango dira produktuak saltzen, baita artisauak ere. 18:00etatik 20:30era bitartean izango dituzte postuak jarrita.

Gainera, Etxagi tabernakoek pintxo-pote berezia prestatu dute giroa alaitzeko. Baina nagusiek soilik ez, haurrek ere izango dute zertaz gozatu eguaztenean; izan ere, haiei zuzendutako *Skratx* antzezlanaren emanaldia izango da azoka alboko plazan.

Balkoi lehiaketako sariketa

Aurten, bigarren urtez jarraian, balkoi eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu dute Bergarako Udaletik.

19:00etan hasiko da sari banaketa, azokan bertan. Elisabeth Gallastegi izan da irabazlea, eta 400 euroko balioa duten udal-bonuak jasoko ditu. Julia Gonzalezek, bigarren sailkatuak, berriz, 200 euroko balioa duten bonuak jasoko ditu, Bergarako denda eta komertzioetan trukatzeko.

Balkoiak eta leihoak apaintzeko ohitura berreskuratzeko eta herriak itxura politagoa izateko helburuarekin jarri zuen abian lehiaketa hori Udalak.

Euskaraz ikasteko diru laguntzak izango dira

M. T. | BERGARA

Bergarako Udalak euskara ikasteko edo ikasketa osagarriak hizkuntza horretan egiteko diru laguntzak emango ditu. Herritik kanpo dauden euskaltegietan ikasten dutenei, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen dutenei eta UNEDeko idazle eskolako ikasleei zuzenduta daude, eta jada zabalik dago eskaerak egiteko epea.

Diru laguntzak jaso ahal izateko baldintzen artean, Bergaran erroldatuta egon behar da, eta joan den urteko irailetik aurtengo abuztura bitartean euskarazko ikastaroren batean parte hartu izana, gutxieneko asistentzia beteta.

Eskaera orriak Udalaren webgunean daude eskuragarri. Hura betetakoan, Bergarako Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko da, dokumentazioarekin batera. Horretarako azken eguna irailaren 15a izango da.

Xehetasunak webgune berean kontsulta daitezke, edota Udaleko Euskara Zerbitzura deituta: 943 77 91 66.

'Uztailkada'-rekin hasiko dute uda Xabaloteko neska-mutilek

M. T. | BERGARA

Uztaila heltzear dagoen honetan, irteeraz jositako egitarau berezia prestatu dute Xabalote gaztelekutik.

Hasteko, uztailaren 3an, egubakoitza, parrillada egingo dute. Hurrengo asteko zapatuan, hilak 11, berriz, kayakean ibiltzera joango dira Arabako Sobron herrira.

Ekainaren 18an izango da hurrengo irteera. Gaztetxoak Arcachonera abiatuko dira, hango aquaparkera egun-pasa.

Azkenik, hileko azken asteburuan Deban surfa praktikatzeko aukera izango dute. Egubakoitzean joango dira eta bertan pasako dute gaua.

Izen-ematea eta prezioak

Ekintzetan izena emateko azken eguna domeka izango da, ekainak 28. Jardunen bulegoan edo gaztelekuan bertan egin daiteke, eta plazak mugatuak dira.

Ekintza bakoitzaren prezioari dagokionez, parrilladara joateko hiru euro ordaindu beharko dira, Sobronerako 16, Arcachonerako 20 eta Debarako 25. Guztietan parte hartu nahi dutenek prezio bereziko bonua erosteko aukera izango dute, 43 euroren truke.

XABALOTE GAZTELEKUA

ZABALOTEGIKO LOKALA ITXITA *Uztailkada* dela eta, datorren hilabetean zehar gaztelekuak ez du betiko ordutegia mantenduko. Horrenbestez, asteburuan Zabalotegi kaleko lokala ez da ohiko erabilerarako zabalik egongo, begiraleak irteeretara joango baitira.

Bergarako Orfeoiaren, Oñati abesbatzaren eta Ganbara taldearen saioa

Domekan, ekainak 28, Oñati abesbatza, Bergarako Orfeoia eta Ganbara taldea batera arituko dira San Pedro parrokian, 19:00etan. Faureren *Requiem* eta Rheinbergerren *Do maiorren meza* interpretatuko dituzte. Sarrerak Pikupe Produkzioak-en eta Lazkano kirol-dendan daude salgai.

Udal Musika Bandaren San Pedro eguneko kalejira eta kontzertua

Bergarako Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua egingo du eguerdiko hamabietatik aurrera. Mariaren Lagunditik abiatuta alde zaharrean eta erdigunean zehar arituko dira eta Espoloian bukatuko dute. Gero, kontzertua eskainiko dute kioskoan.

Bateria eta gitarra eta baxu elektriko eskolak Musika Eskolan

13 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da ikastaroa, eta izen-emate epea uztailaren 6ra arte egongo da zabalik. Idazkaritzan egin behar da, aste barruan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata bitartean. Ahotsa ere landuko dute ikastaroan.

Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak ikusteko azken egunak

Domekara arte egongo dira parte hartzaileen lanak Aroztegi aretoan. Gaur, 18:00etatik 20:30era arte egongo da ikusgai erakusketa. Bihar, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era. Domeka eguerdia izango da erakusketa ikusteko azken aukera.

Udaberri txapelketako finala jokatuko du Manex Balerdik

Bergarako pilota taldeko Manex Balerdi antzuolarrak Gipuzkoako Udaberri Txapelketako finala jokatuko du gaur, egubakoitza, Legazpin. Ibarguren–legazpiarra– izango du aurkari, lau t'erdiaren barruan. 19:00etan hasiko den jaialdian lau partidu jokatuko dira.

Mujika gozotegia
• Bonboiak eta trufak
• Pastelak
• Pastel txikiak
• Erreilenoak eta tostoiak
• Tartak
• Bertan egindako esne-gain eta marrubi izozkiak
Artekalea 3 - Tel.: 943 76 10 34

ETXAGI JATETXEA
• Patata-tortillak
• Oilaskoak
• Erredondoa
• Haragi-bolak
• 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu
Masterreka 8 • 943 76 53 12

AZPEITXI Jatetxea
•Oilaskoa
•Paella
•Patata-tortilla
•Erredondoa saltsan
Aranerreka 13 • 943 76 55 00

Gozotegia Larrañaga Bergara
•Pastelak
•Pastel txikiak
•Pastak
•Erreilenoak eta tostoiak
•Tartak
•Bonboiak
San Pedro 9 • 943 76 10 51

Ondo pasau San Martzialetan!
UZTAILAren 5ean, domekan, San Martzial eguna!

377 ume ibiliko dira aurtengo udaleku irekietan

Astelehenetik uztailaren 24ra arte izango dira eta gaztelekua izango da erreferentzia-gunea

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Datorren astelehenean, hilak 29, hasiko dira udaleku irekiak eta toki aldaketa da aurtengo berritasun nagusia, gaztelekuan izango baitira. "Gaztelekua izango da erreferentzia-puntua. Han utzi eta jasoko dituzte gurasoek umeak, baina ekintzak gaztelekutik kanpo ere egingo dira, noski. Kanpo espazioa erabiltzea lehentasunetako bat izango da, gainera", azaldu du udaleku irekietako koordinatzaile lanetan ibiliko den Leire Zumaldek.

Toki aldaketaren arrazoia da, Zumalderen esanetan, Eltzia egitasmoa handituz doala. "Gorpuzten ari da proiektu hori, gero eta erabiltzaile gehiago daude Eteo zenaren eraikinean, eta lehenago edo geroago handik atera behar genuela ikusten genuen, hango erabiltzaileen jarduna ez oztopatzeko", zehaztu du.

Adostu

HH-3 eta LH-4 bitarteko umeek koloretako biserak izango dituzte aurten ere; adin tarte bakoitzeko kolore bat. Gutxi gorabehera, hamar ume egongo dira taldeko, 47 hezitzaile eta hiru koordinatzaile. Urtero moduan, aurten ere egingo dituzte ezagutza eguna, entzierroa, zikin eguna, apar festa eta ur jolasak. Baita irteerak ere, herriko parajeetara zein herritik kanpokoetara. Nagusienek, esaterako, gau bat egingo dute Garaionen (Araba) eta beste batzuk Landara (Araba) joango dira egun-pasa. Egitaraua, baina, moldakorra da. "Eguraldi ona edo txarra egiten duen egunetarako planak ditugu eginda, baina umeei euren iritzia eskatu gura diegu. Joan den urtean ere egin genuen hori, eta aurten errepikatzea pentsatu dugu. Eurek ideiak botatzea, euren iritziak entzutea eta zer egin guztion artean adostea da asmoa", azaldu du Oihana Ugartek, udaleku irekietako beste koordinatzaileak. Egitarauaren edozein aldaketa edo koordinatzaileen ohar guztiak eurek aukeratutako bidetik jakinaraziko dizkiete gurasoei. Umeak jasotzera doazenean ahal dela oinez joateko aholkua egin dute koordinatzaileek, edo, bestela, inguruko aparkalekuak erabiltzeko.

Arte udalekuetan eta udaleku mitologikoetan ere ibiliko dira beste hainbat gaztetxo datozen asteetan.

Joan den urteko udalekuetako azken egunean, Foruen plazan. | TXALOKA

Kirol kanpaina ere datorren astelehenean hasiko da

Kirol Sailak antolatutako aurtengo udako kirol kanpaina ere astelehenean hasiko da, ekainak 29.

717 neska-mutikok eman dute izena hil honen azken astetik abuztura bitartean antolatu dituzten kirol ekintzetan parte hartzeko. Bakoitzak ze kirol, zein egunetan eta zein ordutegitan aukeratu duen gogorarazteko, kiroldegiko sarreran daude zerrendak ikusgai.

Lau txandatan banatu dituzte hogei kirol eskaintza baino gehiago eta txanda guztietan dago oraindik tokia. Interesa duenak Zubikoako bulegoan eman dezake izena.

Umeak tenisean iazko kirol kanpainan. | O.E.

Soka bat jarriko dugu lurrean, begiak itxita gainetik pasatzeko

Trauti eguna ospatuko dugu bihar Foruen plazan

KOMUNITATEA GOIENA | TRAUTI ELKARTEA | OÑATI

Bihar, zapatua, ospatuko dugu aurtengo Trauti eguna. Aurreko urteetan egin dugun moduan, Forun plazan izango dira prestatu ditugun ekitaldi guztiak, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

Aulki gurpildunak saltzen dituen lagun bat etorriko da Gasteiztik, eta gaztetxoendako jolasak egongo dira. Soka luze bat jarriko dugu lurrean eta haren gainetik pasa beharko dute, begiak estalita. 11 urte inguru dituzten gaztetxoek egin dizkiguten marrazkiak ikusgai jarriko ditugu eta txorizoa eta tortillak izango dira jateko.

Bazkideak

Bazkide egiteko aukera ere egongo da zapatuan. Bost euroko kuota izaten da urteko bazkidetza. Egun, 80 bazkide inguru gara Trautin eta kopurua handitzea gurako genuke. Bestalde, irteerak ditugu antolatuta hemendik udazkenera bitartera. Uztailaren 18an Hondarribira goaz; irailaren 6an Urbiara; eta urrian Arabako upategi batera.

Zuzendaritza talde berria

Atzo, eguena, egin genuen urteko batzar orokorra. Urteko kontuen errepasoa egiteaz gain, zuzendaritzako kideak berritu genituen. Hala, Mikel Etxezarreta izango da aurrerantzean Trauti elkarteko presidentea, eta Santi Umerez presidenteordea. Idazkari lanak Lukene Igartuak egingo ditu eta diru kontuez arduratuko dena Santi Mendiola da. Isabel Rebollo, Karmele Arrizabalaga eta Jose Inazio Baltzategi ere zuzendaritzako kide izango dira.

Eguenean irekiko dute garagardo azoka

O.E. | OÑATI

Bederatzigarren urtez egingo du garagardo azoka Aloña Mendi kirol elkarteak. Datorren eguenetik domekara izango da, uztailaren 2tik 5era, Foruen plazako jolastokian. "Hamar garagardo mota egongo dira; horietako bat, tekila zaporeduna. Jatekoari dagokionez, aurten ez dugu moxal-okelarik zerbitzatuko. Egubakoitzean saiheskia egongo da eta gainerako egunetan oilaskoa, saltxitxak eta ukondoa", adierazi du Anton Intzak, Aloña Mendiko presidenteak.

Martitzenean jarriko dute karpa eta eguaztenean egingo dituzte azpiegitura-lanak. Txandak antolatuta dituzte, eta futbol sailak zabalduko du azoka eguen iluntzean.

Jaietarako proposamenak jaso gura ditu Kultura Sailak

O.E. | OÑATI

Jaietarako ekintza berriak edo moldaketak proposatu nahi dituztenendako bideak jarri ditu Udaleko Kultura Sailak. Kultura etxean eta udaletxean kutxak jarri dituzte proposamenak jasotzeko; *partehartzea@onati.eus* helbidera ere bidal daitezke. Horrekin batera, antolatzeko eta ekintzak gauzatzen inplikatzeko deialdia ere egin du Udalak.

Bestalde, Herri Egunean egin ohi den artisau azokarako izen-ematea zabalik dago uztailaren 20ra arte. Kultura etxean eman behar da izena. Jaien egitarauaren azal lehiaketarako lanak, berriz, uztailaren 17ra bitartean jasoko dituzte kultura etxean.

Helduen liburutegia udako ordutegian zabalduko dute

Udako ordutegia izango du datorren astelehenetik aurrera helduen Udal Liburutegiak ere. Hala, ekainaren 29tik uztailaren 30era 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara zabalduko dute. Abuztuan, aldiz, 09:30etik 13:30era egongo da zabalik eta arratsaldeetan, itxita. Abuztuko zapatuetan ere itxita egongo da Udal Liburutegia.

Udako kontzertua du gaur gauean Ganbarak Bidaurretan

Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzek udako kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, 22:00etan, Bidaurreta aurrean, Kalean programaren barruan. Txikiek *Volare* abestia kantatuko dute, adibidez, eta nagusiek udan Italiara egingo duten bidaiarako prestatuta dituzten piezak abestuko dituzte. Entzuleendako eserlekuak jarriko dituzte.

Kontzertua gaur eta hitzaldia astelehenean Antixena gaztetxean

Udako egitarauaren barruan, *Donbasseko gerrak urtebete* hitzaldia egingo dute, astelehenean, Arrasatetik etorriko diren Mikel Arregi eta Ibai Treviño kazetariek; Ukrainan bizitako esperientziaz berba egingo dute biek Antixena gaztetxean. Gaur, egubakoitza, bestalde, Arenna eta Dr.Sax taldeen kontzertua egongo da, 22:00etan.

Kantoikrit probarako izen-ematea aste honetan zabaldu dute

Uztailaren 18an egingo dute aurtengo Kantoikrit proba eta izen-ematea zabalik dago uztailaren 17ra arte. Herri barruan eta kantoien artean egingo den proba horrek 24 kilometro izango ditu; 1,5 kilometroko ibilbideari 16 itzuli eman beharko dizkiote, piñoi finkoko bizikleta gainean. Izen-ematea 25 euro da: *www.sailkapenak.com*.

Haitiren aldeko elkartasun afaria egingo dute gaur

Oñatiko Misio Taldeak antolatuta, Haitin duten proiektuaren aldeko elkartasun afaria egingo dute gaur, egubakoitza, Bidaurretan. Haitiko Marbial herrian egiten ari diren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeari laguntzeko izango da batuko duten dirua. Elizbarrutietako Misio Taldeko Leire Atxega etorriko da.

NIRE USTEZ

XABIER ETXEBARRIA

Demokraziaren ajeak

Demokraziaren jai erraldoia pasa berri da eta gure jendartea aske egiten omen duen jaialdi honek utzi digun ajeak ez dirudi ezer berririk dakarkigunik. Azken hamarkadetan hasitako bideari jarraiki aberastasunak esku gutxi batzuetan pilatzen jarraituko du, jende gero eta gehiago miseriara kondenatzen den bitartean. Askatasuna ere hezituta dago, polizia, kamera eta kontrolak edonon. Gainera, hau bezalako zutabeak idazten ditugun sasijakintsuak mundua aldatzeko hauteskundeetara aurkeztu eta legeak aldatzea dagokigula iradokitzen. Demokrazian denok aukera berdinak ditugula eta aurrez ezarrita dauden bitartekoak erabiltzea dagokigula, besterik ez. Abiapuntu horiek albo batera uzten dituzte botere harreman desorekatuak eta egiturazko zapalkuntzak. Horregatik, behetik gora eragin nahi dugunok gure bide propioa eraiki beharrean gaude. Inori baimenik eskatu gabe. Larunbat gabeko babosoari ostikada ahoan ematen dion neska, etxe hutsak okupatzen dituen gaztea, errepide bazterreko gaztelerazko ikurrak ezabatzen dituen euskalduna, espetxean kartzelariaren aurka matxinatzen den presoa edota bere auzotik harrien bitartez polizia kanporatzen duten etorkinak beren bidea egiten ari dira. Ustezko demokrazia bortitz honek uzten dituen desorekak arinduz.

Asteburu honetan Zubillagan eta Torreauzon egingo dituzte jaiak

Sanpedroak ospatuko dituzte auzo bietan

O.E. | OÑATI

Zubillagan gaur, egubakoitza, iluntzean hasiko dituzte auzoko jaiak eta 22:00etan hasiko da umore gaua. Zapatuan egingo dute Zubillagatik Askazubirainoko erlojupeko bigarren igoera. 11:00etan abiatuko dira parte-hartzaileak. Arratsaldean, txokolate-jana, txorimaloak eta DJ Amaia Txintxurreta egongo dira, besteak beste, eta 22:00etan, urtero moduan, mozorro gaua eta lehiaketa izango dute.

Domekan, auzoko nagusiak izango dituzte gogoan. Eguerdian, eurendako luntxa prestatuko dute eta omenaldia jasoko dute. Arratsaldean zinta lasterketa egingo dute; bertso kontzertua 19:00etan hasiko da. Astelehenean meza izango dute auzoko ermitan, 19:30ean.

Krosa

Torreauzon, domekan egingo dute urtero egiten den herri krosa. 11:00etan izango da hasiera. Horrez gain, auzoko bazkaria egingo dute domekan. Jaiak hasi, baina, bihar, zapatua, hasiko dira. 11:00etan trikitilariak kalejiran ibiliko dira baserriz baserri eta 13:00etan txikiteoa egingo dute auzotarrek. 17:30ean Tor magoa egongo da eta 19:30ean, erromeria. Astelehenean, meza eta luntxa izango dute.

Jabi Azpiazu. | ARATZ LOSADA

Jabi Azpiazu | Aloña Mendiko futbol saileko presidentea

"Nik neuk ere ez dut nire bizitza imajinatzen futbolari lotu barik"

40 urte bete ditu Jabi Azpiazuk Aloña Mendiko zuzendaritzan; futbol saileko buru da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ekainaren 20an 40 urte bete dira Jabi Azpiazu Aloña Mendi kirol elkarteko zuzendaritzan sartu zela. 1987tik hona futbol saileko presidentea da.

Aloña Mendirekin lotuko dute oñatiar gehienek zure izena, eta ez zaie arrazoirik falta.

Eta poztasuna ematen dit horrek. Nik neuk ere ez dut bestela imajinatzen nire bizitza.

Nola sartu zinen elkartean?

Soldadutzatik bueltan, San Lorentzoko futbol zelaian jokatzen zuten orduan gazteek futbolean eta hara joaten hasi nintzen, beti gustatu zait-eta futbola. Hala, elkartean sartzeko gonbidapena jaso nuen. Presidente moduan sartu nintzen, 1975ean. Bi urteren ostean, Jose Luis Agirrek hartu zuen kargu hori eta 1987an berriz nik. Beste urteetan idazkaria izan nintzen. Bestalde, badira 27 urte Gipuzkoako Futbol Federazioko kide ere banaizela.

> **"Kontxan min hartu nuen eta futbolean ez jokatzeko esan zidan medikuak"**

Urte asko dira, bai, baina benetan gustura egin ditut eta egiteko asmoa dut, gainera, osasunak laguntzen badit.

Beti futbolaren inguruan futbolean jokatu gabe.

Donostian ikasketak egiten ari nintzela, hondartzan jokatzen genuen futbolean, Kontxan, eta lesionatu egin nintzen. Gehiago ez jokatzeko gomendioa eman zidan orduan medikuak, eta horrelaxe egin dut. Baina ez nuen futbola erabat utzi gura, eta epaile lanak eta bestelakoak egin ditut harrezkero. Herriko beteranoen txapelketan, dena dela, jokatu izan dut.

Aste barruan lan kontuengatik eta asteburuan futbolagatik, errepidean hara eta hona zabiltza maiz.

Bai, baina saltsa hori gustatzen zait. Komertziala naiz eta jende askorekin egoten naiz. Sarri, beste futbol talde batzuetako kideekin egiten dut topo lan kontuengatik, eta lana eta afizioa biak batzen dira halakoetan. Izugarri gustatzen zait jendearekin egotea, harremanak izatea; saltsa hori oso gustukoa dut. Gainera, lagun asko egin ditut bai batean eta bai bestean, eta nik garrantzi handia ematen diot horri.

Ze hiru ezaugarrirekin definituko zenuke Aloña Mendi?

Herrikoa dela, duen filosofia eta egiten den lana aipatuko nituzke. Herritar asko daude bere bizitzako zati bat Aloña Mendiri dedikatzen, zuzentzen, diotenak. Lan hori boluntarioa da, gustatzen zaielako, sentitzen dutelako, egiten dute, eta hori ikaragarria da. Lan asko egin da eta egiten da oraindik. Eskerrak lan horri.

Azkoagain eta futbol taldeen zaleak ondo baino hobeto ezagutuko dituzu. Nolakoak dira zaleak?

Zaleak jarraitzaile onak dira. Batzuetan bestetan baino gehiago joaten dira Azkoagainera, baina pasioz jarraitzen dituzte taldeak. Laguntzeko ere prest egoten dira, eta hori ere inportantea da. Aloña Mendiko futbol sailak, bestalde, harreman onak ditu denekin.

Eta bukatu aurretik...

Aupa, Aloña, trakatra!

Bernalek etxean jokatuko du denboraldi berrian

Izarraitz-Aloña Mendi eskubaloi taldeko jokalaria izango da Andoni Bernal oñatiarra 2015-2016an

O.E. | OÑATI

Andoni Bernal jokalari oñatiarrak etxeko taldean jokatuko du datorren denboraldian. Izarraitz-Aloña Mendi eskubaloi taldeko jokalaria izango da Bernal. "Ilusio eta gogo handia dut, horixe gura nuen-eta", adierazi du oñatiarrak.

Azken bederatzi urteak kanpoko taldeetan jokatu du Andoni Bernalek, lau Arrasateko taldean eta beste hiru Eibarkoan. "Urte horiek onak izan dira, asko ikasi dut eta ikasitako hori etxeko taldeko kideekin konpartitu gura dut. Saiatuko naiz dakidana egiten eta talde berrira moldatzen", esan du Bernalek.

Kanpoan jokatu arren etxeko taldea jarraitu duela aitortu du, eta pozik dagoela talde horretako kide izateko aukera izan duelako: "Oraindik ez gara guztiok elkartu, baina beste jokalariak ezagutzen ditut, bistaz bada ere. Abuztuan hasiko gara elkarrekin entrenatzen".

Barakaldori irabazita lortu zuen igoera Aloña Mendik, Zubikoan. | GOIENA

Entrenatzaile berria

Izarraitz-Aloña Mendik Bigarren Nazional Mailara igotzea lortu zuenean, Rafa Zuluetak berak aitortu zuen ez zuela jarraituko taldea entrenatzen. Aitor Aranburuk eta Joxe Gartziak ere jokalari moduan ez dutela jarraituko aurreratu zuen.

Entrenatzaile berriaren izena abuztuan lanean hasi aurretik jakinaraziko dute.

ETBk bi saio grabatuko ditu Oñatin

O.E. | OÑATI

No es país para sosos saioaren atal bat grabatuko du gaur, egubakoitza, ETBk. 09:30ean Zumeltzegiko dorrera etorriko da grabazio taldea eta Turismo Bulegoko langileen eskutik herriko txokoen gaineko azalpenak entzun eta grabatuko dituzte.

Bestalde, *Kantugiro* karaoke saioaren atal bat ere Oñatin grabatuko dute. Trianako jaietan, uztailaren 12an. Zuriñe Hidalgok eta Xabin Fernandezek aurkezten duten saio hori astelehenean estreinatuko dute ETB1n.

San Pedro jaietako txupinazoa alkateak botako du aurten

Herriko plaza aurreko errepidea oinezkoentzat bakarrik izango da jaietan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako San Pedro jaiak domekan hasiko dira ofizialki, ekainaren 28an, eta uztailaren 1era arte iraungo dute. Jaiei hasiera emango dien txupinazoa eta pregoia 13:00etan izango da herriko plazan eta ardura hori Eskoriatzako Udaleko korporazio berriak hartuko du.

Beste urte batzuetan herriko elkarteak izan dira batez ere horren arduradunak. Iaz, esaterako Eskoriatzako kirol elkarteak izan zuen txupina botatzeko aukera, izan ere elkartearen 50. urteurrena zen. Aurten, aldiz, pregoia eta txupinazoa Joserra Zubizarreta alkate berriak egingo du.

Iaz, Kirol elkartekoak arduratu ziren txupina botatzeaz. | JOSETXO ARANTZABAL

Bezperaren bezpera

Jaien bezpera aurretik ere hainbat ekintza egongo dira motorrak berotzen hasteko. Eskoriatzarren zein egun hauetan kanpotik etorriko direnen aurreikuspenak betetzeko asmoarekin.

Bihar, zapatua, bezperaren bezpera izango da, eta kontzejupe nagusien pilota txapelketarekin hasiko da eguna. 11:30ean aldiz, umeentzako parkea izango da plazan, eta Dorleta paper dendaren ondoan; goizez, 11:30etatik 14:00etara bitartean, eta arratsaldez, 16:30etatik 19:00etara bitartean. Umeentzako parkea ixtean, Vhs Street Band txaranga izango da herrian zehar, eta 22:00etatik aurrera ere kaleak girotzen jarraituko dute.

Gazteen eguna 29an

Aurten Gazte koadrilen arteko II. jokoak egingo dira 12-17 urte bitartekoentzat. Gernika plazan izango dira 19:00etan. Ondoren, Gazte afaria egingo dute gaztelekuan, 22:00etan. Egunari amaiera emateko berriz, disko festa izango da 23:00etan, udal liburutegi ondoko parkean.

Errepidea bihar itxiko dute

Udaletxe aurreko errepidea oinezkoentzat bakarrik izango da jai guztietan, uztailaren 2ko 07:00ak arte. Ikuskizun gehienak kalean izango dira, baina, eguraldi txarra eginez gero, horietako batzuk Joseba Iñurritegi pilotalekuan, Manuel Muñoz kiroldegian edo Zaldibar antzokian izango dira. Informazio gehiago gehigarrian.

Udalbatzak lehen ezohiko osoko bilkura egin du

Hondakin bilketa sistemari buruzko herri kontsulta egiteko konpromisoa hartu du EAJk

I.B | ESKORIATZA

Udaletxeko bilkura aretoa estreinatu du udalbatzak, lehenengo ezohiko osoko bilkura eginda. Atzo arratsaldean egin zuten bilkura, GOIENA papera errotatiban zela, baina aldez aurretik jakinarazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak batzordeak eratzeko proposamen zehatza azalduko zutela, adibidez.

Aurreko agintaldian sei batzorde zituen Udalak. Oraingoan, aldiz, dena berrantolatuta bost batzorde osatuko dituzte eta horien barruan hainbat arlo egongo dira. Hirigintza eta Mugikortasun batzordean: Hirigintza, Lan eta Zerbitzuak, Elizateak eta Ingurumena. Ekonomia Garapen Jasangarriko batzordean: Ekonomia Garapena, Komertzioa, Turismoa, eta Enplegua. Kultura, Kirola eta Euskara batzordean: Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria, Kirolak, Jaiak eta Komunikazioa. Zerbitzu Sozial eta Integrazio batzordean: Zerbitzu Sozialak, Emigrazioa, Prebentzio Zerbitzua, Berdintasuna eta Osasuna. Azkenik, Gobernu eta Finantzak batzordean: Gobernu eta Udal langileak, Ogasuna eta Diru-kontuen Batzorde Bereziak izango dira. EAJko zinegotzi bakoitzak batzorde baten ardura hartzea da asmoa.

Herri kontsulta proposamena

Alderdi jeltzaleak hondakin sistema bilketari buruzko herri kontsulta egiteko konpromisoa agertu zuen atzoko osoko bilkuran; Udalbatzarraren eta herritarren aurrean hartu zuen konpromiso hori. Herri kontsulta egiterakoan bozkatzera joan beharko da, eta bi aukera egongo dira: atez atekoa edo bosgarren edukiontzia. Herriak erabakitzen duena beteko dutela jakinarazi du alkateak.

Udalbatza jaietako mezan

Duela bi agintaldi egiten ez den ohitura berreskuratuz, San Pedro egunean, ekainaren 29an, meza nagusian izango da udalbatza berria. Hala jakinarazi du Joserra Zubizarreta alkateak: "Txistularien laguntzaz gerturatuko gara elizara. Udalbatzatik ez dakit zenbat lagun joango garen, baina batzuk han egongo gara".

Leiho eta balkoietako loreen lehiaketako finalistak aukeratuta

I.B | ESKORIATZA

Leiho eta balkoietako loreen lehiaketan finalista gelditu direnen hemezortzi argazkiak kultura etxean, eta *www.eskoriatza.eus* webgunean jarri dituzte ikusgai, herritarrek beraien iritzia eman dezaten. Herritarren bozketan pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du kultura etxean jarri diren hautestontzietan, edo webgunearen bitartez.

Irabazlea aukeratzeko hiru boto izango dira: bata kultura batzordeak emango du, bestea, Olazar Jubilatu elkarteak, eta azkena, herri bozketa bidez aukeratuko da.

100 axtrokiko saria

Irabazlea, San Pedro jaien bezperan jakinaraziko da, ekainaren 28an, txupinazoaren aurretik. Lehen saria jasotzen duenak 100 axtroki jasoko ditu, herriko komertzioetan erabiltzeko.

Bestalde, beste bi opari emango zaizkie lehiaketan parte hartu duten biri. Arrazoi ezberdinengatik jasoko dituzte bi oroigarri hauek, baina horretarako epaimahaiaren erabakia jakin arte itxaron beharko da.

Aste zapatistakoek murala egin dute



ARGAZKIAK: BIXENTE SAGASTI

Aste zapatistan hainbat ekintza egin dira egitarautik kanpo astea gehiago bizitzeko asmoz. Horietako bat, herriko sarreran Kepa Altube, Maddi Urizar, Elena Azkarragaurizar eta Danel Goikoleak egindako murala izan da. Hamabost ordutan egindako lanak, beste mundu bat posible dela adieraztea izan du helburu.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

CERT ISO 9001
GARANTIA DE ALQUILER

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Benta Motz Berri
Ondo pasa San Pedro jaietan!
Etxeko janaria - Kafean espezialistak
Gaztañaudi 21 - Eskoriatza
Tel.: 943 08 30 43
bentamotzberri.com • facebook.com/benta.motzberri

ESKORIATZA JAIETAN!

SANPEDROAK 2015

Danborradarako dena prest

Aurtengo karrozak Isabel Guridiri eta Tortolis ludotekari eskainita egongo dira

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako nagusien danborrada San Pedro bezperan, ekainaren 28an, izango da, 22:30ean. 200 pertsona inguru izango dira Eskoriatzako kaleetan zehar danborrari baketekin gogor jotzen. Aurten, guztira, sei batailoik hartuko dute parte: Egokiena, Elizoste, Gu Geu, Eguzkilore, Amuska eta Gazte Asanblada elkarteak izango dira, eta batailoi guztien atzetik, berriz, Dorleta elkartekoak sukaldari gisa ibiliko dira, karameluak banatzen.

Zortzi entsegu inguru izan dituzte astelehen eta eguaztenero Joseba Iñurrategi frontoian. Asko urtero irteten dira danborradan; beste asko lehen aldiz irtengo dira, baina, entrenatzeko, beharrezkoa izan dute danborrari guztiek entseguetara joatea, danborrada egunean dena bikain ateratzeko. Zazpi pieza joko dituzte ibilbidean, bi deskantsu eginda, eta ibilbidea, berriz, honako hau izango da: San Pedro auzoan hasi, Olazar auzora igo, handik Dorleta auzora, Tesa enpresa atzetik Aranburuzabala kalera, eta eliza paretik jaitsiko dira plazara. Behin plazara heltzen direnean, ibilbidean jotako pieza guztiak joko dituzte, udaletxera begira, herritarren aurrean.

Isabel Guridiren omenez

Aurtengo karroza Isabel Guridiri eskainita egongo da; Eskoriatzako museo etnografikoaren, Atxorrotz etnologia taldearen eta Amuska taldearen sortzaileetako bat izan zen, funtsezko pertsona herriko kulturan azken 35 urteetan, hainbat erakusketa, ikerketa eta historiari, etnografiari eta kulturari buruzko lanen egile. Oso estimatua zen herrian, eta hura eta haren lana aitortzeko karroza hainbat objekturekin apaindu dute Amuska emakumeen elkarteko kideek.

2013an izandako nagusien danborrada herriko plazan. | IMANOL SORIANO

Erakusketa Ibarraundin

Nagusien danborrada Isabel Guridiri eskainita dago, eta horren harira erakusketa ere egongo da hura oroitzeko. Erakusketak ekainaren 28an irekiko ditu ateak, 18:30ean, Ibarraundi museoan. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra bitartean egongo da erakusketa ikusgai, eta baita uztailaren 6tik 9ra bitartean. Erakusketaren ordutegia honako hau izango da: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketaz gainera, dokumental bat proiektatuko dute, Guridiren gertukoen testigantzekin osatutakoa. Dokumentalean agertuko dira Amuska emakumeen elkartekoak, seme-alabak, berarekin lan egin zuten hainbat eta hainbat, museoko langilea... Haren izaera nabarmenduko dute, egin zituen lanak gogoratu eta hainbat bitxikeria kontatu.

Bideo emanaldia hilaren 28tik aurrera egunero proiektatuko dute, 12:30ean eta 18:30ean, Ibarraundi museoan.

Tortolis ludoteka, txikienean

Haurren danborrada hilaren 30ean izango da, eta 130 haur inguruk hartuko dute parte guztira. Bataioiak urteka banatuko dira, nahiz-eta 17 urtekoak, zaharrenak direnak pixka bat nahastuta joan gaztetxoagoekin.

Danborreroez gain, barrileroak, sukaldariak, kantinerak eta banderadunak ere joango dira batailoien gidari gisa.

Haurren danborrada, ludotekari eskainita

Ekainaren 30ean izango da haurren danborrada. 18:00etan hasiko da eta ibilbidea hau izango da: San Pedro auzotik herriko plazara, aldapa igota, Namaste belar-dendara, handik Dorleta auzora eta elizan behera berriz plazara joango dira.

Ludoteka sortu zenetik hamabost urte bete dira, eta ludotekaren eguneroko lanarekin leku hori dibertitzeko, jolasteko eta jolastuz ikasteko hain egokia izatea egiten dutenei eskainita egongo da aurten umeen danborrada. Hori horrela, jokoekin erlazionatutako karroza izango da aurtengoa. 130 ume inguruk hartuko dute parte, eta, berezitasun moduan, ezbeharrik ez gertatzeko ez da umerik izango aurten karroza gainean. Izan ere, jokoz beteta izanik, ez da lekurik izango gainean.

Birziklatutakoa izango da. Izan ere, beste herri batetik ekarrita eta aldaketak eginda osatu dute. Mario Bros erraldoi bat joango da sukaldari jantzita danborra jotzen, Rubik kuboa eta Tortolis ludotekaren bi metroko anagrama. Bestalde, Nekane Atxaga eta Maialen Lete Tortoliseko begiraleek mural bat egin dute ludotekako haurrekin, hainbat kolorez margotutako esku markekin.

Haurren karroza. | ALBERTO ROYO

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Ondo pasa San Pedrotan!
Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

AGURRA

JOSERRA ZUBIZARRETA
Eskoriatzako alkatea

Gora, Eskoriatzako sanpedroak!

Bertan ditugu gure herriko jaiak, sanpedroak, eskoriatzarrok ondo baino hobeto ospatzen dakigun jaiak. Urteko nekeak eta ajeak alde batera utzi eta festen egunak aprobetxatu daigun. Udarari hasiera on bat eman ahal izateko geldiunea besterik ez da.

Alde pertsonalean, hau urte berezia da niretzat. Alkate gisa biziko ditudan Eskoriatzako lehenengo jaiak izango dira, eta ez dut ukatuko horrek ilusio handia egiten didala. Izan ere, harrotzeko modukoa da uneoro Eskoriatzako ordezkari gisa aritzea, eta horren barruan jaiak ere sartzen dira. Animatu nahi zaituztet ondo pasatzera, dibertitzera eta dauden ikuskizunez gozatzera. Egitarau aberats eta zabala antolatu da, eta ziur nago gustatuko zaizuela. Eskoriatzak merezi du, eskoriatzarrok merezi dugu, kaleak guztiona izan behar duelako. Nire desira bakarra da, eskoriatzarren eta etorriko diren guztien artean, San Pedro jai hauek ospakizunerako arrazoi bihurtzea, beste barik.

Gora, Eskoriatzako sanpedroak!!!

DOMEKA
SAN PEDRO BEZPERA
28

11:30 UMEENTZAKO JOLASAK herriko plazan.

13:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta PREGOIA herriko plazan.

▶ Aurtengo pregoia udalbatza berriak egingo du.

▶ Gero, buruhandien eta erraldoien kalejira, Musika Eskolako bandaren eta txistularien laguntzarekin.

18:00 Gari, Montxo eta Joselontxo PAILAZOAK Gorosarri plazan.

▶ Euria egiten badu, Zaldibar antzokian izango da.

18:30 *Isabel Guridi Biain* ERAKUSKETAREN inaugurazioa Ibarraundi museoan.

19:00 DANTZALDIA Obanauke taldearekin plazan.

19:30 Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren SALBEA abestuko du San Pedro elizan.

22:30 Nagusien DANBORRADA.

24:00 DANTZALDIA Obanauke taldearekin plazan.

ASTELEHENA
SAN PEDRO EGUNA
29

11:45 ELIZBIRA.

12:00 MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, parrokiako abesbatzarekin.

12:30 Beti lagun TXOTXONGILOAK Zaldibar antzokian.

SAN PEDROTAKO EGITARAUA

GOIENA

BURUHANDIEN TXIRRINDULARITZA LASTERKETA | EGUBAKOITZA | HERRIKO PLAZA ONDOAN | 19:00 **(16 urtetik gorakoentzat).**

13:00 Alkate soinua eta OHOREZKO BIRA txistulariekin plaza inguruko kaleetan.

13:15 Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA herriko plazan.

18:00 The Funes Troup KALE ANTZERKIA plazan.

18:30 ESKU PILOTA partiduak Joseba Iñurrategi pilotalekuan.

19:00 Gazte kuadrillen arteko JOKOAK Gernika plazan.

19:15 SARDIÑA FRESKUA Eidabe taldearekin plazan.

21:30 Gazte kuadrillen AFARIA gaztelekuan.

22:00 *Amalurra osatuz* IKUSKIZUNA Gorosarri plazan.

23:00 IÑAKI LABAKA abeslariaren kontzertua plazan; betiko euskal abestiak.

23:00 DISKO-FESTA liburutegi kanpoaldean.

MARTITZENA
BIGARREN EGUNA
30

12:00 Kartoizko zezenekin ENTZIERRO txikia.

▶ Apotzagako bidetik Intxaurtxuetako plazara.

▶ Bertan, errekortadore eskola ibiltaria.

13:00 Alma Tapatipa MARIATXIAK plazan.

16:00 MUS TXAPELKETA Gernika plazan.

18:00 Haurren DANBORRADA.

19:15 GRANUJAS kale animazioa.

23:00 PRIMITAL BROSS taldearen kontzertua Gorosarri plazan.

EGUBAKOITZA
EUSKAL JAIA
01

12:00 Musika Eskolako DANTZA taldea plazan.

12:30 TALOGILEAK ETA SAGARDO kupelak herriko plazan.

13:00 TRIKITILARI Eskolako ikasleekin KALEJIRA.

14:30 HERRI BAZKARIA Santa Marina plazan.

▶ Ondoren, erromeria Jainaga eta Narbaizarekin, II. Irrintzi txapelketa eta kantu txapelketa.

19:00 Buruhandien txirrindulari LASTERKETA plaza ondoan.

▶ 16 urtetik gorakoentzat.

20:30 TXIMELETA taldearekin dantzaldia herriko plazan.

24:30 BANDERA JAITSIERA eta SU ARTIFIZIALAK jaiei bukaera emateko.

▶ Su artifizialak ikusteko leku aproposa: Santa Marina plaza.

San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista
Ondo ibili sanpedrotan!

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

Ondo pasau San Pedro jaixetan!

ESKORIATZAKO CAMPUSA
Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

ARETXABALETAKO CAMPUSA
Bedarreta auzoa. Otalora, 31
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Tel: 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu/huhezi

Eskoriatzako kuadrillak *banderia* lortzeko lanean joan den urteko San Pedro jaietan. | GOIENA

Kuadrillen arteko V. Banderia txosnen egitaraua hasteko

DJ Makala, Akerbeltzen, Criminal Remains eta Anti Humano izango dira

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Kuadrillen arteko V. Banderiarekin emango diote hasiera sanpedroei txosnetan. Zapatuan irekiko dituzte txosnak, 12:00etan, eta jaiak amaitu arte hainbat ekintza antolatu dituzte.

Txosnen irekieraren ostean, triki-poteoa egingo dute, *Kokotxetik Konpostelara,* eta, ostean, kuadrillen arteko bazkaria egingo dute, jokoetarako indarrak hartzeko asmoz. 120 pertsonatik gorak gozatuko dute paellarekin eta V. Banderia irabazteko estrategiak egiteko aprobetxatu beharko dute bazkalosteko solasaldia. 18:30ean hasiko dira jokoak eta sei proba egingo dituzte, zaku karreratik hasi eta errekan amaitu arte. Gauerako, ostera, Show Gaba antolatu dute; bertan, eguneko bigarren bandera jokatuko da, jokoetan parte hartzen duen talde bakoitzak kantu bat interpretatu beharko du-eta.

Musika eta jokoak

Domekan ere jokoak izango dira protagonista, baina, kuadrillen artekoak izan beharrean, bikoteen artekoak, 00:00etan. Ostean, Makala disko-jartzaileak girotuko du gaua. Astelehenean, Akerbeltz erromeria taldea izango da txosnagunea girotzeko arduraduna, 00:00etan hasita. Arratsaldean, baina, 19:00etan *photocall*-a jarriko dute.

Martitzenean punk-rock eta hardcore doinuek hartuko dute testigua. Criminal Remains eta Anti Humano izango dira Eskoriatzan, 00:00etan hasita. Eguaztenerako, Eskoitzara eguna, Maixol eta Mikelentzat argazki erraldoia egiteko deialdia zabaldu dute, 18:30ean txosnagunean, eta ostean elkarretaratzea egingo dute.

Herri bazkaria baino gehiago egingo dute Euskal Jaian Santa Marina plazan

Erromeria, II. Irrintzi Lehiaketa eta Kantu Lehiaketa izango dituzte bazkalostean

J.D. | ESKORIATZA

Egubakoitzean egingo dute urteroko herri bazkaria, 14:30ean. Uztailaren lehenean, Euskal Jaian, Santa Marina plazan eskoriatzarrek bat egingo dute San Pedro jaiei agur esateko, lagun artean janari eta edariaz gozatzeko.

Hala ere, janaz eta edanaz gain, beste hainbat ekintza eta ikuskizunez gozatzeko aukera izango dute plazan bertan.

Sagardotegiko menua

Entsalada, txorizoa sagardotan, bakailao-tortilla, saiheskia, gazta, menbrilloa eta intxaurrak; sagardotegiko menua dastatuko dute, hain justu, egun horretan Santa Marina plazara bazkaltzera doazen eskoriatzarrek. Umeentzako menua, ostera, bestelakoa da: makarroiak, okela-bolak saltsan eta jogurta izango dituzte etxeko txikienek herri bazkarian.

Erromeria eta irrintziak

Gustura jan ostean, izango dute zer egin Santa Marina plazan egongo diren eskoriatzarrek.

Hasteko, Jainaga eta Narbaiza bikotearen erromeriak girotuko du solasaldia, eta, ostean, aurreko urtean ekin zioten ekimen bati jarraipena emango diote: Irrintzi Lehiaketa egingo dute. Horrez gainera, amaitzeko, Kantu Txapelketa egingo dute.

Musikak jarraituko du

Behin solasaldia eta arratsaldea amaituta, jai giroan jarraitzeko asmoa dutenek ere izango dute zer egin: Tximeleta taldeak dantzaldia egingo du plazan, 20:30ean hasita.

Iazko herri bazkaria pilotalekuan. | GOIENA

Herritarrengandik herritarrendako sortutako artea

'Amalurra osatuz' ikuskizuna izango da ikusgai Gorosarri plazan San Pedro egunean, gauez

Maiatzean egin zuten *Udaberria osatuz* ikuskizuna. | GOIENA

MAITE TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Azken urteetan bezala, eskoriatzarrek eurek sortutako emanaldi berezia antolatu dute herriko jaietarako aurten ere. Gorosarri plazan egingo dute, astelehenean, ekainak 29, gaueko hamarretan hasita. Euria eginez gero, aldiz, kiroldegira aldatuko dute hitzordua. Aurreko edizioek oso harrera ona izan zuten.

Iaz *Herrixa elkartuz* izena jarri zioten ekimenari, eta duela bi urte, *Herrixa munduan eta mundua herrixan*. Bi aldiotan Marijo Pagaldai aritu zen koordinatzaile lanetan, baina "guztion artean sortutako zerbait" izan zela argitu du. Aurtengo *Amalurra osatuz* ere halakoa izango da, herritarra eta parte-hartzailea.

Hiru emanaldiek lotura daukate elkarren artean, baina bakoitza gai desberdin bati buruz izan da, eta hainbat pertsonak hartu izan dute parte. "Parte hartzeko aukera ahalik eta jende gehienari zabaltzea da helburua", koordinatzaileak azaldu duenez.

Aurtengo gai nagusia ama lurra izango da, eta gizakiek harekin daukaten harremana jorratuko dute. Musikaren, dantzaren eta hitzen bitartez naturako elementuak irudikatuko dituzte: lurra, ura, sua eta haizea. Hainbat arte diziplinaren bitartez istorio bat kontatuko diote publikoari. Horretarako, 45 pertsona igoko dira agertokira, zortzi taldetan banatuta, eta tartean Pagaldai bera ere izango da.

Herri mailako sormena

Ikuskizuna osatzen duten pertsonak ez dira artista profesionalak. "Bakoitzak ahal duena egiten du, intentzio onenarekin", adierazi du koordinatzaileak.

Aitaita-amamak, umeak, etorkinak... askotariko profilak ikusi ahal izango dira astelehenean Gorosarri plazako taula gainean. Marijo Pagaldai izan da bertan parte hartuko duten pertsona guztiak harremanetan jartzeko bitartekaria. Ondoren, haiek beharren eta gogoen arabera moldatu dituzte lantaldeak.

Lan handia aurrez

Amalurra osatuz herri emanaldia posible egiteko, parte-hartzaile guztiek lan handia egin behar izan dute aurretik. Izan ere, ikuskizunean zehar izango diren dantza, musika pieza eta testuak herritarrek euren kabuz sortutakoak dira.

Gainera, egun handia ondo prestatzeko entseguak ere egin dituzte. Lehenengo, agertokira aterako den talde bakoitzeko kideak elkartu eta haien kabuz prestatu dute bakoitzaren zatia. Ondoren, entsegu orokorrak egin dituzte guztien artean bizpahiru aldiz, ikuskizuna osotasunean lantzeko asmoz, guztia ahalik eta ondoen atera dadin.

Askotariko jendea elkarlanean

Marijo Pagaldaik nabarmendu du ekimena oso aberasgarria dela, "herritar oso desberdinak" elkar ezagutu eta batera lanean aritzen direlako.

"Sorpresa handiak sortzen dira", adierazi du Pagaldaik. Hark dioenez, aurrez elkar ezagutzen ez zuen jendeak "hasieran uste baino lotura handiagoa" izaten du sarritan, eta zenbaitengan imajinatuko ez zituzten "alderdi eta gaitasunak" ezagutzen dituzte elkarlanari esker.

Ikuskizuna ez da bertan amaituko

Taula gainera igoko ez diren eskoriatzarrek ere izango dute *Amalurra osatuz* ikuskizunari euren aletxoa gehitzeko aukera.

Gorosarri plazara gerturatzen diren ikusle guztiei eskuorri bat banatuko diete. Bertan, besteak beste, Udalaren webguneko esteka bat aurkituko dute. Marijo Pagaldaik zera proposatzen du: bertan norberak sortutako ipuin, poesia edo bestelako ekarpenak eskegitzea, herritar guztiekin konpartitzeko.

Koordinatzaileak azaldu du ez dela artista edo profesionala izan behar egitasmo horretan parte hartzeko, eta horretarako gogoa duen edonori egin nahi izan dio gonbidapena.

San Pedro eguneko ikuskizuneko irudi eta testuak Internetera igoko dituzte.

ELGETA JAIETAN!

FERIXA NAGUSIXA 2015

Bi udalbatzak soka-dantzan

Udalbatzen arteko testigu aldaketa irudikatuko da soka-dantzaren bidez zapatuan

JOSU BILBAO | ELGETA

Soka-dantza iazko Ferixa Nagusiko ekitaldi garrantzitsuenetakoa izan zen, eta aurten are bereziagoa izango da. Izan ere, Oxel Erostarbe alkate ohiak eta Iraitz Lazkano alkate berriak batera parte hartuko dute Plazabarrenian 13:00etan izango den ekitaldian. Hau da, zortzi zinegotzi berriek eta pasa den agintaldiko bederatzi zinegotziek elkarrekin dantzatuko dute.

Oxel Erostarbe alkate ohiak ezarri zuen zinegotziek eta alkateak soka-dantza egitearen tradizioa, eta aurten, testigua Iraitz Lazkanori emango dio. Dantza horrekin, herria omendu eta herritarrak sokara gerturatu nahi izaten dituzte Udaleko kideek. Alkateak aurreskua egingo du lehenik, eta ondoren, haren atzetik zinegotziak, eskutik helduta, nagusienetik gazteenera kokatuta aterako dira Plazabarrenera.

Entseguak ekainaren 10an hasi zituzten, Irati Kortabitarte eta Xabat Leanizbarrutia dantza irakasleen laguntzarekin. "Aurten beranduago hasi ditugu soka-dantzako entseguak. Iaz otsailean hasi genituen, eta prestatzeko denbora luzeagoa izan genuen. Hala ere, egia esateko, nik oso gustura eta oso ondo ikusi ditut", azaldu du Irati Kortabitartek.

"Iazkoarekin alderatuta soka-dantza laburragoa egingo dugu. Helburua udalbatzaren testigu aldaketa irudikatzea izango da. Aurresku moduan, Oxel Erostarbe joango da, eta bigarren lekuan Iraitz Lazkano alkate berria. Gainerakoak adinaren arabera kokatuta joango dira, eta atzesku lanak gazteenak egingo ditu. Ondoren, aurreskuak eta atzeskuak desafio antzeko bat egingo dute", adierazi du Kortabitartek.

2014ko jaietan zinegotziak soka-dantzan. | IMANOL SORIANO

Umeak plazan dantzatzen, 2014ko jaietan. | I. S.

Herriko umeek euskal dantzak egingo dituzte Herri Egunean

Umeak ere dantzan

Orain dela bi urte, euskal dantzak berreskuratu zituzten Herri Egunean. Herritarren artean oso harrera ona izan dute dantzek, eta, talderik ez egon arren, jaiei begira herriko haurrak elkartu egiten dira Ferixa Nagusixan egingo dituzten euskal dantzak prestatzeko. Aurten ere, Irati Kortabitarte eta Xabat Leanizbarrutia irakasleen laguntzarekin, bi taldek dantzatuko dute soka-dantzaren ostean. 5 eta 9 urte bitarteko 30 neska-mutil eta 10 eta 15 bitarteko 14 neska. "Jaietan umeek dantza egin ahal izateko entseguak antolatu ditugu, Aste Santuko oporren ostean. Elgetan ez dago dantza talderik, eta horrela, txikienek dantza egiteko aukera dute. Umeak oso pozik etortzen dira entseguetara", azpimarratu du Irati Kortabitarte irakasleak.

Txikienek Olagueko esku-dantza, Txulalai, Marmutx eta Saliña-Saliña dantzak egingo dituzte. Nagusienek, berriz, Lehenengo Kontradantza, Bigarren Kontradantza, Xarmantak eta Antxoriz dantzak.

Jaioberriei ongietorria

Urtero legez, iazko jaietatik aurtengo jaietara jaio diren elgetarrei ongietorriko zapia jarriko diete, zinegotziek eta umeek dantzari ekin aurretik. Ondoren, Plazabarrenian egingo duten aurreneko dantza, aurreskua, euren omenez egingo dute.

Harrera udaletxean izango da, 12:30ean, eta Iraitz Lazkano alkateak eta zinegotzi berriek jarriko dizkiete zapiak haurrei. Jaioberriei ongietorria bosgarren urtez jarraian egingo dute Elgetan.

Iazko jaietan ongietorria jasotako haur taldea gurasoekin. | IMANOL SORIANO

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.

Ondo pasatu!

AGURRA

IRAITZ LAZKANO
Elgetako alkatea

Gora Ferixa Nagusiko jaiak!

Badatoz, aurten be, Ferixa Nagusiko jaixak! Jai Batzordian, zinegotzi eta herritarrok gogor lan egin dogu danontzako moduko egitarau zabal bat osatzen.

Lau egunez, Elgeta kolorez eta alaitasunez betetako herrixa izatia espero dogu, baina, horretarako, ez da nahikua jai batzordetik egin dogun lana. Jaixei bizitasuna emotia danon eskuetan dago: ekitaldietan parte hartu, kaleak girotu, pañuelo eta mozorroak jantzi!

Danontzako jai euskaldun eta parekideak behar ditugu, jaietan ere euskaraz eta berdintasunez jardun dagigun!

Eskerrik beroenak jaixen antolakuntzan jardungo dozuen danoi, baita jai honek posible egiteko laguntza ekonomikua emon dozuenoi be.

Gora, Ferixa!

Gora, Ferixa Nagusiko jaixak!

EGUENA
MOZORRO EGUNA
02

12:00 ONGIETORRIA buruhandiei.

19:30 Kanpai hotsa, etxafuegoak eta MOZORRO JAITSIERA. Plazan, BRINDISA eta ALKATE TXIKIAREN izendapena.

20:00 GOZO GOZO taldea, plazan.

22:30 AFARIA, gaztetxean.

23:00 GOZO GOZO taldea, plazan.

00:00 LARRAIN DANTZA, plazan. Ondoren, GOZO GOZO taldea.

00:30 EROKOMERI taldearen erromeria gaztetxean.

BARIKUA
UMEEN / ERRETIRATUEN EGUNA
03

11:00 PUZGARRIAK umeendako, Salbador kalean.

11:15 SALDA Intxorta elkartean.

13:00 MEZA NAGUSIA iazko jaietatik hildako erretiratuen alde.

13:45 ARGAZKIA erretiratuei.

14:00 ERRETIRATUEN BAZKARIA, Espaloian. Ondoren, erromeria JOSE GARDOKIrekin.

14:00 BAZKARIA umeendako, Iñaki jatetxean.

15:30 PUZGARRIAK umeendako.

18:30 USTEKABE txaranga eta BURUHANDIAK.

19:00 ZEZENAK, plazan.

22:00 DJ festa: OIHAN VEGA.

FERIXA NAGUSIKO EGITARAUA

GOIENA

MOZORRO JAITSIERA | EGUENA | SALBADOR KALETIK | 19:30
Mozorrotuta hasiko dituzte jaiak Elgetan. Jaitsierarekin batera brindisa, etxafuegoak eta alkate txikiaren izendapena ere egingo dituzte.

GOIENA

PAELLA ERRALDOIA | ZAPATUA | HERRIKO PLAZAN | 14:30 **Herri Egunean bazkaria egingo dute elgetarrek, herriko plazan. Ondoren, Jainaga eta Narbaiza trikitilariek erromeria egingo dute.**

23:00 ZEZENSUZKOA.

23:15 GOZATEGI, plazan. Ondoren, OIHAN VEGA.

ZAPATUA
HERRI EGUNA
04

11:15 ESNA DEIA.

11:30 Kuadrillen HAMAIKETAKOA Ozkarbi elkarte aurrean.

12:00 ASTO LASTERKETA.

12:30 Udaletxean, HARRERA JAIOBERRIEI.

13:00 SOKA DANTZA, plazan.

14:30 PAELLA ERRALDOIA, plazan.

16:00 JAINAGA eta NARBAIZA trikitilariekin erromeria, plazan.

19:00 ZEZENAK, plazan.

20:00 BURUHANDIAK, plazan.

20:00 Erromeria EGAN taldearekin.

20:30 SARDINA ERREAK Intxortako Lehoiek lagunartearen eskutik.

23:00 Erromeria EGAN taldearekin.

00:00 ZEZENSUZKOA.

DOMEKA
FERIXA NAGUSIA
05

09:00 FERIXA NAGUSIA.

18:00 BURUHANDIAK.

19:00 *Mucho más que circo* KALE IKUSKIZUNA, plazan.

20:15 Gaztetxearen eskutik TXITXI-BURRUNTZIA.

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!

MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta

JAI ZORIONTSUAK ELGETAR GUZTIOI!

Recyde-Alfa Deco

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
www.cieautomotive.com

Zezensuzkoa, iaz, San Roke kalean. | L.Z.

Titulua behar da orain zezensuzkoa ateratzeko

Jaurlaritzak eskatzen dituen segurtasun neurriak direla–eta formazioa jaso dute herriko hiru lagunek

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eusko Jaurlaritzako kontseiluak orain dela bi urte onartu zuen artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizun publikoetako segurtasun neurriak erregulatzen dituen dekretua. Horren arabera, zezensuzkoa ateratzeko ezinbestekoa da formazio egokia jaso izanaren tituluduna izatea.

Hala, iaz udal brigadako bi langilek jaso zuten Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak eskaintzen duen prestakuntza ikastaroa. Arkauten dagoen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egin zuten ikastaroa. Aurten, deialdi irekia egin du Udalak, eta herritar batek agertu zuen interesa. Hark ere eginda dauka eskatutako segurtasun neurrien gaineko prestakuntza ikastaroa.

Ikastaro horretan, suaren arriskuen inguruko informazioa jasotzen dute parte-hartzaileek. Baita erabili beharreko arroparen eta hartu beharreko segurtasun neurrien ingurukoa ere.

Zezensuzkoa bi aldiz

Ferixa Nagusiko jaiotan bi aldiz izango dugu zezensuzkoa ikusteko aukera. Barikuan, uztailak 3, 23:00etan eta zapatuan, uztailak 4, gauerdian. Aurreko jaietatik udaletxeko biltegian izan da zezensuzkoa. Dagoen tokitik atera eta garbitu dute. Prest dago udaletxeko areto nagusian. Lerrook idazterakoan argitzeke zegoen nork aterako duen zezensuzkoa aurten. Laster hartu beharko da erabakia, eramailearen ezaugarrietara egokitu beharko baita estruktura.

Udal arduradun berriekin aurtengo mozorro jaitsiera

Uxue Gallastegi izango da alkate txikia; Iraitz Lazkanoren eskutik jasoko du aginte–makila

L.Z. | ELGETA

Mozorrotuta hasi ohi dituzte Ferixa Nagusiko jaiak Elgetan, eta aurten ere horrela izango da. 19:30eko kanpai hotsekin batera emango diote hasiera mozorro jaitsierari Salbador kaletik behera. "Ez dut orain arte mozorrotzeko zaletasun handirik izan, baina Aratusteotan eta aspaldiko partez zerbait prestatu nuen beste bi lagunekin batera eta pentsatuko dut zerbait jaietako mozorro jaitsierarako", adierazi du alkate berria den Iraitz Lazkanok.

Udal arduradunen atzean jaitsiko dira mozorroa prestatu duen herritarrak. Herriko zenbait kuadrillak ez dute hutsik egiten, eta lan handia hartzen dute urtero. Ikusteko dago aurtengorako zer bururatzen zaien. Izan dezatela, aurten, iazkoa baino eguraldia hobea!

Brindisa eta alkate txikia

Herriko plazara iritsitakoan brindisa egingo dute udal arduradunek eta herritarrek, eta eskuz aldatuko da aginte-makila. Alkate txikiak hartu ohi du makila jaietan, eta aurten Uxue Gallastegiri egokitu zaio zeregin hori. Iraitz Lazkanoren eskutik jasoko du aginte-makila, eta jaietako hasierako hitzalditxoa egingo du Gallastegik.

Ongietorria buruhandiei

Gauzak ondo bidean , 12:00etan, udaleku zerbitzuko neska-mutikoek ongietorria egingo diete buruhandiei. Herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta, auskalo nondik, herriko hiru buruhandiak agertuko dira: Zezena, Lehoia eta Txintxon. Iaz egin zuten ekintza hori lehenengo aldiz jaiak badatozela iragartzeko.

Jon Irizar izan zen iazko Ferixa Nagusiko jaietan alkate txikia. | L.Z.

Asto lasterketa iaz. | L.Z.

Asto lasterketa izan daiteke animaliekiko errespetuzkoa?

L.Z. | ELGETA

Herri Egunean, uztailaren 4an, asto lasterketa egingo dute; Elgetako XIV. saria, hain zuzen ere. Badira urte batzuk gaia aztergai dela jaien batzordean. "Aurreko urteetan kexak ere iritsi dira Udalera", eman du aditzera Iraitz Lazkano alkateak. "Guraso batzuek adierazi dute, esaterako, umeendako ikuskizun oso gogorra dela zenbaitetan", esan du Lazkanok. Elgetako EH Bilduk adierazita dauka naturarekin eta animaliekin arduratsua den kultura bultzatuko duela. Udal arduradun berriek ikusten dute asto lasterketak jendea batzen duela, baina gogoeta sustatu nahi dute animaliei emandako tratuaz. Uste dute gehiegikeria dela astoak bortizki jipoitzea edo akuilua ipurditik sartzea.

Gozategi taldea. | IMANOL SORIANO

Musikaz eta dantzaz betetako lau egun

Gozategi, Egan, erromeriak, Oihan Vega DJa... adin guztietarako kontzertuak izango dira jaietan

MAITE TXINTXURRETA | ELGETA

Euskal musikak presentzia handia izango du aurten ere Elgetako Ferixa Nagusiko jaietan.

Erromeriak nonahi izango dira lau egun hauetan. Lehena eguenean, Mozorro Egunean. 20:00etan hasita, Gozo-gozo taldeak joko du plazan. 22:30 aldean atsedenaldia egingo dute, gaztetxean afaria izango baita, eta afalostean taula gainera itzuliko dira festak jarrai dezan. 00:30ean, berriz, beste erromeria talde baten emanaldia hasiko da gaztetxean: Erokomeri azpeitiarrena.

Hurrengo egunean, erretiratuek Espaloia kafe antzokian bazkaria egingo dute. Eta, horren ostean, Jose Gardoki soinu-jotzailea agertokira igoko da bazkalostea euskal kanta ezagunekin animatzera.

Tradizionala eta modernoa

Gauean, aldiz, 22:00etan, Oihan Vega DJaren musikak jarriko ditu dantzan plazan biltzen direnak. 23:00etan zezensuzkoa egongo da, eta, segidan, Gozategiren trikiti doinuek alaituko dute gaua. Jada klasiko bilakatu diren *Nirekin* eta *Kalanbreak* abestiak ez dira falta izango Elgetan. Ondoren, DJ festak segituko du.

Uztailaren 4an, zapatua, Jainagak eta Narbaitzak musika jarriko diete herri eguneko bazkariaren osteko orduei.

Iluntzeko zortzietan hasi eta gaueko ordu txikiak arte, berriz, Egan talde beteranoaren erromeria izango da plazan. 1970. urtea ezkero dabiltza handik hona Euskal Herri osoan, baina oraindik ere hasierako sasoi bikainari eusten diote.

Puzgarri eta jolasak etxeko txikienentzako jaietan

M.T. | ELGETA

Uztailaren 3a izango da umeendako egun handia, haiendako espresuki prestatutako hainbat ekintza izango baitira egun osoan.

11:00etan hasita, goiz eta arratsaldez puzgarriak eta jolasak izango dituzte Salbador kalean Sanz atrakzioen eskutik. Bazkaltzeko tartearen ostean, 15:30ean zabalduko dute berriro ere jolasgunea.

Bazkaria

Haurrendako bereziki prestatutako beste ekintza bat umeen bazkaria da. Eguerdiko ordu bietan egingo dute, Iñaki jatetxean. Gutxi gorabehera, 12 urterainoko neska-mutikoak biltzen dira urtero mahaiaren bueltan.

18:30etik aurrera, berriz, buruhandiak ibiliko dira kalean, ume zein nagusien atzetik korrika. Ustekabe txarangaren musikak girotuko du.

Bikain pasatzen dute urtero neska-mutikoek puzgarrietan. | GOIENA

Udalekuetako neska-mutikoek buruhandiei ongietorria egingo diete, bigarrenez

M.T. | ELGETA

Iaz egin zen lehen aldiz eta aurten ere errepikatuko dute Zezena, Lehoia eta Txintxon buruhandiei ongietorria.

Eguerdiko hamabietan autoan helduko dira plazara buruhandiak, eta bertan izango dituzte zain udaleku irekietako umeak, korrika egiteko prest. Jaietako egun guztietan aterako dira kalera buruhandiak; beraz, herritarrek adi ibili beharko dute.

Bolo txapelketarik ez aurten

Aurten, aldiz, ez da herritarren arteko bolo txapelketarik jokatuko. Urtero bolatokian jende ugari bildu izan du ekimenak.

Idiak Elgetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Ferixa Nagusixak herria hartuko du domekan

M.T. | ELGETA

Domekan, goizeko bederatzietatik aurrera, zabalik egongo dira, urtero bezala, Ferixa Nagusiko postuak.

Ganadu erakusketa, jakiak, artisauak, baserriko makineria eta burdindegi azoka izango dira aurten ere. Hirurogei postu baino gehiago etorriko dira herrira. 100 bat behi eta hogeina inguru idi, zaldi eta ardi egongo dira, besteak beste.

Arratsaldean ere denetarik

Arratsaldean, buruhandiak izango dira, 18:00etan. Geroago, 19:00etan, kale ikuskizuna egongo da Los Hermanos Moreno taldearen eskutik: *Mucho más que circo*. Iluntzean, berriz, urteroko txitxi-burruntzia dastatzeko aukera egongo da gaztetxean.



ELGETA

Udaleku zerbitzua martxan da umeendako ekintza mordoarekin

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martitzenean zabaldu zituen ateak udaleku zerbitzuak, eta uztailaren 24ra bitartean 2 eta 11 urte bitarteko 70 neska-mutiko hartuko ditu.

Elgetako bost hezitzailek gidatuko dituzte ekintzak. Jone Izagirre eta Kepa de Vega 2011n eta 2012an jaiotakoen Azerien taldeko arduradunak dira. Ane Vallo Orkatzen taldeko arduraduna da; 2009an eta 2010an jaiotakoak. Nerea Villa Arranoen taldeko arduraduna da; 2007an eta 2008an jaiotakoak. Eta Adrian Gorostitza Hartzen taldeko arduraduna da, 2004tik 2006ra bitartean jaiotako neska-mutikoen taldea.

Talde bakoitzak adinari egokitutako dinamikak egingo ditu, betiere, bateratua den gai baten inguruan.

Ekintza bereziak

Uztailaren 2an jaietako Kaxkajoari ongietorria egingo diote neska-mutikoek eta uztailaren 7an entzierroa izango da. Uztailaren 9an irteerak egingo dituzte Elgetan. Biharamunean, Landako urtegira joango dira eta uztailaren 14an eta 15ean Bergarako igerilekura. Uztailaren 20an Lapurdi, Barrenengua, Galgorri eta Bastarrika baserriak bisitatuko dituzte eta 22an ibilbide tematikoa egingo dute bi talde nagusiek.

Penak eta minak sutara!

L.Z.

Elgetan ere berritu da sua beste urtebetez. Arratsalde osoko festa izan zen: guraso elkartearen ogitartekoak, Amaia Txintxurretaren dantza saioa... Eta sua, jauziak eta Jose Monterrosoren suziriak.

Elgetako kuadrilla bat, iazko jaietan, mozorrotuta. | L.Z.

Ate joka ditugu jada Ferixa Nagusiko jaiak

Udaleku zerbitzuak 70 erabiltzaile ditu aurten

L.Z. | ELGETA

Udalak asteon banatu ditu Ferixa Nagusiko esku-programak. Hamabi orriko liburuxkak jai batzordearen agurra, egitaraua eta iazko argazki lehiaketara aurkeztutako hainbat irudi jasotzen ditu. Jaien aurrekontua ere badakar. Aurreikusitakoan arabera, gastua 32.146 euro izango da eta sarrerak 9.157 euro. GOIENAko zenbaki honetan, jaietako gehigarri berezia dago 21. orrian.

Txartelak salgai

Dagoeneko salgai daude bi bazkaritarako eta afari baterako txartelak. Eguenerako afaria antolatu dute gaztetxetik. Prezioa zortzi euro da eta menua: oilaskoa, entsalada, patatak, postrea eta sagardoa. Interesatuek ekainaren 30a aurretik eman behar dute izena Haizea tabernan edo *elgetakogaztetxia@gmail.com* helbide elektronikoan. Umeen bazkaria barikuan izango da Iñaki jatetxean. Txartelak bertan dituzte salgai. Prezioa sei euro da eta menua: pasta, oilaskoa eta izozkia.

Zapatuko Herri Eguneko paella janerako txartelak ere dagoeneko salgai daude Julian Markiegiren kioskoan. Prezioa lau euro da

Liztor beltzen bi habia desaktibatu dituzte jada Elgetan

Uriarte auzoko Txaraka edo Iribeiturriaga baserri ondoan eta Domingo Iturbe kaleko txalet batean agertu dira habiok. Mankomunitateak uztailean jarriko du protokoloa martxan.

Fernando Olaortuak irabazi du Beheko Kaleko jaietako saria

327 lagun daude erroldatuta Domingo Iturbe kalean. Fernando Olaortua izan da kopuru horretara, pasatu gabe, gehien gerturatu dena. Hark irabazi du saria: bi txuleta eta bi botila ardo.

OHARRAK

AZKEN BARIKUA

Gaur, barikua, 20:00etan, presoen eskubideak aldarrikatzeko hileroko elkarretaratzea, herriko plazan.

MUSIKA IKASLEEN SAIOA

Lorea Larrañagaren musika ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute domekan, hilak 28, 12:30ean, Espaloia kafe antzokian.

LEINTZ GATZAGA

Eneka Zankada | Leintz Gatzagako alkatea

"Turismoari bultzada eman eta aberastasuna ekartzeko ahalegina egingo dugu"

Batzordeak izendatu ditu eta dagoeneko hasi da erabakiak hartzen Udal Gobernu berria

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan gainontzeko herrietan baino aurreratuago dabil Udal Gobernu berria, berorrek dituen ezaugarri berezien ondorioz, asteak daramatzate-eta lanean. Erabaki batzuk hartuta dituzte. Eneka Zankada alkateak eman ditu xehetasunak:

Batzordeak izendatuta dituzue?

Bai. Ixidor Salaberri arduratuko da Ogasunaz; Zerbitzuak eta Hirigintza arloaz, berriz, Roberto Otazu, Mendiak Saila Juan Bengoak hartuko du, Kultura Joannes Mendizabalek eta Zerbitzu Sozialak eta Turismoa neuk.

Noiz arte? Izan ere, iragarri zenuten txandakatzeko asmoa zenutela...

Ikusi egin behar zela funtzionatu behar dugun; zenbat lan ematen duen bakoitzak… Orain arte Mankomunitatean batzar asko izan dira, baina ez dakigu hemendik aurrera zela izango den; beraz, ikusi egin behar. Ez dakigu karguak izango diren bi urterako, baterako, laurako…

Alkatea bulegoan. | U.M.

Osoko bilkurek bi hilean behin izaten jarraituko dute?

Lehenengoa izango da uztailaren 2an, eguena, 08:30ean. Izendapenak formalizatu behar dira eta beste zerbait ere landuko dugu. Gehienek goizez egiten dute lan, eta denondako errazago izateko egingo dugu horrela. Maiztasuna, berriz, gai kopuruak finkatuko du.

Lan zehatzei begira, zein izango da lehentasunezko proiektua?

Martxan daudenak: aparkaleku berriak eraikitzea –10-15 bat, eta obra hasita dago–, ura eramatea falta zen azkeneko baserrira –Aterbe– eta ea Gatz Museoaren kontzesioa zertan geratzen den.

Eskola txikia izan zen iaz bultzada eman zitzaion proiektuetako bat. Adostu zen jantokia egokituko zela. Aurrera doa ekimena?

Nahi diogu beste bultzada bat eman. Jantokiari dagokionez, ez dakigu irailerako posible izango den. Hori bai, Jakioneko bulegoak lekuz aldatu behar direnez, espazio hori apurtxo bat txukunduko dugu, behintzat, umeendako lekua egiteko, eta ea posible den hori ikasturte hasierarako gertu izatea. Auzolanean egingo dugu.

Hondakinen bilketari dagokionez, selektiboki egiten segituko duzue nahiz eta Mankomunitatean oso posible den edukiontzien alde egitea?

Berdin segituko dugu. Oso herri txikia da, denok ez gara ados egongo denean, baina dirua inbertitu zen, gastua eginda dago, eta hori mantentzeko apustua egingo dugu.

Turismoari bultzada emateko ahalegin handia egin da urteotan; bide horretatik segituko duzue?

Asmoa dugu, talde moduan, turismoari bultzada emateko. Ikusten dugu gure herrian aterabide indartsua duela turismoak. Jakion joan egingo da; beraz, diru sarrera handia izango da turismoa eta hori indartzen jarriko dugu guztia gure aldetik. Ahaleginak egingo ditugu horri bultzada emateko eta herrira aberastasuna ekartzeko.

LEINTZ GATZAGA

Aparkaleku berriak egokitzeko obrak hasi ziren joan den astean

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Aparkalekuak eraikitzeko esparrua egokitzen dihardu Donezteberko (Nafarroa) Zubieder enpresak. Zeregin horretan hasi ziren joan den astean, eta berean dihardu, belarrak-eta moztuta. Hain justu, 500 bat metro karratu dituen lekua prestatu behar dute. "Ur-tutu handi bat dago bertan eta horrekin kontuz ibili beharko dugu", adierazi du enpresako langile batek. Bertan eraikiko dituzten aparkalekuak errepide mailan geratuko dira gero. Edozein modutan, Udalak eskuorri bitartez emango die herritarrei obraren informazio osoa.

Makina hondeatzailea lanean, eguaztenean. | ANDER LARRAÑAGA

Astelehenean hasiko dira aurtengo udalekuak eta uztailaren 17ra arte iraungo dute

15-16 neska-mutikok eman dute izena datozen bi asteotako udalekuetarako; txikienak 4-5 urtekoak dira eta nagusienak, berriz, 12 urtekoak. Goizez eta arratsaldez ibiliko dira, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Eta, azken urteotan moduan, eguraldiak lagatzen duen guztietan kaleko ekintzak egingo dituzte. Irteeratxoren bat egitea ere badute aurreikusita eta azkeneko gaua, berriz, Gaztainuzketako mendi-etxeetan pasako dute. Garazi Orobengoa eta Beñat Agirreurreta izango dituzte begirale.

NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Eskola txikixe?

Daukien ikasle kopuru txikixatik, gela berien adin ezberdiñetako ikasliek eukitten dittuena ei da. Neure lehenengo eskola urtiek holako baten emun nittuen, Koruetakuen.

Bertan edo haren bueltan, zerbait ikasi neuen. Maistriek esanda ez, baiñe hantxe jakin nauen, nik, umiek aman tripatik urteten dauiela. "Txahalak letxe?", neuk harrittute. "Bai, bai, moxalak eta txahalak letxe", ni baiño nausixaue zanak eta etxien behixek eta bihorrak eukezenak.

Bizikletan be urrin barik ikasi nauen, ordurako bizikeletie euken baten eskutik. Ixiarrek be hola esaten dau: "Auzoko mutilek baranda peien bizikletie itxi eta Aranera baso erdi bat ardau edatera sartzen zienien, eurak errueda bikuoi hartu, kuadruen barrutik bestekaldeko pedalera hankie pasau eta Koruetatik, Etxaluzera eta handik buelta", ikasi euela bizikletan.

Beste behin, lagun bati aittejaune edo hil jakon, eta gu mutikuon jakin gurie, zelan izen ete zan hori: "Ez dakit, jaten eta emuten gutzen, baine hil egin da", izen zan etxeko neskatillien erantzune, irauteko, jatie, behintzet, biherrezkue dala jabetute.

Gaur, gure jakin gura danak Interneten aseten dittugun honetan. Utzi deixaun inguruei, dakixena erakusten, eta gu geu, aurrien pantalla barik guzti hori jasoteko gauza izen gaittezela, hau be, eskola txiki haundixe da eta.

"Jaten eta emuten gutzen, baine hil egin da aittejaune"

M.A.

Sasoi bateko ohiturak gogoratuz

San Juan bezperak sasoi bateko ohiturak ekarri ditu, beste behin. Suaren inguruan elkartu ziren herritarrak eta kantuan eginda egin zioten ongietorria udari. Ondoren, tantaiaren txanda etorri zen; 1997an jaiotako kintoek goizean botatako pinua jaso zuten, kostata jaso ere, gauerdiaren bueltan. Eta San Juan egunez atarte guztiak iraz estalita agertu ziren gauean lanean jardundako kuadrilla bati esker.

Aretxabaleta

1.100 metro koadroko lursaila salgai Txarapea ibilbidearen atzealdean. Bista paregabeak.

618 76 34 40

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

318 gaztetxok jardungo dute udaleku irekietan

Astean hiru goizetan Ibarra kiroldegira joango dira 8 eta 12 urte artekoak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Uztailarekin batera udaleku irekiak datoz Aretxabaletara eta hilaren 1etik 22ra bitartean 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoek izango dute zerekin ondo pasatu; ordutegia izango da 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Aurten 318 izango dira guztira elkartuko diren gaztetxoak.

Neska-mutikoak eta begiraleak azken jaialdia ospatzen, iaz. | M.A.

Kirola egiteko aukera

Nobedadeak izango dira nagusi aurtengoan. Izan ere, udaleku irekiek eta kirol udalekuek bat egingo dute eta Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara artekoak astean hiru goizetan Ibarra kiroldegira joango dira. "Ekintza batzuk kiroldegian egingo dituzte eta beste gutxi batzuk kirol zelaian", jakinarazi du Maider Etxanizek, Gazteria Zerbitzuko teknikariak. Eta egingo dituzten kirol ekintzak zeintzuk izango diren jakinarazi du: *zumba,* errugbia, hockeya, igerian, eskalada eta multikirola. "Horren asmoa da beste kirol batzuk probatu eta ezagutzera ematea gaztetxoei". Eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoek, 6 eta 8 urte artekoek, igerilekura joateko aukera izango dute.

Gaztetxoen iritziak jaso

Bestetik, urtero arrakasta duten ekintzei eutsiko diete aurten ere, horien artean daude San Fermin eguna eta mendira irteerak. "Egitarau horri esker kalea, natura eta kirola bateratuko dituzte neska-mutikoek", argitu du Gazteria teknikariak, eta gaineratu du: "Horiez gain, sukaldaritza kontuak ere landuko dituzte hainbat gaztetxok".

Eta beste berrikuntza bat ere iragarri du Etxanizek: "Azken astean zer egin erabakiko dute haurrekin. Asanbladak egingo dituzte horiekin euren iritziak eta nahiak jasotzeko. Eta posible den neurrian horiek aurrera eramango dituzte".

Neska-mutikoak igerilekuan, iaz, jardueren azken jaialdian. | MIRIAN BITERI

Ekintzaz beteta dator Ibarra kiroldegiko udako kanpaina

Uztailaren 1etik 24ra arteko eskaintza da eta izena emateko epea zabalik dago

M.A. | ARETXABALETA

Uztailean ere kirola egiteko makinatxo bat aukera izango da Ibarra kiroldegian. Ohikoak ez diren jarduerak eskaini gura izan dituzte oraingoan. "Umeak ez ezik, familia osoa jarriko dugu kirolaren bueltan, guztiek goza dezaten", jakinarazi dute.

Kanpoko kirolak indartu

Sei jarduera dira eskainitakoak. Batzuk umeendako: irristaketa eta igeriketa. Beste batzuk helduendako: irristaketa, korrika, hipopresiboa eta *nordic walking* delakoa. "Osatu egin gura izan dugu urteko egitaraua jarduera horiekin, eta kiroldegitik kanpo egin daitezkeenak indartu; korrika eta *nordic walking*-a, esaterako", dio Igor Arenatza zuzendariak. Gehienez, hamabi lagun hartuko dituzte talde bakoitzean. Uztailaren 1etik 24ra bitartean izango dira eta prezioa da beste edozein jarduerari dagokiona, hau da, 10,22 euro. Izena emateko eta argibide gehiagorako kiroldegiko harrerara jo (943-03 98 42).

UZTAILEKO JARDUERAK

Irristaketa, haurrak
Astelehen eta eguaztenetan
17:45-18:30

Irristaketa, helduak
Martitzen eta eguenetan
18:00-18:45 eta 19:45-20:30

Korrika, hastapena
Astelehen eta eguaztenetan
17:00-17:45

Hipopresiboa, hastapena
Astelehen eta eguaztenetan
18:00-18:45

'Nordic walking'-a
Astelehen eta eguaztenetan
18:00-18:45

Igeriketa, hobekuntza, haurrak
Zapatuetan
10:00-11:00

Hiruko saskibaloi txapelketa gaurtik domekara Herriko Plazan

Tximeleta-azala duen Urretxuko Markeli laguntzeko jasoko dute dirua

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Saskibaloiaren inguruko aste bukaera antolatu dute herriko hainbat lagunek. Saskibaloiak solidaritatearekin egingo du bat, gainera. Hiruko saskibaloi norgehiagokak jokatuko dituzte gaur hasi eta domekara bitartean eta jasotako dirua izango da *epidermolisis bullosa* edo tximeleta-azala duen Urretxuko Markeli laguntzeko. "Txakurrekin erakustaldi bat egitera etorriko da, gainera", jakinarazi du Gorka Alarciak, antolatzaileak.

Orain dela bi urte egindako txapelketako partidu bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Partiduak eta jai giroa

Herriko Plazan jokatuko dituzte partidu guztiak; hasi gaur gaztetxoenak, 12 urtera artekoak, eta domekan elite mailakoek bukatzeko. "Zapatu arratsaldean herriko seniorrek jardungo dute nor baino nor gehiago eta domekan, elite mailako kirolariek. Inguruko herrietatik ere etorriko dira", argitu du Alarciak.

Izena emateko epea dagoeneko zabalik daukate. "Gaztetxoenek 5 euro ordainduko dute eta gainerakoek, 10 euro. Kamiseta jasoko dute opari horiek", dio Alarciak. Eta gainerakoek ere izango dute kamisetak erosteko aukera.

Jaialdia girotzeko, gainera, hainbat ekitaldi izango dira plazan: AZ Gaubelak herriko taldearen emanaldia egubakoitzean; McRea Clarke Urretxun bizi den Irlandako komikoaren ikuskizuna zapatuan; eta umeendako puzgarriak eta buruhandiak domeka goizean. "Herri afaria ere antolatu dugu; hortaz, giro bikaina sortuko da, seguru".

Orain dela bi urte antolatu zuten lehenengoz halako jaialdi bat herrian: "Orduan, esklerosi anizkoitza duen saskibaloi-jokalari bati laguntzeko egin genuen eta herritarrek bikain erantzun zuten", dio antolatzaileak, eta gaineratu du: "Oraingoan ere animatzeko esango nieke umeei zein helduei, saskibaloian ibilitakoa izan edo ez, bikain pasatuko dute guztiek".

EGITARAUA

EGUBAKOITZA

16:30 Partiduak: aurre-benjaminak; benjaminak eta kimuak.

21:00 AZ Gaubelak taldearen emanaldia.

ZAPATUA

10:00 Partiduak: haurrak, kadeteak eta gazteak.

16:00 Partiduak: herriko seniorrak.

21:00 Herri afaria.

22:30 McRea Irlandako komikoaren emanaldia.

DOMEKA

10:30 Puzgarriak umeendako.

12:00 Buruhandiak.

16:30 Partiduak: elite mailakoak.

Antzezlanak izango dira kaleko protagonista uztaileko eguaztenetan

'Zapatak airean' eskainiko du La Furtiva taldeak uztailaren 1ean, 19:00etan, Mitarte kalean

M.A. | ARETXABALETA

Kale antzerkiek girotuko dituzte eguazten iluntzeak, iaz legez. Eta datorrenean, uztailaren 1ean, *Zapatak airean* ikuskizuna eskainiko du La Furtiva Valentziako konpainiak. Antzerkiak, dantzak eta zirkuko akrobaziek bat egingo dute Mitarte kalean, 19:00etan.

Zapatak airean. | SCURA PRODUCCIONS

Uztailaren 8an, ostera, *Zoozom* antzezlana ekarriko du Markeliñek Herriko Plazara (19:00); 15ean, Trapu Zaharrak *Ongi etorri* eskainiko du Durana kalean (19:00); eta 22an, Zirika Zirkus taldea *Txarlestrup* ikuskizunarekin etorriko da.

Eta datorren eguenean, hilak 2, dantza inprobisazio erakustaldia egingo dute Jaikiko kideek Herriko Plazan, 19:00etan.

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Kalean bakarrik ez, Arkupen ere izango dira ikuskizunak. Hilaren 9an, eguena, *Aquí va a pasar algo* eskainiko du Zanguango taldeak (19:00); memoria galtzearen gaineko gogoeta umoretsua da. Eta hilaren 12an, neska-mutikoek Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen emanaldia izango dute (17:00).

Udako zinema

Udako zinemak ere izango du lekutxoa Arkupen. Uztailaren 14an eta 16an *Tomorrowland* emango dute eta 21ean eta 23an, *Jurasic world*.

Horiez gain, *Ur azpian* dokumentala eskainiko dute hilaren 7an (19:00). Jon Campo eta Ibai Iregi aretxabaletarrek egin dute, Urkulu urtegiaren gainean.

Lourdes Urrutia Kurtzebarriko kideen artean. | KURTZEBARRIKO IKASLEAK

52 gaztetxo elkartuko dira 'Geroa sortuz' campusean

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteak antolatutako *Geroa sortuz* futbol campusak astelehenean zabalduko ditu ateak. Debagoieneko 52 gaztetxo elkartuko dira futbolaren inguruan eta ekintza mordoa egingo dituzte uztailaren 3a artean. Egonlekua Kurtzebarri eskolan izango dute; han egingo dute lo, baita jatorduak ere.

Ibarra futbol zelaian pasatuko dituzte goiz gehienak: "Entrenamendu saioak egingo ditugu", dio Gorka Vallek, UDAko entrenatzaileak eta campusaren arduradunak. Hari lagun egingo diote Igor Arenatzak –UDAko kirol zuzendaria–, Erik Badillok –Kirol Irakaskuntzan graduatua– eta Beñat Etxabek eta Jokin Badillok –Soin Hezkuntzan graduatuak.

Arratsaldeetan, ostera, mendi irteerak egingo dituzte, olinpiadak eta beste hainbat jarduera. "Balioak ere landuko ditugu; filmak ikusi eta gero horren gainean hausnartu", dio Vallek. Eta eguenean, hilaren 2an, Donostian pasatuko dute eguna: "Goizean Zubietan entrenatuko gara, bazkaltzera hondartzara joango gara eta arratsaldean Anoetara".

'Geuretik mundura': Merlet Collegerekin elkartrukea

KOMUNITATEA GOIENA | IKASLEAK
KURTZEBARRI INSTITUTUA | ARETXABALETA

Aretxabaletako Kurtzebarri BHIko 3. mailako ikasleek datorren kurtsoan Holandako Cujick herriko Merlet Collegerekin egingo dute elkartrukea. Bidaiaren gastuak estaltzeko ekintza asko ari dira antolatzen; adibidez, egunotan eginiko zozketak: bi otarre, Aretxabaletako eta Eskoriatzako dendariek emandako produktuz beteta.

Zozketan parte hartzeko hainbat tabernatan eta dendatan jarri zituzten kartoi meheak, jendeak euro baten truke zenbaki baten alde apustua egiteko, porra erara. Erantzun polita izan du ekimenak, jende askok parte hartu du-eta. Otarreak erakusgai egon dira, bata Aretxabaletako Durana kaleko Udalaren lokal bateko erakusleihoan, eta bestea, Eskoriatzakoa, Ogiberri okindegikoan. Joan den ostegunean zozketa egin zen eta zenbaki sarituak izan dira Gorettirena –Eskoriatzako Naira tabernan apustua egina– eta Lourdes Urrutiarena –Aretxabaletako Errekabarren fruta-dendan apustua egina.

Bestalde, asteburuko egonaldi bat ere zozketatu da, ikasleek saldutako txartelen artean. Zenbaki saritua 278 izan da, eta Ana Ruiz Santosek erosi zuen. Zorionak irabazleei, eta mila esker kolaboratu duzuen guztiei, bereziki Aretxabaletako eta Eskoriatzako dendariei!

TXALOAK ETA TXISTUAK

Gutxi iraun du

Astero mendi buelta egiten duen taldetxo batek Kurtzebarriko mahai-aldarea apurtuta topatu zuen joan den astean: "Hamarretakoa egiteko hurbildu eta konturatu ginen mahai-aldarea lau izkinatatik dagoela apurtuta", diote: "Ostikoka ez da izan, mailu handi batekin edo antzeko tresna batekin baizik. Benetan penagarria".

GOIENA

Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea Kalegoi auzoan. | MAIDER ARREGI

Beñardo Kortabarria | Antzuolako alkatea

"Denon artean herri hobea egin gura dugu"

- Zupide azpiko biribilgunea bukatzean ezarriko dute zirkulazio plan berria
- Herriko langabeziari aurre egiteko irtenbideak bilatu gura dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Udal Gobernu berria hasi da lanean Antzuolan. Batzordeak guztiz eratzeko lanean dihardute orain. Lehen osoko bilkura uztailaren 1ean egingo dute. Beñardo Kortabarriak dio "ohorea" dela alkate gisa jardutea.

Zein da alkate gisa hartu duzun lehen erabakia?

Kalebarrengo pibote bat kentzea izan da nire lehen erabakia. Jendea trabatzen zela entzunda neukan; baita ikusita ere; ni neu ere ia erori nintzen.

Herritarrek zer esaten dizute?

Herritar askok zoriondu egin naute. Lan egiteko aginduak ere jaso ditut. Niretako, denborak aldatu egin dira. Jendeak geratu egiten nau iritzia, aholkua edo eskaera egiteko. Lehen, Ondarretik plazara jaisteko minutu bat behar nuen. Orain, beti pentsatu behar dut norbaitekin geratuko naizela eta bi minutu beharko ditudala.

Eszedentzia hartu duzu.

Lau urteko eszedentzia hartu dut, bai. Kazetari izatetik alkate izatera pasako naiz. Niretzat eta gure lantaldearentzat ohorea da antzuolarren borondatearen ordezkari izatea. Erantzukizunetik eta herriaren alde dena emateko jarreratik bizi dudan ohorea. Espero dut eman diguten konfiantzari erantzuteko gai izatea.

Gehiengoa daukazue, baina EAJrekin akordiorik izango da?

Gehiengo osoa dugun arren, denon artean denontzako geroz eta hobea den herria egiten jarraitzea da gure asmoa. Hortaz, elkarlana eta parte-hartzea garrantzitsuak dira. Ahaleginak egingo ditugu gainerakoekin elkarlanean jarduteko. Oraingoz, ez dugu horrelakorik lortu, EAJk ezetz esan digu-eta, baina ez ditugu ateak itxi.

Zein asmo duzue datozen lau urteetarako? Zein da plangintza?

Parte-hartzean, erabakitzeko eskubidean, gardentasunean eta komunikazioan oinarrituta, herri-programa garatzea da gure asmo nagusia. Langabeziari aurre egiteko irtenbideak bilatu behar ditugu enpresa, sindikatu, ikastetxe, eta abarrekin batera; kanpotik iritsi zaigun eta iritsiko zaigun jendea integratzeko bideak landu behar ditugu; euskara indartzen eta gozatzen ere asmatu behar dugu; aisialdirako azpiegituretan egindako lanari jarraipena eman; nekazaritza eremuari gehiago erreparatu behar diogu; ingurumena zaintzeari; autobideko obrari jarraipen zorrotza egingo diogu... Gauza asko dira, asko daude eginda, baina egiteko ere asko dago oraindik.

Oinezkoendako herria egin gura duzue. Noiz hasiko zarete?

Zupide azpiko biribilgunea amaitzen denean ezarriko dugu zirkulazio berriaren plana. Denbora bat emango diogu ikusteko nola doan, eta egokitzapenak egin behar diren edo ez diren egin behar erabakiko dugu.

Mankomunitatean gutxiengoan geratu zarete. Nola ikusten duzu aurrerantzeko lana?

Egia da EH Bildu gutxiengoan egongo dela Mankomunitatean; baina oraindik ikusteko dago nola jokatuko den eremu horretan. Kontuan hartu behar da Mankomunitatea zerbitzu-egitura bat dela, non udal bakoitzak bere ekarpena egiten duen. Gutxiengoan egoteak ez du esan nahi inork gu gutxiesteko eskubidea izango duenik. Antzuolak hor orain arte izan duen garrantzia bera izango du.

Debagoienean atez atekoaren auziarekin zer gertatuko da? Zeren aldeko apustua egingo duzue?

Gure apustua argia da, hauteskunde-programan argi eta garbi esan genuen: atez ateko sistemari, hondakinak murriztearri eta kudeatzeari bultzada ematea. Eta herriak babesa eman digu; alde handiarekin, gainera. Atez atekoa oso emaitza onak ematen ari da Antzuolan. Jende gehienak ondo egiten du, erosoa da, usainik ez du sortzen... Birziklatze-tasa oso handia da eta hobetu egin daiteke. Horren kontra joatea ur handitan sartzea izango litzateke. Kontu horrekin uste dut berez gai teknikoa den zerbait azken lau urteotan gai politiko bihurtu dela eta denborarekin eztabaida protagonismoa galtzen joango dela. Kanpaina mediatiko handia egin da atez atekoaren inguruan, bazter asko eta elkarbizitza aztoratzeraino. Harrigarria izan da, batez ere, ohartzen bagara gure mugetatik kanpo Gipuzkoako Hondakinen Bilketa eta Tratamendu Plana eredugarritzat jo dituztela. Europako Batasuneko Ingurumen komisarioak horrela aitortu zuen; baita Greenpeacek eta Espainiako Telebistako *Escarabajo verde* saioak ere.

"Atez ateko bilketa sistema bultzatuko dugu, orain arte egin dugun moduan"

"Deskargako autobideko lanei jarraipen zuzena egingo diegu"

Nepaldarrei laguntzeko pintxoak banatuko dituzte Kalebarrenen

Lurrikarak eragindako kalteen erretratuak ikusgai izango dituzte herritarrek Zurrategin

M.A. | ANTZUOLA

Maiatzean gertatu zen lurrikara Nepalen; oraindik lurraldea suntsituta dago eta laguntza behar dute nepaldarrek. Bi urte daramatza Antzuolan bizi izaten Ishor Budhathoki nepaldarrak, eta gogoan ditu herrikideak: "Nire familia ondo dagoela badakit; hala ere, kalteak izugarriak dira eta laguntza behar dute. Antzuolarrak beti laguntzeko prest daude; oso pozik nago".

Ishor Budhathoki | MAIDER ARREGI

Elkartasun pintxoa

"Nepalgo jakia den pakoura prestatuko dugu". Batzen den dirua Maiti Nepal GKEra bideratuko dute. "Helburua neskatilak eta emakumeak sexu-trafikotik erreskatatzea da. Arazo larria da hori Nepalen. Lurrikarako irudiak jarriko dituzte ikusgai Zurrategin.

OHARRAK

KALEBARRENGO FESTAK

Gaurtik domekara bitartean Kalebarrengo festez goza daiteke. Sagar-dantza, umeen danborrada, asto lasterketa... Egitaraua osorik *Goiena.eus*-en.

JAIETAKO BAZKARIA

Landatxopek uztailaren 12rako bazkaria antolatu du. Izena ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean eman daiteke (16:00-18:00).

AIHERRAKO FESTAK

Hilaren 26tik 29ra Aiherran festak ospatuko dituzte. Antzuolako alkatea bertan izango da. Egitaraua osorik *Goiena.eus*-en.

SAN MARTZIAL, EGUNA

Lizarraga auzoan San Martzial festak ospatuko dituzte ekainaren 30ean eta uztailaren 4an eta 5ean. Egitaraua osorik *Goiena.eus*-en dago.

JABI I ETXANIZ

Herritarrak suaren bueltan

Antzuolarrek udari ongietorri ofiziala egin zioten martitzen arratsaldean, San Juan bezperako suaren inguruan. Udalbatza berriak arbola jaso zuen. Sua piztu aurretik Oinarineko dantzariek sanjuanetako dantzak egin zituzten. Ondoren, sua piztu zuten eta, ohitura den moduan, desioak eskatu zituzten herritarrek. Jabi Etxanizen argazki galeria ikusgai dago *Goiena.eus/antzuola*-n.

Lierni Altuna | Aramaioko alkatea

"Praktikotasunagatik batzorde kopurua murriztu egin dugu"

- Martitzenean egin zuten bilkuran erabaki zuten hamarretik zazpira pasatzea sail kopurua
- San Martin jaiei begira aldaketa batzuk egingo dituzte: ez dira Udal moduan mezetara joango

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Ekainaren 13an hartu zuen Altunak Aramaioko alkate kargua. Herritar batek esan dion moduan, "aireportua" ezagutzen du, "baina hegazkina ez".

Orain arte zinegotzi lanetan ibili zara. Alkate kargua hartzeak ze ezberdintasun du?

Nik uste dut oraindik ezin dudala baloratu. Aste luze hau intentsua izan da. Eskualdatzea egiten ibili naiz, eta zinegotzi berriei gauzak erakusten. Ondo hasi dugu eta pozik gaude!

Zer sentitzen da horrelako ardura bat hartzean?

Ardura galanta! Azkeneko lau urteetan non izan ditugun hutsuneak badakit, eta horren pisua era badaukat gainean. Orain, koordinatzaile lana egitea tokatu zait. Lan egiteko gogoarekin nago; bestela, lau urte luze egingo dira!

Zein izan da hartu behar izan duzun lehenengo erabakia?

Ez dakit sinatu dudan lehenengo papera zein izan den. Baina lehenengo egun hauetan egin duguna izan da aurreko agintalditik zetozen zenbait dokumentu sinatu. Hurrengo lau urteei begira antolamenduak nolakoa izan behar duen erabakitzea da egingo dugun lehenengoa.

Eratu dituzue batzordeak. Aldaketarik egon da?

Bai; sail berririk ez dago, baina praktikotasunera jo nahi izan dugu. EAJri eskaini genizkion batzordeak, baina erantzun digute nahiago dutela oposizioan lan egin, era eraikitzailean. Hala, sei zinegotzi izanda, praktikotasunera jotze aldera, proposatu dugu hamar batzordetik zazpi batzorde izatera pasatzea.

Zeintzuk dira lehentasunak?

Proiektu aldetik, gainean daukagu plan foralaren diru laguntza eskatzea. Horiek izaten dira obra handiak egiteko –Etxaguen, Azkoaga...– . Bestalde, arloen alorreko azterketa bat egingo dugu. Dagoena mantendu eta konpondu beharrekoa konpontzeko.

Jaiak gainean dituzue. Dena gertu duzue?

Jaiei begira aldaketa batzuk egingo ditugu: eztabaidatu ostean, erabaki dugu ez garela Udal moduan mezetara joango. Uste dugu instituzioek laikoak izan behar dutela. Elizara joatea norberaren eskubide indibiduala dela uste dugu. Orain arte udaletxetik elizara kalejira egin izan da, eta baita meza amaitutakoan elizatik udaletxera ere, dantzariekin. Ulertzen dugu kalejira horren garrantzia, eta jendeari hori gustatzea; horregatik, meza ostean elizako eskaileretan elkartu eta handik udaletxera etorriko gara. Moldaketa hori egitea erabaki dugu.

Lierni Altuna udaletxe aurrealdean. | GOIENA

"Azkeneko lau urteetako hutsuneak zeintzuk izan diren badakit"

"Jaiei begira erabaki dugu Udal moduan ez garela mezetara joango"

LARRAITZ ARRIOLABENGOA

Euskal Herriko hirugarrenak

Bilbon jokatutako Euskal Herriko haur kantarien lehiaketan hirugarren postua eskuratu dute Aramaioko Maia Villalba, Idoia Asurmendi, Teresa Arriolabengoa, Sara Alonso eta Leire Elejalde gazteek. Taldekako sailean lehiatu ziren aramaioarrak: sei talde lehiatu ziren guztira. "Oso maila ona" erakutsi zuten sei taldeek, Larraitz Arriolabengoak adierazi duenez.

JOSU OLAIZOLA

Hiru txapel aramaioarrendako

Udaberriko pilota txapelketa irabazi dute Ander Garaitonandiak eta Lander Perezek benjamin B mailan: Oñatiren aurka (16-9). Alebin B mailan, Markel Arriolabengoak eta Danel Herrartek ere Oñatiren aurka irabazi dute (16-10). Julen Olaizolak eta Oxel Garitanok –Arrasate– Lizarrako txapelketa irabazi dute Iruñeko Paz Ziganda bikotearen aurka.

Eskolartekoen finalean egongo da Abarrategi

A.E. | ARAMAIO

Eskolartekoak azken hitzordua izango du bihar, zapatua, Orion. Festa giroan ospatuko duten bertsolari finala izango da. Bederatzi bertsolari lehiatuko dira; tartean, Aramaioko Peru Abarrategi.

Bat-bateko finalari 11:00etan emango diote hasiera. Abarrategi eta Peru Amorrortu izango dira Arabako ordezkariak; Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Lapurditik bina ordezkari egongo dira; eta Nafarroako ordezkari bakarra.

Lujanbio eta Colina

Maialen Lujanbiok aurkeztuko du saioa eta irabazleari txapela Sustrai Colinak ipiniko dio. 14:00etan bazkaria izango dute plazan; eta, arratsaldean plazako oholtzan ibiliko dira librean Lujanbio eta Colina.

Mus eta briska txapelketa egingo dute erretiratuek jaietan

Txapelketa uztailaren 4an izango da –16:30ean– eta izena eman beharko da uztailaren 2a baino lehen –erretiratuen elkartean–. Sariak: gazta eta sagardo botilak izango dira.

'Ahotsarekin jolasean' tailerra egingo dute uztailean zehar

Ahotsaren ezagutzarako eta haren erabilera egokirako tailerra egingo dute uztailaren 13tik 17ra bitartean Sastiñan. Gazteleraz izango da. Izena emateko, idatzi *blankanicolas@hotmail.com* helbidera.

Gaur izango da Sastiña aurrealdeko azkeneko saioa

Ekaineko Kontzertuak Sastiñan jaialdiaren azkeneko saioa izango da gaurkoa. 20:00etan hasiko dute emanaldia Zarzamorak, Manex Arriolabengoak, Maria Izagak eta Sabin Aranburuk.

Arrantza txapelketa egingo dute bihar, 09:00etan, plazan

Udalak eta Oilogor elkarteak antolatuta, arrantza txapelketa egingo dute bihar. 09:00etan emango diote hasiera txapelketari; 13:30ean sari banaketa egingo dute plazan.

FUTBOLA

Aitor Arregik Bigarren Mailarako igoera lor dezake domeka honetan Cadizekin

Bilbao Athleticen aurka jokatuko dute etxean; joanekoan 2-0 galdu zuten

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Cadizko futbol taldean diharduen Aitor Arregi jokalari bergararrak urteko partidurik garrantzitsuena jokatuko du domekan –Ramon de Carranza futbol zelaia, 12:00– Bilbao Athleticen aurka. Bigarren Mailara igotzeko azken kanporaketako bueltako partidua jokatuko dute bilbotarren kontra; lan zaila izango dute, joanekoan 2-0 galdu zuten-eta: "Hasierako minutuetan gol bat egitea da helburua eta eurak atzean sartzea lortzea gure jokoa egin dezagun. Urtean zehar golak egiteko erraztasuna izan dugu, ea domekan ere hala den", dio Eibar taldeko jokalariak.

Aitor Arregi baloia lortzeko borrokan, joan den zapatuan San Mamesen jokatutako partiduan. | PORTALCADISTA

Igoera fase eskasa

Joanekoan gehiago izan zen Bilbao Athletic: "Ondo hasi ginen, baina 1-0ekoa jasotzea kolpe handia izan zen. Golak konfiantza eman zien eurei eta lehen zatian gu baino gehiago izan ziren. Bigarren zatian, ordea, izan genituen aukerak, baina ez genuen golik sartu". Bero galanta dago iragarrita domekarako eta horrek, Arregiren arabera, ez dio inori mesederik egingo. Hori bai, zaleen babesa "ezinbestekoa" izango dela uste du Arregik. Igoera faseari dagokionez, Oviedok kanporatu izana –Bigarren Mailako taldea da dagoeneko– kolpe latza izan zen Cadizko taldearendako: "Oso ondo iritsi ginen igoera fasera. Oviedon partidu ona egin genuen, baina itzulerakoan, etxean, ez genuen gure maila erakutsi. Ez genuen kanpoan geratzea espero eta Herculesen aurka, nahiz eta kanporaketa gainditu, ez ginen ondo ibili. Igoera fasean ez dugu gure jokoa egin".

ESANAK

"Eibarrek utzita minutu bila etorri nintzen, baina ez dut behar eta nahi beste jokatzeko aukerarik izan"

AITOR ARREGI | CADIZKO JOKALARIA

Minutu gutxi, orokorrean

Cadizek denboraldi ona egin badu ere, maila pertsonalean Arregi ez dago oso pozik: "Eibarrek utzita etorri nintzen, minutu bila, eta ez dut behar eta nahi beste jokatu". Oraindik ez daki zer egingo duen datorren urtean; Cadizek kontratua beste urtebetez luzatzeko aukera dauka, baina oraindik ez diote ezer esan.

Ulertzekoa denez, Eibarren denboraldia gertutik jarraitu du Arregik: "Lagun asko ditut han eta harremana etengabea izan da eurekin. Bigarren itzuliko gainbeherarekin nik ere sufritu dut; horrenbeste esfortzu egin ostean horrela amaitzea...". Eibarrek uztailean jakingo du Elxek administratiboki maila galduko duen eta ondorioz Lehen Mailara igotzerik izango duten edo ez.

ATLETISMOA

Torreauzo krosa egingo dute domekan, zazpi kilometrorekin

X.U. | ARRASATE

Torreauzo krosaren aitzakian izerdi ona botako dute kirolzale askok domekan –11:00etan hasita, Etxe-Aundi jatetxe parean–. Izena aurrez eman badaiteke ere –*kirolprobak.com* atarian, 8 euro ordainduta–, azken orduan dabilenak ere izango du aukera lasterketan parte hartzeko, proba hasi baino lehenago antolatzaileak egongo dira-eta izenak hartzen –12 euro–. Ibilbidean ez dago nobedaderik, Olateraino joan-etorria egingo dute –7,6 km–, eta, helmugan, podiumera igoko diren gizonezko eta emakumezkoak saritzeaz batera –eta oñatiar onenak–, zozketa ederra egingo dute parte-hartzaileen artean.

Iazko lasterketan. | LOKATZA

BORROKA-ARTEA

Ziorla eta Atama kenpo taldekoek lan ona Getarian

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan egin zuten Getarian Gipuzkoako Kenpo Txapelketa, eta, azken orduan egutegi arazoengatik sortutako gorabeherek txapelketan eragina izan bazuten ere –borrokalari askok kale egin zuten hitzordura–, Debagoieneko borrokalariak gustura geratu ziren egindako lanarekin.

Atama taldeak 10-30 urte bitarteko 15 kirolari eraman zituen txapelketara, eta, guztira, 42 garaikur irabazi zituzten, horietako 17 urrezkoak. Hala, Ziorla Kenpo taldetik ere kuadrilla polita izan zen txapelketan, eta azpimarratzekoak dira, adibidez, Josu Letonak eta Maddi Otamendik irabazitako urrezko dominak.

Sari banaketan. | ATAMA

TXIRRINDULARITZA

Mikel Aristi, asteburuan Seguran lortutako garaipenean. | LOKATZA

Mikel Aristi: "Konfiantzaz nago, Espainiako Txapelketaren bila noa"

XABIER URZELAI | ARRASATE

Mikel Aristi Euskadiko Selekzioarekin lehiatuko da asteburuan, Caceresen egingo duten Espainiako Txapelketan. Eta Bergarakoa ez da ezkutatzen, azken astean bi lasterketa irabazita erakutsi du sasoian dagoela –Gipuzkoako erlojupekoa eta Segurako lasterketa irabazi berri ditu–, eta 23 urtez azpikoen kategorian urrezko domina du helburu: "Espainiako Txapelketa egun bateko lasterketan erabakitzen da, eta halakoetan ikusten da indartsuenak ez duela beti irabazten. Baina nik, behintzat, indartsu ikusten dut nire burua, ondo nago, konfiantzaz nago, eta txapelketaren bila noa".

Segurako garaipenaren ostean, Bergarakoa izan da –23 urtez azpikoen artean– atseden hartu ez duen bakarra, eguaztenean Tolosan lehiatu zen-eta, Jose Maria Anza memorialean. Rutometroaz arazo batzuk izan ziren, eta epaileek lasterketa geratu egin behar izan zuten; Aristi 10. helmugaratu zen.

Euskadiko maillotarekin lehian

Espainiako Txapelketan Euskadi EDP taldeko bederatzi ordezkari izango dira, Caceresen. Batetik, Mikel Iturria, Illart Zuazubiskar, Egoitz Fernandez eta Ander Plazaola errepideko lasterketa absolutuan izango dira, Madariagaren taldeko elastikoa defendatzen. 23 urtez azpiko kategorian, ostera, ziklistek euren selekzioekin hartzen dute parte, eta hor, Aristik Euskadikoa jantziko du.

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizar laugarren urtez izango da Frantziako Tourrean

Trek Factory Racing taldeak aste barruan egin du ofizial Frantziako Tourrean izango duten bederatzikoa, eta Markel Irizar laugarren urtez izango da ziklismoko hitzordu handian. Oñatikoa Pirinioetan dago egunotan, hiru asteko lasterketa mimoz prestatzen. Harekin batera errepidean izango dira Fabian Cancellara, Julian Arredondo, Bauke Mollema, Haimar Zubeldia, Bob Jungels, Gregory Rast, Laurent Didier eta Stijn Devolder.

PILOTA

Domekan jokatuko dituzte Gipuzkoa Sariko finalak, Bergaran

Finalaurrekoak Zestoan eta Lazkaon jokatu ostean, domekan (12:00) jokatuko dituzte Bergarako frontoian Gipuzkoako Foru Aldundiko Sariko finalak, 6. Erremonte Kopa. Jaialdiaren lehenengo partidua erakustaldi partidua izango da, eta bertan –30 tantora–, Ansa II.ak eta Otanok Barricarten eta Martirenaren kontra jokatuko dute. Eta ondoren jokatuko duten finaleko partiduan –40 tantora–, Zeberio II.ak eta Jonek Utergaren eta Agirrezabalaren kontra neurtuko dituzte indarrak.

Aurtengo udan etorri
GORBEIA
Summer
PARK-ERA
EKAINAREN 24TIK ABUZTUAREN 30ERA ARTE
1€-TIK AURRERAKO EKINTZAK
EKINTZA LUDIKOAK 3 URTETIK GORAKO HAURRENTZAT
AISIALDI GUNEA LUDOTEKA GUNEA GAZTELU PUZGARRIAK
BASKET PARKEA FUTBOL PARKEA OHE ELASTIKOAK KART
PEDALDUNAK BALANZ BIKES WATER BALLS URETAKO
TXALUPAK JUMPING LASER TAG SEGWAY ZIRKUITUA
Kontsulta itzazu programazioa, ordutegiak eta prezioak hemen:
centrocomercialgorbeia.com
Ekintzak aldatu edo bertan behera uztea gerta daiteke eguraldiaren arabera
GORBEIA
Kontsulta itzazu promozioaren oinarri guztiak hemen: centrocomercialgorbeia.com
Carrefour
DECATHLON
Norauto
BRICO DEPOT
merkal
CIMER
CORTEFIEL
Mr. Wok
Viajes

Erraldoi eta Kilikien Konpartsako kideak Arrasateko Herriko Plazan, eguaztenean. | JAGOBA DOMINGO

30 urtez erraldoien gonapean dantzan

Baigorriko, Txantreako eta Deustuko erraldoien konpartsekin ospatuko dute 30. urteurrena, bihar

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Ibilbide luzea eta emankorra du Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak. Amaitzear dauden San Juan jaietan ere askotariko ekitaldietan parte hartu dute: errementari-dantzan eta Arrasate Musikaleko bandaren kalejiran eta kontzertuan, besteak beste. Bihar ere, zapatua, kalera aterako dira, Deustuko, Txantreako eta Baigorriko erraldoiekin batera.

Gaur egun, askotariko adineko 30 kidek osatzen dute Arrasateko konpartsa eta hamabi dira dituzten erraldoiak –handiak, ertainak eta txikiak–. Musu-truk, herrian eta kanpoan, urteetan egin izan duten lana txalotu eta eskertu gura du Udalak, eta helburu horrekin egingo dute gaur, egubakoitza, 12:30ean, osoko bilkuran ekitaldi instituzionala. Udaleko ordezkarien eskutik jasoko dute, bada, konpartsako kideek oroigarria eta lore bana jarriko diete, gero, taldeko lau erraldoi beteranoei –Gomez Gonzalez de Butron, Elvira de Leiba, Martin Bañez de Artazubiaga eta Santxa Otxoa–, paparrean. "Beti dago ondo, egiten ari zaren lana ondo egiten ari zarela norbaitek esatea. Eskertzen dugu, bada, Udalaren omenaldia", dio Joserra Perezek, konpartsako kideak.

ESANAK

"Eskertzekoa da egindako lana Udalak aitortzea"

JOSERRA PEREZ | KONPARTSA

Erraldoien topaketa bihar

Erraldoi lagunak gonbidatu dituzte bihar, zapatua, 30. urteurrena elkarrekin ospatzeko: "Arrasaten aurrez izandakoak dira, gertukoak ditugu laurak; urteetako ibilbidea dute haiek ere. Aipatzekoa da Txantreatik etorriko den kide batek egin zituela gure lau erraldoi handiak".

Kamioietan ekarriko dituzte erraldoiak Arrasatera, eta, Zaldibar pilotalekuan elkartu ondoren, 11:00etan abiatuko dira erdiguneko kaleetan zehar kalejiran. 13:00etan egingo dute, gero, Herriko Plazan, guztiek elkarrekin ekitaldia. Jaialdia borobiltzeko, elkarrekin bazkalduko dute Saiolaneko eraikinean. "28 erraldoi izango dira eta horien inguruan 150 bat lagun bilduko gara, eta, noski, dultzaineroak eta gaiteroak ere ez dira faltako. Arrasatekoez gainera, Bizkaikoak, Txantreakoak, Baigorrikoak, Iruñekoak eta Tuterakoak ere egongo dira. Aipagarria da herriko gaiteroek eta dultzaineroek egin duten lana harrobia osatzen; gehienetan, sei lagun izaten dira, eta bederatziko taldea osatu dute biharko. Horiez gainera, nola ez, herriko kilikiak ere izango dira. Aurtengo jaietan ahalegin berezia egin dugu, ditugun hamabiak kalera ateratzeko eta biharko topaketan ere horrela izango da".

Askotariko belaunaldietako musikazaleak elkarrekin Jul Bolinagari kantuan

Antolatzaileen oharrak eta bestelako informazio osagarria, 'facebook.com/riplagunak' helbidean

A. A. | ARRASATE

Ilusioz eta emozioz beterik daude Jul Bolinagaren gertukoak biharko jaialdirako; Monterron parkean izango da, 21:30ean. Urtarrila ezkero gogoz egin dute lan. "Jendearen erantzuna ikaragarria izan da; harrigarria, jaso dugun mezu eta dei zaparrada. Entseguak zoramen ederra izan dira: lokala jendez beteta eta sekulako giroa", dio Igor Salak, Bolinagaren lagunak.

Bertakoak eta kanpokoak

Bolinagaren ibilbidea laburbiltzea du biharkoak helburu: "Hiruzpalau orduko iraupena izango du hiru zatitan banatutako jaialdiak. Muga bat ipini behar, eta zoritxarrez jendea kanpoan geratu da, baina kontuan izango ditugu etorkizuneko ekitaldietarako. Denei eskerrik asko! Haren irudi batzuk erakutsiko ditugu eta haren musika joko dute herriko eta kanpoko laurogeitik gora musikarik".

Bolinagari eman gura izan diote protagonismo osoa, eta horregatik ez dute gura izan jaialdian parte hartuko dutenen izenik aipatu. Hala ere, bolo-bolo dabiltza, besteak beste, hauek: Fermin Mugurutza eta Xabi Solano (Esne Beltza). Era berean, sare sozialetan zabaldu da 200 autobus direla bihar Arrasatera etortzekoak. "Ez dakigu nork zabaldu duen hori; gure aurreikuspena 2.500-3.000 pertsona batzea da".

Tabernetan ere kontzertuak

Jaialdiaren aurretik, motorrak berotzeko, hiru kontzertu izango dira: Diedra taldea, Osorik tabernan (18:00); Obito, Iluntz tabernan (18:30); eta Exterminio de la Raza del Mono taldea, berriz, Irati tabernan (19:00).

ESANAK

"Ikaragarria izan da jendearen erantzuna; lagundu diguten guztioi eskerrik asko!"

IGOR SALA | JULEN LAGUNAK

JULHNE27 jaialdiaren entseguetako une bat. | KEPA ALTUBE

Eneko Goiaren, Donostiako alkatearen eskutik jaso zuen domekan Adarra saria Ordorikak. | DONOSTIAKO UDALA

"Etxekoei eta amari" eskainitako Adarra saria

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Viktoria Eugenian Eneko Goia Donostiako alkatearen eskutik jaso zuen domekan Adarra saria Oñatiko musikariak. "Etxekoei eta amari" eskaini zien Ordorikak saria, Marijose Rekalde artista nafarrak egin duen eta musikaren jatorria iradokitzen duen brontzezko eskultura.

Iaz sortu zuen Donostiako Udalak, euskal musikaren arloan garrantzi edo eragin bereziko ibilbidea egin duen edo egiten ari den artista bat omentzeko helburuarekin. Mikel Laboari eskaini zioten lehenengoa.

Ibilbidea, kontzertuan batuta

Saria jasotzeaz gainera, kontzertu berezia egin zuen gero oñatiararrak, 80ko hamarkadatik gaur egunera arte argitaratutako lanetako kantuekin osatu zuen-eta errepertorioa. *Berandu dabiltza* kantuarekin, *Ni ez naiz Noruegako errege* bigarren diskoko ikonoetako batekin eman zion amaiera domekakoari.

Beti bezala, goi mailako musikariz lagunduta izan zen. Emanaldiko lehen abestietan Leo Abrahamsen gitarraren laguntzarekin, eta Mugalaris taldearekin abestu zituen gainontzekoak.



Sorreratik dabil Baron Rojo taldean De Castro. | EDUARDO CABELLO

Carlos de Castro | Baron Rojoko abeslaria eta gitarrista

"San Juan jaiak aukera bikaina dira berriro ere Arrasatera itzultzeko"

Aurten Baron Rojo taldeak 35 urte betetzen ditu, eta hori ospatzeko biran murgilduta dabiltza

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Baron Rojo talde beteranoak kontzertua eskainiko du gaur, 23:00etan, Arrasateko Herriko Plazan. Heavy-rock zaleek aukera paregabea izango dute talde mitikoa taula gainean ikusteko.

35. urteurrena ospatzeko bira berezia egiten diharduzue.

Hala da. 30 urte bete genituenean taldeko jatorrizko kideak batu eta guztiok batera egin genuen bira. Oraingoan, aldiz, gaur egun eta urteetan zehar taldeko partaide izan diren guztien lana aldarrikatu nahi dugu.

Azkenengoz 2006an izan zineten Arrasaten, 3.60 aretoan. Zer moduzkoak dira hemengo ikusleak?

Urte mordoa daramagu Arrasaten jotzen. Lehen aldiz 1976an izan nintzen, Coz taldearekin musika jaialdi batean jotzen. Sarritan izan gara hemen jotzen, eta oso oroitzapen onak dauzkagu. Oraingoan, gainera, berezia izango da, bertako jaiak baitira. Aukera bikaina hona itzuli eta hemengo jendearekin berriro ere biltzeko.

Plazetan edo areto itxietan, zer nahiago duzu?

Jendearekin izaten den *feeling*-a desberdina da, noski. Areto itxietan harremana gertukoagoa dela esan daiteke. Kanpoko agertokietan, aldiz, jende gehiago biltzen da, normalean, eta jaietako giro hori ere asko gustatzen zait. Jotzen dugun tokian jotzen dugula, ehuneko ehuna emango dugu beti. Arrasaten ere bai, noski.

Errepertorio luzea prestatu dugu kontzerturako. Ea noiz arte uzten diguten jotzen; izan ere, uzten digutenean hiru ordu edo gehiago ematen ditugu taula gainean, hala gustatzen zaigu-eta.

Zeintzuk dira ikusleek gehien eskatzen dizkizueten abestiak?

Klasiko bihurtu diren guztiak: *Baron Rojo, Los rockeros van al infierno, Resistiré*... Horiek derrigorrez jo behar ditugu beti. Baina, horiez gain, kanta berriagoak edo ez hain ezagunak ere sartzen saiatzen gara. Horregatik egiten ditugu horren kontzertu luzeak sarritan. Bestela, badirudi beti kontzertu bera ematen ari zarela. Aldatzen saiatzen gara.

Nola ikusten duzu gaur egun heavy-rock musika?

Nik esango nuke, agian, lehen baino sona handiagoa daukala. Hala ere, arazoak ere badira. Gure promoziorako arma nagusia diskoen salmenta zen, eta hori asko galdu da. Disko bat egiteak lan handia eskatzen du, eta horretarako motibazioa eta gogo handia behar da.

"1976an izan nintzen lehen aldiz Arrasaten, Coz taldearekin jotzen"

Flamenkoa eta txalaparta bat eginda Bergaran

'Berriketan' izeneko dantza eta musika ikuskizuna eskainiko dute, 20:00etan, Muniben

M. T. | BERGARA

Txalapartaren doinuak eta flamenko musika nahasten ditu gaur arratsaldean Bergaran ikusgai izango den *Berriketan* ikuskizun berritzaileak.

Askoa Etxebarrieta *La Pulga* gasteiztarra izango da dantzaria eta harekin batera Aitor Escobar gitarra-jole arrasatearra, Angel Lopez de Toro abeslaria, Jose Gil *Giliyo* perkusio jolea eta Mikel Aveiro eta Adrian Larrañaga txalapartariak izango dira.

Taldeak ezagutzen du Bergara dagoeneko; izan ere, martxoan gaztetxean izan ziren ikuskizun berarekin, Txapa Irratiaren 30. urteurreneko ospakizunen barruan. Etxebarrieta dantzariak adierazi duenez, "oso ikusle onak" dira Bergarakoak, eta oso gustura egon ziren emanaldian zehar.

Kulturen arteko fusioa

"Euskal kulturaren eta flamenkoaren arteko fusioa da *Berriketan*", dio Etxebarrietak. Bertan txalapartak eta dantzak protagonismo handia daukatela azaldu du, "proposamen desberdina" dela azpimarratuta: "Agian, hamar urte barru antzeko ikuskizun gehiago izango dira, baina orain arte gutxi ikusi den zerbait da".

Egitasmoak, oro har, jendearengan oso harrera ona izan duela dio dantzari gasteiztarrak: "Jendeari asko gustatzen zaio. Sarritan esaten digute ez zutela uste flamenkoa eta txalaparta bateragarriak zirenik". Azaldu du haiek egiten dutena ez dela koadro flamenko tradizional bat txalapartarekin nahastea soilik: "Bien ezaugarriak aztertu ditugu eta harago joaten saiatu gara".

Duela bost urte sortu zuten *Berriketan* proiektua. | ASKOA ETXEBARRIETA

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Bidekurutzetan. 65 metro koadro. Laugarren solairua. Bi logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna eta trastelekua. Argitsua, guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko prest. Prezioa: 79.000 euro. Aukera oso ona. 618 44 38 44 edo 666 42 78 57 .

103. ERRENTAN EMAN

Ajo (Kantabria). Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Garajea eta igerilekuarekin. Hondartza gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607 41 14 43

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba ibilbidea 5ean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 651 70 79 96

Arrasate. Erdialdean apartamentu kapritxosoa ematen da errentan. Berria da. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ere bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 17 49 52

Bergara. Baserria ematen da errentan, ortu eta txabolarekin eta 1.500 metro inguruko lursailarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 39 18

Donostia. Alde Zaharrean bi pertsonendako aproposa den etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. 2015eko irailetik 2016ko ekainera bitarteko ikasturterako. 520 euro gehi gastuak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 01 40 17

Elgeta. Hiru logela, sukaldea, bi komun, egongela eta despentsa txiki bat. Guztiz jantzia. 636 51 59 64 (19:00etatik aurrera) edo 638 35 94 97

Eskoriatza. Eduardo Gorosarri enparantzan etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 77 51 65

Jaka (Huesca). Erdialdean etxebizitza ematen da errentan abuzturako. Bi logela, egongela, sukalde eta komuna. Garajearekin. Kirol-gunea du: bi igerileku, bi squash eta jacuzzia. Dena kanpoaldera begira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 47 86 91

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 09 46 26

Oñati. Errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza. Oso arduratsuak eta langileak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 64 19 25

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket. 666 80 64 92

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 88 60 30

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 653 72 87 50

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 76 93 85

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Gazteentzako lokala. 17 urteko neskak gara eta Arrasaten lokal bila gabiltza. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 647 08 97 14 edo 660 01 98 07

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Gizon euskalduna behar da asteburuetan pertsona batekin egoteko. Gidabaimena duena, alaia eta hizlaria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 70 23 90

Bergara. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 72 01 23

Elgeta. Bikote nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Deitu 12:30etik 14:00etara edo 20:00etatik 22:00etara bitartean telefono zenbaki honetara: 677 48 67 47

402. ESKAERAK

Arrasate eta Aretxabaleta. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Baita egoitzatan daudenak paseoan ateratzeko ere. Sukalde laguntzaile ere bai. Esperientzia dut. 634 84 41 94

Arrasate, Bergara edo Oñati. Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Arrasate. Orduka lan egingo nuke zaintza lanetan eta abar. Geriatria eta Alzheimer gaixoak zaintzeko ikasketak dauzkat. 619 88 60 30

Bergara. Bergarako emakumea gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Informeak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Haurrak zaintzeko prest. Neska euskalduna naiz eta haur hezkuntzako ikasketak egin ditut. Irailetik aurrera hasteko. Nerea. 615 72 47 59

Bergara. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Irakasle ikasketak egiten eta esperientziarekin. 637 36 35 59 edo 943 76 08 97

Bergara. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten ari naiz. 686 61 29 99

Bergara. Udan umeak zaintzeko gertu nago. Bertakoa naiz eta euskalduna. 634 42 85 11

Debagoiena. 26 urteko neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluduna, nagusiak zaintzeko gertu. Arduratsua naiz eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 20 59 43

Debagoiena. Soraluzeko emakumea orduka etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Nagusiak zaindu, botikez arduratu eta paseoan laguntzeko ere bai. 628 54 02 41

Debagoiena. Astelehenetik egubakoitzera lan egingo nuke bai orduka, bai egunez, bai gauak egiten. Garbiketak egiten edo nagusien zaintzan. 610 99 70 46

Debagoiena. Emakume euskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Euskaraz, gazteleraz edo alemanez hitz egingo diet. Esperientziaduna. 605 72 64 43

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Aranerreka 79m², 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €
- Aranerreka 87m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €
- Aranerreka 90m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JEITSIERA. 129.000 €
- Koldo Eleizalde, 76m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000 € NEGOZIABLEA.
- Bolun 129 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 95.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Lizaria, duplex, 111m², 3 logela. 222.445 € PREZIO JEITSIERA.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekuarekin. Garajea aukeran. 235.000 €
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Ortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundia. 204.344 €
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi, 115m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050 €
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Aiherra 83m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:
- Osintxu 85m2. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m2. 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAIN.

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu: etxe, atari eta abarrak. Ordutegi malgua. 632 77 35 38

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 46 17 94

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Gauez, orduka edo egun osoz. 645 58 71 61

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 631 14 27 02

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Esperientzia eta aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 632 19 38 74

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen. 622 59 39 87

Debagoiena. Etxeko lan eta garbiketak egingo nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. 688 65 10 22

Debagoiena. Etxeko lan eta garbiketak egiteko gertu nago. Egun osoz, erdiz zein orduka. 688 65 04 56 edo 943 25 34 17

Debagoiena. Garbiketan, gidari moduan edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Laguntzaile ikasketak bukatzen ari naiz. Eduardo. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 97 90 92

Debagoiena. Gertu nago garbiketa lanak egiteko: etxe, atari eta abarrak. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Gizon langile eta arduratsua gertu nagusiak zaintzeko, lorezain lanetarako eta etxe edo baserriak zaintzeko. 634 14 36 65

Debagoiena. Lan egiteko gertu, lorategi mantenuan edo margo peoi moduan. 943 79 82 43

Debagoiena. Margotzen, lantegian zein tabernan lan egingo nuke. 697 88 35 62

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbiketa egin eta abarretarako. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka. 688 48 47 76

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperekin. 606 64 16 09

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke. 654 79 07 58

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. Orduka ere bai. 602 57 32 75

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka eta baita asteburuetan ere. 631 49 94 96

Debagoiena. Neska arduratsua 11:00etatik 16:00etara bitartean nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Lege paperak ditut. 677 39 70 48

Debagoiena. Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko ere gertu nago, baita orduka garbiketa lanak egiteko ere. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko zein etxeko garbitasun lanak egiteko. Egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo tabernan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak ditut. 632 36 83 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaindu zein garbitasun lanetarako. Orduka, egun osoz edota etxean bertan bizi izaten. 685 64 84 78

Debagoiena. Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi eta umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko gertu. 646 34 74 35

Debagoiena. Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketak egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauez. 633 84 65 30

Debagoiena. Neska euskalduna lanerako prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume eta nagusiak zaindu edo taberna, atari eta abarrak garbitzen. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 631 28 22 03

Debagoiena. Orduka umeak zaindu, garbiketak egin edo nagusiak laguntzeko gertu nago. 10:00ak eta 16:00ak bitartean. Ana. 632 33 91 05

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke, hoteletan lan egin, sukaldari laguntzaile gisa lan egin, garbiketa lanak eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 11 23 40

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Esperientzia dut eta oso langilea naiz. Isabel. 647 10 58 72

Emakume euskalduna. Emakume euskalduna garbiketak egiteko prest. Etxebizitzak, atariak, tabernak eta abar. Baita etxeetan janaria gertatzeko prest denborarik ez duten edo ezinean dabiltzan pertsonei. Sukaldaria naiz eta eskarmentua dut hainbat gauzatan. 690 86 46 80

Emakumea lanerako prest. Emakume gaztea etxeetan garbiketak egin eta haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko prest. Esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 44 92 85

Haurrak zaindu Bergaran. Haur Hezkuntzako ikasketak dituen 25 urteko neska bergararra irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest, goiz zein arratsaldez. Esperientziaduna. 680 17 33 61

Haurrak zaintzeko gertu. Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko irailetik aurrera. Irakasle ikasketekin eta umeekin esperientzia duena. 690 64 98 81

Haurrak zaintzeko prest. Neska euskalduna eta arduratsua, umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Haur Hezkuntzako ikasketekin eta arlo honetan esperientzia handiarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 10 77 48

Ile-apaintzailea. Ile apaintzaile eta estetizista lanerako gertu. Asteburutan, orduka edo egun osoz; behar duzuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 72 64 43

Lan bila. Garbiketa lanak egingo nituzke: etxeak, tabernak, atariak eta abar. Arduratsua naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 74 63 24

Masajista. Tituludun masajistak ile-apaindegi edota estetika zentroren batean lan egingo luke, autonomo moduan edo kontratuarekin. 622 64 78 64

Umeen zainketa. 17 urteko neska euskaldun eta arduratsua naiz. Umeak zaintzeko prest nago, bai goizez bai arratsaldez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 80 24 40

403. BESTELAKOAK

Jostuna. Josten esperientzia duen norbaiten bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 17 97 74

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Ikastaro trinkoak, HEO-eko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko eta abar. Deitu zenbaki honetara: 618 91 32 89

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Apirilean jaiotako katakumeak ematen dira opari. interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629 09 63 46 edo 660 92 70 71

Txakurkumeak opari Oñatin. Arratoi txakur kumeak ematen dira opari. Bost aste dituzte eta ama arratoi ehiztari fina da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 01 40 17

8. DENETARIK

801. SALDU

Literak. 80x190 neurrikoak. Bi urte dituzte baina egun gutxitan erabili izan dira. Kolore argia. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 57 64 edo 605 75 72 96 (Ines)

802. EROSI

Bizikleta tolesgarria. Egoera onean dagoen bizikleta tolesgarria erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 31 64 41

Klarinetea. Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 39 20 87 Ines

806. GALDU

Graduatutako betaurrekoak. Aretxabaletako plazatik Txarapearako bidean galdu nituen, ekainaren 4an, eguenez. Beltzak dira eta zorro baten barruan zeuden. Aurkitu badituzu, eskertuko nuke zenbaki honetara deitzea: 615 75 52 75

Telefonoa Aretxabaletan. Mugikorra galdu dut Aretxabaleta erdialdean. Txikia, zuria eta tapaduna. Aurkitu baduzu deitu, mesedez, zenbaki honetara: 665 70 69 01

Zetazko zapia. Juan Gattiren zetazko zapi gorri bat galdu nuen Bergaran, ekainaren 8an, plazatik geltokirako bidean. Zapi handia da eta garezur baten irudia dauka. Aurkitu baduzu deitu, mesedez, zenbaki honetara 626 12 95 07

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Elaia Iturbe
Uztailaren 2an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, guapa! Maitte zaittugun danon partetik. Disfrutatu egunaz zeure alaittasun txispa horrekin! Ah! Eta ondo ibili udalekutan!

BERGARA
Elene Contreras Arakistain
Ekainaren 29an, 2 urte. Zorionak, txiki. Handitzen-handitzen ari zara. Patxo handi bat Juneren, amatxoren eta aitatxoren partetik.

ARRASATE
Ainara Manjon Vicente
Ekainaren 29an, 9 urte. Zorionak gurasoen eta ahizpa Paularen partetik!

ARRASATE
Paulo Abasolo Etxabe
Ekainaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Pelotan, futbolean, danian onena. Ondo pasatu, familiaren eta lagun guztien partetik.



ARRASATE
Paulo Abasolo Etxabe
Ekainaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Pelotan, futbolean, danian onena. Ondo pasatu, familiaren eta lagun guztien partetik.

BERGARA
Gorka Alberdi Garitano
Ekainaren 27an, 8 urte. Zorionak! Eta muxu erradoi bat gure etxeko mutil handiari. Ondo-ondo ospatu zortzi urtiak! Mua!

ARETXABALETA
Ainhitze Kerejeta Abril
Ekainaren 27an, 9 urte. Gure printzesak 9 urte bete ditu. Oso-oso ondo pasatu gure etxeko printzesa maitia. Zorionak!

BERGARA
Iker Bolibar Amor
Ekainaren 26an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko 6 urte! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna eta belarritik sei tirakada. Patxo handi bat etxeko guztien partetik!

ANTZUOLA
Beatriz Lete
Ekainaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Bea! Primeran ospatu zure eguna, ondo merezita daukozu-eta! Patxo handi-handi bat zure lagunen partetik!

ARETXABALETA
Markel Barandiaran Otxoa
Ekainaren 26an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, mutiko handi! Etxekoak.

ESKORIATZA
Uxue Kerejeta Quintas
Ekainaren 26an, 8 urte. Gure neskatila polita, muxu asko Aimarren, amaren eta aitaren partetik. Zorionak.

OÑATI
Markel Cortabarri Zubizarreta
Ekainaren 26an, 7 urte. Zorionak, Markel! 7 urte! Ze azkar pasatzen den denbora. Ondo-ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat denon partetik!

OÑATI
Aratz Idigoras Lopez
Ekainaren 25ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bi familia guztiaren partetik, batez ere Oier eta Maren.

ARRASATE
Martzel Azpilikueta Agirreurreta
Ekainaren 25ean, 8 urte. Zorionak, maittea. Gure etxeko alaitasuna. Egun zoragarria izan dezazula opa dizugu etxeko denek. Asko maite zaitugu.

ARETXABALETA
Markel Elorza Arkauz
Ekainaren 25ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunien. Patxo handi bat etxekuen eta, batez be, Xubanen partetik.

OÑATI
Paul Montero San Vicente
Ekainaren 24an, 7 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Zoragarrixa zara! Patxo fuerte bat etxeko danan partetik!

ARRASATE
Gorka Maria Seco
Ekainaren 24an, 22 urte. Zorionak, Gorka! San Juan suaz inguratuta, gau eta egun polittak igaro ditzazun opa dizugu etxeko danok, bereziki Ibaik eta Silviak. Segi beti bezain jator eta alai.

ARETXABALETA
Haizea Zabala Cabero
Ekainaren 22an, 7 urte. Zorionak, guapisima! Oso ondo pasatu zure egunian eta muxu asko aitaren, amaren, Egoitzen eta Izadiren partetik. Asko maite zaitugu!

ESKORIATZA
Unax Aramendi Altuna
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak, bihotza! Primeran pasatu zure urtebetetze egunian eta ea opari asko jasotzen duzun. Muxu potolotea aitatxoren, amatxoren eta Iradiren partetik. Mua!

ARRASATE
Izadi Ramos Zumalde
Ekainaren 21ean, 8 urte. Zorionak, Izadi! Primeran pasa dezazula zure urtebetetze egunean. Patxo potolo bat etxeko denon eskutik. Eta handienak Igortzen, Iraiaren eta Oierren partetik!

ARETXABALETA
Julen eta Markel Larrinaga
Ekainaren 20an, 6 urte. Zorionak zuen seigarren urtebetetzean. Ondo pasatu eta patxo handi bat amatxoren eta aitatxoren partetik. Mua!

ARAMAIO
Maddi Avila
Ekainaren 20an, 13 urte. Zorionak, Maddi! Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Pauleren partetik!

OÑATI
Elene Aranbarri Igartua
Ekainaren 19an, urtebete. Zorionak etxekoen partetik eta zure anaia Inarren partetik, muxu handi bat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEA GOIENAN

IMANOL GALLEGO

Arrasateko San Juan jaien saio berezia

Askotariko irudiak eman dituzte aurtengo sanjuanek Arrasaten. Ekitaldi esanguratsuenetan izan da Imanol Gallego kazetaria, herritarrak elkarrizketatzen, eta hark jasotakoak ikusi ahal izango dira saio berezian gaur, egubakoitza.

'Jaiak: San Juan jaiak'
Egubakoitza, 22:00

GOIENA

Eskoriatzako San Pedro jaiak ikusgai

Bihar, zapatua, Eskoriatzako txosnagunean kuadrillen arteko bazkaria eta jokoak egongo dira. Domeka eguerdian, berriz, suziria botako dute eta gauean nagusien danborrada izango da. Jaien gaineko hori guztia eta gehiago jasoko dute asteleheneko saioan.

'Debagoiena zuzenean'
Astelehena, 20:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 26
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
13:50 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
18:00 Udakoak
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Pauso bi
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak: San Juan jaiak
22:45 Debagoiena zuzenean
23:15 Berriak
23:45 Amaia DJ
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

ZAPATUA, 27
10:00 Amaia DJ
10:30 Pauso bi
11:00 Debagoiena zuzenean
12:00 Jaiak: San Juan jaiak
13:45 Zorion Agurrak
14:00 Amaia DJ
14:30 Harira
15:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Astea iruditan
16:05 Pauso bi
16:30 Jaiak: San Juan jaiak
17:15 Udakoak
17:45 Jaiak: Debagoieneko jaiak
19:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Astea iruditan
20:05 Harira
21:00 Amaia DJ
21:30 Pauso bi
22:00 Debagoiena zuzenean
23:00 Astea iruditan
23:00 Amaia DJ
23:30 Jaiak: San Juan jaiak
00:30 Pauso bi

DOMEKA, 28
10:00 Debagoiena zuzenean
11:00 Astea iruditan
11:00 Erreportajea: Korrika 19
12:00 Amaia DJ
12:30 Goierriko 7 orduak
13:30 Pauso bi
14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Astea iruditan
15:00 Udakoak
15:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
15:30 Zorion Agurrak
16:45 Debagoiena zuzenean
17:45 Astea iruditan
18:00 Jaiak: San Juan jaiak
19:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Pauso bi
20:00 Astea iruditan
20:30 Erreportajea: Korrika 19
21:35 Jaiak: San Juan jaiak
22:30 Amaia DJ
23:00 Debagoiena zuzenean
00:00 Astea iruditan
00:05 Jaiak: Debagoieneko jaiak

ASTELEHENA, 29
12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Onein
13:30 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Udakoak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Zorion Agurrak
17:05 Jaiak: San Juan jaiak
18:00 Udakoak
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Jaiak: San Juan jaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 30
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
12:55 Zorion Agurrak
13:00 Jaiak: San Juan jaiak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
17:50 Zorion Agurrak
18:00 Harmailatik
18:30 Berriak
19:00 Pauso bi
19:30 Erreportajea: Ñañarri 2015
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak: San Juan jaiak
22:45 Debagoiena zuzenean
23:15 Berriak
23:45 Harmailatik
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

EGUAZTENA, 1
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Goierriko 7 orduak
13:15 Ur eta lur
14:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Zorion Agurrak
14:30 Berriak
15:00 Udakoak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Jaiak: San Juan jaiak
18:00 Ur eta lur
18:30 Berriak
18:55 Zorion Agurrak
19:00 Ikusi irratia
19:30 Amaia DJ
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Pauso bi
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 2
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Pauso bi
13:00 Udakoak
13:30 Harmailatik
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Jaiak: San Juan jaiak
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia
17:30 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Pauso bi
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Erreportajea: Jon Salaberri
22:55 Debagoiena zuzenean
23:30 Harmailatik
23:30 Berriak
00:00 Amaia DJ
00:30 Debagoiena zuzenean
01:00 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua sanjuanei buruzkoa izango da oraingoan

Irratia sanjuanetan murgilduta egon da eta astean zehar egindako elkarrizketak berreskuratuko dituzte asteburuan 10:00etan. Jul Lagunak elkarteko Igor Salari egindako elkarrizketa eta Erraldoi eta Kilikien Konpartsako kide Joxerra Perezi egindakoa izango dira entzungai.

Udako denboraldia estreinatuko du irratiak astelehenean

Igo autobusera! irratsaioko autobusa garajean gordeko dute astelehenean, eta irratsaio horri lekukoa hartuko dio *Uda giroan* saioak. Modu horretara, astelehenean estreinatuko du uda denboraldia 107.7ak, eta ohiko ordutegian, astelehenetik egubakoitzera 10:00etan izango da saioa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 26	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Zapatua, 27	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 28	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 29	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Martitzena, 30	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguaztena, 1	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Eguena, 2	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
BERGARA			
Egubakoitza, 26	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 27	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 28	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 29	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 30	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 1	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 2	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
OÑATI			
Egubakoitza, 26	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatua, 27	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 28	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 29	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 30	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 1	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 2	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

ESKER ONA

Juan Maria Azpiazu Lizarralde
'Txistu'

Bergaran hil zen ekainaren 22an, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

ESKER ONA

Miguel Angel Etxeberria Ugarte

Ekainaren 10ean hil zen 61 urte zituela.

Egun hauetan gerturatu zareten guztioi milesker, familiaren izenean.

Bihar, zapatua, meza ospatuko da agustindarren elizan, 19:30ean.

Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Zure familia.
Oñatin, 2015eko ekainaren 26an.

ESKER ONA

Manuel Aranzabal Laskurain
'Tio Manolo'

Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 20an, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin
egon zareten guztioi, bereziki Senia Morillori.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bat, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

URTEURRENA

Tomas Biain Biain

Oñatin hil zen 2014ko ekainaren 22an, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 27an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Inoiz ez zaitugu ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2015eko ekainaren 26an.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

Patricia eta Ruben

Bergarako Patricia Murillo eta Ruben Hidalgo bihar, ekainak 27, ezkonduko dira. "Azkenean iritsi da eguna! Disfrutatu eta muxu handi bat familiako guztien partetik, bikote!".

Jorge eta Miriam

Jorge Moto eta Miriam Conde ekainaren 20an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Ezkontza eguna primeran pasatu genuen. Asko disfrutatu eztei-bidaian. Muxu handi bat familiaren eta lagunen partetik".

Iban eta Miriam

Iban Deogracias eta Miriam Alonso zapatuan, ekainaren 27an, ezkonduko dira. "Azkenean iritsi da zuen eguna! Familiaren eta lagunen partetik oso ondo pasatu zuen egunean eta eztei-bidaian".

OROIGARRIA

Mari Carmen Agirre Alzola

Ekainaren 23an hil zen.

Besarkada bat familiari.

Ikerren lagunak.
Aretxabaletan, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Mari Carmen Agirre Alzola

Ekainaren 23an hil zen.

Izar berri bat piztutzera doa, Euskal Herriko zeru gainean.

Zure lobak: Oihana, Olaia eta Oier, Alaitz, Joanes eta Maier.
Aretxabaletan, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Mari Carmen Agirre Alzola

Ekainaren 23an hil zen.

Bidai politt bat euki, amatxo.

Iker eta Maider.
Aretxabaletan, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Aitor Mujika Leturia

Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 24an, 46 urte zituela.

San Martin Agirre Herri Eskolako Komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.

Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Aitor Mujika Leturia

Ander eta Irati Mujika, Bergara Igeri Elkarteko igerilarien aita

Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 24an, 46 urte zituela.

Besarkada bat familiari une latz hauetan.

Bergara Igeri Elkartea.
Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Aitor Mujika Leturia

'Mutxi'

Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 24an, 46 urte zituela.

Aupa, txamo!!!
Beti eta betiko gure bihotzean.

Zure lagunak.
Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Miguel Angel Etxeberria Ugarte

Ekainaren 10ean hil zen 61 urte zituela.

Beti egongo zara gure artean.

Zure kuadrilla.
Oñatin, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Aitor Mujika Leturia

'Mutxi'

Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 24an, 46 urte zituela.

Jolastu futbolean, mutilak!

Bergara KEko futbol-eskolako lagunak.
Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Aitor Mujika Leturia

'Mutxi'

Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 24an, 46 urte zituela.

Gauak ez du zure argia itzaliko.

Mizpildi okindegiko zure lankideak.
Bergaran, 2015eko ekainaren 26an.

URTEURRENA

M. Teresa Ojanguren Irazabal

Elgetan hil zen 2014ko ekainaren 30ean, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 28an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Andre Mariaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2015eko ekainaren 26an.

URTEURRENA

Mari Karmen Agirre Bergaretxe

Elgetan hil zen 2014ko ekainaren 20an.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 28an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Andre Mariaren parrokian.

—

Bere bihotzaren ontasunak ezagutu zituztenen artean preziatua izatea lortu zuen.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2015eko ekainaren 26an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

ZINEMA

EIBAR

COLISEO

Ahora o nunca
Zapatua: 19:45, 22:30.

Requisitor para ser una persona normal
Zapatua: 19:45.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Jurassic world
Zapatua; 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Ahora o nunca
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Espias
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Nuestro ultimo verano en Escocia
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50.

Los insolitos peces gato
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:40.

El niño
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

Ahora o nunca
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 20:40.

Jurassic world
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Campanilla y la leyenda de la bestia
Egubakoitza: 16:40.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

No molestar
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30l
Astelehenetik eguenera: 18:45, 20:30.

Lejos del mundanal ruido
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Mandarinas
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Minusculo
Zapatua eta domeka: 12:00.

La oveja Shaun
Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

San Andres
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 17:40, 20:00, 22:20.

San Andres 3D
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 21:20.

Espias
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:20.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

No molestar
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 20:45, 22:45.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:45.

Jurassic world 3D
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:00.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:00.

Jurassic world
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 22:30.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:30.

Ahora o nunca
Egubakoitza eta zapatua: 23:30, 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:30.

El niño
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:15.

Campanilla y la leyenda de la bestia
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:00.

Campanilla y la leyenda de la bestia 3D
Zapatua eta domeka eta astelehenetik eguenera: 17:00.

Mad Max
Egubakoitza eta zapatua: 23:40.

Asterix
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

Home
Zapatua eta domeka: 15:30.

Dando la nota
Zapatua eta domeka: 17:00.

Tomorrowland
Egubakoitzetik eguenera: 19:30.

Insidious
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik eguenera: 22:10.

La oveja Shaun
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:40.

Ups, ¿donde esta Noe?
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

Nuestro ultimo verbao en Escocia
Astelehenetik eguenera: 17:15.

KRITIKA

Neskatila eta txakurrak

WHITE GOD ★★☆☆☆
Zuzendaria: Kornée Mundruczo.
Herrialdea: Hungaria.
Aktoreak: Zsófia Psotta, Sandor Zsótér.

Benetan izugarria da *White god* pelikularen lehen eszena. Budapesteko kaleak hutsik daude; hiriburu fantasmagorikoa dirudi. Inor ez dago. Bakarrik neskatila bat, eta bere atzetik ehunka txakur doaz. Amets baten gaudela dirudi. Egoera horretara filmaren azkeneko zatian bueltatuko gara berriro. Lehenengo eszenaren ostean, neskatila eta txakurra izango dira istorioaren protagonista nagusiak. Ama kanpora doa hiru hilabeterako eta neskatila aitaren etxera bizi izatera joango da. Aitak eta gizarteak ez dute animalienganako sentsibilitaterik azaltzen, oztopotzat hartzen dute. Horren ondorioz, biak baztertu egingo dituzte eta hortik aurrera bien odisea ikusiko dugu. Modu desberdinean ezagutuko dute gizartearen hoztasuna eta krudeltasuna.

Lehen zatian eszena latzak daude: txakurra hiriburuan galduta, tratu txarrak jasaten, borroketarako erabilia. Tonuak errealista ematen duen arren, aldi berean tonu horretatik aldentzen gaituzten osagaiak agertzen dira. Une batzuetan txakurraren ikuspuntua ikusten dugu: txakur taldean agertzen den txakur txiki babeslea... Errealismoa gainditzen da ipuinek askotan azaltzen duten alderdi maltzurrarekin jolasteko. Istorioak kutsu fantastikoa hartzen du bigarren zatian. Txakurrak zapaltzaileen kontra jaikiko dira. *White God* kulturaren garrantzia aldarrikatzen duen parabola da. Lehen eszena ikusgarria bada, azkena ere bai.

White God irudi boteretsuaz beterik dago. Ehunka txakur batera korrika gauza benetan ikusgarria da. Filmaketa nahiko konplexua dirudi eta, alde horretatik, irudiek eta filmak indarra dute. Agian, zati ahulena izan daiteke alde gordinena: filmak ikuslea txunditu nahi du eta lortzen du.

Baina, agian, hori lortzeko momentu latz horiek gehiegi azpimarratuta daude.

ANTONIO ZABALA

IMANOL SORIANO

OÑATI 'Volare' kontzertua Ganbara faktoriako taldeekin
Musikaz beteriko hegaldi zirraragarria egingo dute Ganbara Abesbatzako eta Ganbara Txikiko kideek. Emanaldi berezia izango da, musika kalera aterako dute-eta: Bidaurretako elizaren atarian egingo dute kantaldia.
Gaur, egubakoitza, Bidaurretako elizaren atarian, 22:00etan.

ARRASATE Jul Bolinagaren omenezkoa
Jul Bolinaga "lagun eta musikari moduan" omentzeko jaialdi handia egingo dute San Juan jaietako azken egunean. Oholtza gainera 80 bat musikari igoko dira eta punk, rock eta folk doinuak bateratuko dituzte. Ekitaldi irekia izango da herritar guztiendako.
Bihar, zapatua, Monterron parkean, 21:30ean.

NON-ZER

EKAINA 26
UZTAILA 2

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

ARAMAIO Zarzamora, Manex Arriolabengoa, Maria Izaga eta Sabin Aranburu
Ekaineko azken kontzertua Sastiñan.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

ARRASATE Baron Rojo
Espainiako Estatuko heavy-rock talde esanguratsuena da. 1970eko hamarkadaren amaieran sortutako taldea.
Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 23:00etan.

OÑATI Arenna eta Dr. Sax
Arenna taldeak *Given To Emptiness* diskoa aurkeztuko du. Bestalde, Txus Lopez de Mendiguren da Dr. Sax proiektuaren atzean dagoen bakarlaria. Sarrerak, lau euro.
Gaur, egubakoitza, Antixenan, 22:30ean.

BERGARA Diablues & Bluecifer
Asier Elortza eta Mikel Etxeberria bergararrek osatzen dute taldea, eta 2014a ezkero dihardute blues akustikoarekin lanean. Gainera, uztailaren 9an Hondarribiko bigarren blues jaialdia irekiko dute.
Bihar, zapatua, Pol-Pol tabernaren balkoian, 13:30ean.

BERGARA Udal Musika Banda
San Pedro eguneko kalejira (12:00) eta kontzertua (12:30) egingo dituzte. Azken hori, Espoloian.
Etzi, domeka, Espoloian, 12:30ean.

ELGETA Musika ikasleen emanaldia
Elgetako musika ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute Espaloia kafe antzokian. Sarrera irekia eta doan herritar guztiendako.
Etzi, domeka, Espaloian, 12:30ean.

OÑATI Riffs & Chips
2010ean sortutako rhythm-and-blues taldeak bigarren diskoa aurkeztuko du. Doan.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

BERGARA 'Berriketan'
Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-k flamenkoa eta txalaparta bateratuko ditu ikuskizun berean.
Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE 1940ko hamarkadako Arrasate ikusgai
1945aren bueltako Arrasate erakutsiko dute, bertako denda, fabrika, negozio eta herriko pertsonaia ezagunak arrasatearren esku ipinita.
Uztailaren 11ra arte, Kulturaten.

OÑATI 'Irunberri sentituz' erakusketa
Oñatiko Euskal Memoria Taldearen eskutik, Andoaingo, Irunberriko eta Oñatiko artisten lanak.
Ekainaren 28ra arte, kultura etxean.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'
Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herrian izan duen eragina.
Harresi aretoan ikusgai.

BERGARA Argazki lehiaketako lanak
Bergara Hiria argazki lehiaketara aurkeztutako lanen bilduma.
Ekainaren 28ra arte, Aroztegin.

JAIAK

ARRASATE Sanjuanak azken txanpan
Bihar, zapatua, bukatuko dira aurtengo sanjuanak. Gaur eta bihar askotariko ekintzak egongo dira; besteak beste, errekortadore eskolakoen saioa, erraldoien topaketa, musika emanaldiak, zezensuzkoa eta bertso emanaldia.
Gaur eta bihar, Arrasaten.

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak
Askotariko ekintzak egingo dituzte aste bukaeran. Besteak beste: egubakoitzean, haurren danborrada (18:00), Nepalen aldeko elkartasun festa (19:30) eta Amaia Txintxurretaren DJ jaialdia (22:30); zapatuan, marrazki lehiaketa (11:00), ginkana (12:00), buruhandien kalejira (18:00), zuhaitz jasotzea (20:00) eta sagar-dantza (23:00); eta domekan, dantzarien emanaldia eta salda dastatzea (12:00), Patata Tropikala taldearen antzezlana umeendako (18:00) eta asto lasterketa (19:00).
Aste bukaeran, Kalebarrenen.

OÑATI Zubillagako jaiak
San Pedro jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte. Askotariko ekintzak egingo dituzte. Besteak beste, gaur, barbakoa egingo dute auzotarrek, eta bihar, Askazubirako bigarren kronoigoera, haurrendako jaialdia, mus txapelketa, txokolate-jana eta Amaia DJren emanaldia. Domekan: meza, erretiratuendako luntxa, toka eta zinta lasterketak eta bertso-kontzertua.
Aste bukaeran, Zubillagan.

OÑATI Torreauzoko jaiak
San Pedro jaiak ospatuko dituzte bihar eta etzi Torreauzon. Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, mus txapelketa, Tor magoaren emanaldia eta erromeria. Domekan, Torreauzoko krosa, meza eta luntxa. Azkenik, hilaren 29an, San Pedro egunez, meza ospatuko dute auzoko ermitan.
Bihar eta etzi, Torreauzon.

ANTZUOLA San Martzial jaiak
Ekainaren 30ean eta uztaileko lehen aste bukaeran (4 eta 5) ospatuko dituzte jaiak. San Martzial egunean meza ospatuko dute eta ostean gazta eta ardo dastatzeak egongo dira (19:30). Gero, herri afaria (21:00) eta mus txapelketa azkarra egingo dituzte.
Ekainaren 30ean, Lizarraga auzoan.

IMANOL SORIANO

OÑATI Rheinbergerren eta Faureren lanak
Oñati Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak bi konpositoreen lanak interpretatuko dituzte Ganbara Orkestrarekin batera. Guztira, 130 kantari batuko dira Aitor Biain zuzendariaren aginduetara. Sarrerak parrokian bertan erosi ahal izango dira, hamar eurotan.
Etzi, domeka, San Pedro parrokian, 19:00etan.

IMANOL SORIANO

BERTSOLARITZA

ARRASATE Sanjuanetako bertso saioa
Xabi Igoa, Oihana Bartra eta Agin Laburu bertsotan AEDren eskutik. Doan.
Bihar, zapatua, Seber Altuben, 20:00etan.

ARAMAIO Euskal Herriko bertso eskolen arteko finala
Arabako bertso eskolen arteko txapelketa irabazi ostean, Peru Abarrategi aramaioarrak parte hartuko du Orioko finalean.
Bihar, zapatua, Orioko pilotalekuan, 11:00etan.

IRTEERAK

ARRASATE Pirinioetara mendi irteera
Camille sendako bigarren etapa egingo dute uztailaren 4an eta 5ean: Lintza-Gabardito eta Gabardito-Lizarra, hurrenez hurren. Izena emateko azken eguna ekainaren 29a da, Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:00etara.
Izen-ematea, Besaideren bulegoan.

ARRASATE Moncayora irteera
Zaragoza alderako ibilaldia egingo dute uztailaren 18-19ko aste bukaeran. Izena emateko egunak: uztailak 6, 7 eta 8, 19:30etik 20:00etara, Besaideren bulegoan.
Izen-ematea, Besaideren bulegoan.

IKASTAROAK

ARRASATE Solteko dantza
Jotak, porrusaldak, fandangoa eta arin-arina landuko dituzte Patxi Monterorekin uztailaren 6tik 10era. Hamar orduko oinarrizko ikastaroa. Izena emateko: *herrixadantzan@gmail.com* helbidea edo 943-78 90 70 telefonoa.
Uztailaren 6tik 10era, Arrasaten.

ELGETA Dantza-jauziak
Dantza-jauzietan sakontzeko ikastaroa egingo du Patxi Monterok, uztailaren 20tik 24ra. Hamar orduko ikastaro aurreratua izango da. Izena emateko: *herrixadantzan@gmail.com* helbidea edo 943-78 90 70 telefonoa.
Uztailaren 20tik 24ra, Elgetan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Zapatak airean'
La Furtiva taldeak dantza, kabareta eta poesia bateratzen dituen ikuskizuna eskainiko du. Hiru diziplina horietara hurbildu gura dituzte herritarrak.
Uztailaren 1ean, Mitarten, 19:00etan.

DANTZA

ARETXABALETA Dantza inprobisazioa
Jaiki elkartearen eskutik dantza inprobisazio saio irekia egingo dute.
Uztailaren 2an, Herriko Plazan, 19:00etan.

DEIA

OÑATI Elkartasun afaria
Maliko proiektuari buruzko elkartasun afaria egingo dute Bidaurretan. Afariaren ostean, Pastoral Barrutiko ordezkari Leire Atxegak egingo du berba proiektuaren gainean.
Gaur, egubakoitza, Bidaurretan, 20:30ean.

OÑATI Herri Eguneko azoka
Parte hartu gura duten artisauendako deialdia egin dute dagoeneko. Interesatuek uztailaren 20a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean.
Izen-ematea, uztailaren 20a baino lehen.

OÑATI Herri Eguneko taberna kudeatzeko deialdia
Kultura Sailak egin du deialdia. Herri taberna hornitzea eta ustiatzea izango da aurkezten den taldearen ardura. Egun horretan lortutako irabaziak taldearendako izango dira. Interesatuek uztailaren 10a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean edo 943-78 03 53 telefonoan.
Izen-ematea, kultura etxean.

OÑATI Atzeko kaleko txosna kudeatzeko deialdia
Kultura Sailak egin du deialdia. Herri taberna hornitzea eta ustiatzea izango da aurkezten den taldearen ardura. Egun horretako irabaziak, taldearendako izango dira. Udalak txosna eraikina bera eta soinu-ekipoa ipiniko ditu.
Izen-ematea, uztailaren 10era arte.

LEHIAKETAK

OÑATI Jai egitaraurako irudia
San Migel jaietako egitaraua aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Teknika librea erabiliz Oñatiko Jaiak izango dira hizpide nagusi. Informazio gehiago eta arauak *Oinati.eus* atarian edo *kultura.idazkaritza@oinati.eus*-en.
Izen-ematea, uztailaren 10era arte.

Debagoieneko GREMIOAK

AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
ARRASATE
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ESKERRIK ASKO!

Debagoiendarrek bidalitako Gure Esku Dagoren ekitaldietako argazki piloa jaso dugu.
Goiena komunitatea osatzen duzuenoi esker.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

BUKATZEKO

Dorretxea, filmatze toki bihurtuta

- Ignazio Loiolakoaren gaineko pelikula egiten dabiltza egunotan, Filipinetako jesuitek ekoiztuta
- Aretxabaletako Galartza auzoko dorretxearen aurrealdean hainbat eszena grabatu dituzte astean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Leintz aldeko jauntxo Gonzalo Lopez Galartzaren dorretxea Ignazio Loiolakoaren bizitoki bihurtu da astean. Aretxabaletako Galartza auzoan dagoen Erdi Aroko eraikina izan da ezpata erabiltzen ikasi nahian dabilen 10 bat urteko Iñigo Loiolakoaren lekuko –gero hartu zuen Ignazio izena–, baita Iruñeko borrokaldiaren ostean zaurituta itzuli den Iñigo gaztearen lekuko ere.

Filipinetatik etorritako Jesuiten Konpainiako ekoiztetxe bateko kideak dabiltza grabatzen Ignazio Loiolakoa santuaren gaineko filma, eta aktore espainiarrak dira gerlari eta erlijioso euskaldunaren paperean sartu direnak. Haren jaiotetxerik, baina, ez dago egun Azpeitian, eta Galartzako dorretxea dotorea irudituta etorri dira Aretxabaletara: "Hemen aurkitu dugun dorreak Loiolakoa ondo irudikatzen du, zoragarria da, eta erabaki dugu hauxe erabiltzea", jakinarazi du Nono Alfonso aita jesuitak, Filipinetako jesuiten komunikazio zuzendariak.

Filipinetako ekoiztetxekoak Galartzako dorretxearen aurrean grabatzen. | M. ALTUBE

Ignazio Loiolakoa lurrean etzanda eta alboan aita. | M.A.

Iruñean frantsesen aurka

Aretxabaletan bi egunean egin dituzte grabaketak. Eta ostean Azpeitira joan dira: "Loiolan bizi izan zen Ignazio, eta santutegi barruan grabatuko dugu orain: bere logelan, jantokian…", argitu du jesuitak. Eta gero, Nafarroara egingo dute salto: "Frantsesen aurka borrokatu zen Iruñean, eta, zalantzarik gabe, toki zirraragarrienetakoa izango da hori. Federa hurbiltzen ere bertan hasi zen".

Gazteei erakusteko filma

Jesuiten Konpainiaren sortzailea izan zen Ignazio Loiolakoa, eta filmaren helburua da santuaren historia jasotzea eta ondoren erakustea: "Gazteei erakutsi gura diegu bereziki filma, jesuiten unibertsitateko ikasleei eta, noski, ondorengo belaunaldietako gazteei. Frantzisko aita santua ere jesuita da, eta haren jatorria jasoko dugu horrela".

Uztailaren 17a bitartean egingo dituzte grabatze-lanak Euskal Herrian, eta ondoren, Filipinetara itzuliko dira. "Oraindik lan asko geratuko da egiteko, editatze-lanak, esaterako, eta dirua batu ere bai. Zorte apur batekin, ea datorren urtean zinema aretoetan erakuts dezakegun. Hona ere ekarri gura genuke", jakinarazi du Nono Alfonso jesuitak.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

San Juan sua

San Juan egunean idatzi dut zutabe hau. Bart Bergaran ere izan genuen sua, plazan. Herri mugimenduak, iazko etenalditxoaren ondoren, aurten berriz antolatu du sua eta suaren inguruko jaia. Plaza jendez gainezka atzokoan ere. Ederra!

Udako solstizioak badauka bere xarma. Seguruenik, paganoena bera mantendu delako eta gure izaera primitiboenera eramaten gaituelako.

Nik, aurten, banituen sutarako hainbat gauza eta bota ere egin nituen. Sutara hurbildutakoan suak berak erre egin ninduen aurpegian. Sutara zenbait gauza botatzeak erre egin dezakeela pentsatu nuen. Hala ere, eta aurpegiko berotasun gogor hura sentitu arren, sutarako nituenak banan-banan botatzen jarraitu nuen aurrez pentsatutako guztiak erretzen ikusi arte.

Izan ere, San Juan bezperako suak aukera aparta ematen digu urtean zehar egindako akatsak erretzeko eta epealdi berri bati ekiteko. Nik aukera hau baliatzea erabaki nuen atzokoan. Gainera, Foru Aldundiko bi urtetako nire ibilbidea ere egun hartantxe bukatu nuen eta epealdi berri bat hasteko egun ezin aproposagoa zen.

Hori bai, gaur goizean ez naiz ihintzetan oinutsik ibili. Ez al dit honek hasiera okertuko!